

LEIOAKO HIZTEGIA

GIZA-GORPUTZA

Atal honetan giza gorputzari dagokion lexikoa biltzen dugu. Informazioa hobeto emateko atal hau ondoko era honetara banatuta aurkezten dugu: burua, ahoa, begia, belarria, sudurra, ilea, gorputza, besoak, hankak, errainak, azala, gurariak eta loa.

BURUA

arpegi, aurpegi: aurpegia

bekoki: bekokia, kopeta

bigotea: bibotea

bixarra: bizarra

buru: burua

"Buruko minerako, a, estu besterik esetu guk aspirina paño" - (Buruko minerako, ez dugu besterik ezagutu guk aspirinak baino)

"San Juan de Gasteluatzen ba, sera dau San Juanen, e, buru, eta, se burureko sera da, eta kanpatxu" - (Gaztelugatxeko San Juanen ba, zera dago, San Juanen, burua, eta, ze bururako zera da, eta kanpaitxoa)

idune: iduna

"Ak idunen pasate yeusen berak" - (Hark idunean pasatzen zituen berak)

kokota: kokota, garondoa

konorte

konosimentu

"Ba golpe artute, konosimentu barik, konorte galdute" - (Ba kolpea hartuta, konorte barik, konortea galduta)

mandibule

okospe: okozpea, okotz-azpia

"Okospe au, baye au gargantxoya, au, au samati datorrenari" - (Okozpea hau, baina hau garrangila, hau, hau samatik datorrenari)

okotza: okotza

same: sama, eztarria

AHOA

agine: hagina, hortza

"Usteldute esaten du en jeneral guk agine, aginek usteldute dekos" - (Ustelduta esaten

dugu gehienetan guk hagina, haginak ustelduta dauzka)

"Agine ataraten gendunen, eiten gendun, tellature bota, ta gero kanta" - (Hagina ateratzen genuenean, egiten genuen, teilatura bota, eta gero kantatu)

aginetako ure

"Aginetako ure, sagarragas nai edosin gauseas, txapeas eiten badosu olan be, saus ixilik, um! aginetako ure emoten dostesu" - (Haginetako ura, sagarragaz nahi edozein gauzagaz, txapagaz egiten baduzu holan ere, zagoz isilik, um! hagnetako ura ematen didazu)

ago: ahoa

"Seoser agon ibil dieden, uyek ba bigundu yakosen, uyek bigunteko ba, agon seoser ibili, txupete baño, apur bet gogortxuau" - (Zer edo zer ahoan erabil dezaten, oiak ba bigun dakizkion, oiak biguntzeko ba, ahoan zer edo zer erabili, txupetea baino, apur bat gogortxoagoa)

"Sabaldu ago baye sabaldu sano!" (Zabaldu ahoa baina zabaldu sano!)

agoko seru: aho sabaia, aho zerua

albo agine: albo hagina, matrail-hagina

barre faltzo: barre faltsua, derrigor egiten den barrea

"Orrek barre faltzo auki deu, barre faltzo" - (Horrek barre faltsua eduki du, barre faltsua)

barre: barrea

betagine

bosa: boza, ahotsa

esneko agine: esneko hagina, lehen hortz haginak

"Esneko aginek urten dotze" - (Esneko haginek irten diote)

espana: ezpaina

gustu: gustua

"Allorbe ona eseten san, baye esneri emoteutzen gustu, gustu fuerte bat, ta orreitarrrik, allorbe eraite san ba, ganadu loditu iteko, edo idintzeko, edo txalantzako edo olan" - (Ailorba ona izaten zen, baina esnari ematen zion gustua, gurtu handi bat, eta horregatik, ailorba ereiten zen ba, ganadua loditu egiteko, edo idientzat, edo txahalentzat edo holan)

"Gustu obe dekola dinoude" - (Gustu hobea daukala dinote)

LEIOAKO HIZTEGIA

"Esteke gusturik esetako, lodi(k) daus bataren batzuk erretako" (Ez daukate gusturik ezertarako, lodiak dagoz baten batzuk erretzeko)

irribarre: irribarrea

mie: mihia

"Orrek esteu iten ber dan modun berba ba, igual bai, ese, atxine, umeri esate yean se, ori pronunsiaten esteunen mii aspin, aukiten deudela olau telatxu bet, eta a telatxu kendu, ta pronunsiaten deudela ondo, ori berbe, erre" - (Horrek ez du egiten behar den moduan berba ba, beharbada bai, ezen, antzina, umeari esaten zioten ze, hori ebakitzen ez duenean mihi azpian, edukitzen dutela holako telatxo bat, eta telatxo hura kendu, eta ebakitzen dutela ondo, berba hori, errea)

miaspiko: mihipekoa, mihipirua; "r" a ahozkatu ezin duenak daukan arazoa ere bai

mosu: musua

musturre: muturra, ezpainak

palak: aurreko hortzak

santzo, sanso: zantzoa, irrintzi

"Ba! auki gendun guk, baliente amoma, santzolari, bai amoma Maria, selan eite yeun gero! jo! ak aguantate yeun, e, bost minutu baño geyao santzoas" - (Ba! eduki genuen guk, trebea amama, zantzolaria, bai amama Maria, zelan egiten zuen gero! jo! hark irauten zuen, bost minutu baino gehiago zantzoagaz)

tragu: zurrutada

"Askok eiten deu, gortara ta lelako tragu baldeko berantzako ixeta san" - (Askok egiten du, kortara eta lehenengo zurrutada baldekoa berarentzat izaten zen)

txatxurre: txatxurra, umeei esaten zaie haginaren irtekera dela eta

"Urten dotzu txatxurtxu betek" - (Irten dizu txatxurtxo batek)

txue: txua, txistua

uye: oia

"Ogi sikue esaten deude ona dala ba, uyek errementateko" - (Ogi sikua esaten dute ona dela ba, oiak errementatzeko)

BEGIA

adikune: adikunea, begirakunea

"Begi epela, daus personak adikune, sera deukotzuenak eta beste batzu taus adikune triste deukenak, t'orreri esate yake selau begi epela dan ori!" - (Begi epela, dagoz pertsonak adikune, zera daukakizutenak eta beste batzuk dagoz adikune triste daukatenak, eta horiei esaten zaie zelako begi epela den hori!)

anpullu: anpulua

begi argi: begi argia

begi baltza: begi beltza

begi epela: begi epela, begirakune tristekoari esaten zaio

"Begi epela da ba, begik, e, adikune triste dekona" - (Begi epela da ba, begiak, adikune triste daukana)

begi nabarra: begi nabarra, begi gaztainkara

"Begi nabarra guk esaten dotzu en jeneral begik ilune tekosenari, selau begi nabarra tekosen!" - (Begi nabarra guk esaten diogu gehienetan begiak ilunak daukanari, zelako begi nabarrak daukan!)

begi suri: begi zuria, begi urdin eta berde argiak izaten dira

begi: begia

"Aitu ara, katarroas begi dustik errete dekoso" - (Aitu hara, katarroagaz begi guztiak errete dauzka)

begiko golpe

begiko niño

betondo: betondoa

"Betondo, aurpegi, au mandibule baye betondo, emoten botzut betondoko at" - (Betondoa, aurpegia, mataila hau baina betondoa, ematen badizut betondoko bat)

bisde, biste: ikusmena

"Aitu orrek selan errebiraten deun bisdeas" - (Aitu horrek zelan okertzen duen ikusmenagaz)

"Ya estot ikusten ondo se dekot biste gastata" (Ja ez dut ikusten ondo ze daukat ikusmena gastatuta)

bisko

erribiru: betokerreria, begiak okertzea

negar anpullue: negar anpulua, negarra, malkoa

"Inor negar eiten badau, selau negar anpulluk botateitusen" - (Inor negar egiten badago, zelako negar anpuluak botatzen dituen)

negarra: negarra, negar anpulua

pestañe: betilea

LEIOAKO HIZTEGIA

"Botiketi, Sanantonion autzekas garbiren die orrek begitxuk, yausi estaitesen pestañak eta esate yen ak, se osten igual pestaña pere gogor badaus, e, pistek yausi" - (Botikatik, San Antonioren hautsakaz garbitzen dira horiek begitxoak, jausi ez daitezzen betileak eta esaten zuen hark, ze ostean beharbada betileak ere gogor badagoz, pistak jausi)

piste: pista

suspiru: zotena, negar zizpurua, negar egikeran egiten diren hasperenak

"Selau suspiru teukesan, orrek angeru tristek" - (Zelako zizpuruak dauzkan, aingeru triste horrek)

BELARRIA

belarri: belarria

"Ori pasteko eser on ona ixete san busties, busties, gure Marilori asko urteten deutze askordinek, olan belarri puntetan" - (Hori pasatzeko ezer egon, ona izaten zen bustiagaz, bustiagaz, gure Marilori asko irteten diote azkordinek, holan belarri puntetan)

durundu: durunda, burrunba

"Durundu, e, guk, e, igual badekosu buruko mine edo belarriko mine, enei! selau belarriko durundu dekoten" - (Durunda, guk, beharbada badaukazu buruko mina edo belarriko mina, enei! zelako belarriko durunda daukadan)

"Ori da durundu belarrin nai burun nai, nik sarri aukiten dot buruko durundu, e, buruko mineas" - (Hori da durunda belarrin nahi buruan nahi, nik sarri edukitzen dut buruko durunda, buruko minagaz)

sarate: zarata, hotsa

"Gau gustin euki du sarate" (Gau osoan eduki dugu zarata)

sokorru: oihua, alaraua

SUDURRA

arnasarbine

arnase: arnasa

"Iten deu atañoکو bero ta esin da arnasarik artu, arnasari pe elei artu" (Egiten du

hatainoko beroa eta ezin da arnasarik hartu, arnasarik ere ez liteke har)

sunde: sunda

"Bai ke tximine sunde galantaas urten andi be!" - (Bai ke tximina sunda galantagaz irten handik ere!)

surre: sudurra

sursulo: surzuloa, surtziloa

"Selau sursulok andi dekosen orrek umek" (Zelako surzuloak handiak dauzkan ume horrek)

ILEA

bixerra: bizarra, burukoa ez den ilea

erremolino

eskarpidore: moinoa egiteko erabiltzen zen orrazi modukoa

girne: puntaz lotzen den ilea

kalbe

kalbo

kane

"Aitu semet kana dekon orrek ullen" - (Aitu zenbat ileuridin daukan horrek ilean)

kaskete: kaskagaina

kaspe

moño: moinoa, moto txikerra

"Gure amak moño, moño eukite yen" (Gure amak moinoa, moinoa edukitzen zuen)

orrasi

sape: txima, sapa

"Eno ni orrastan dausela buruko sapok" - (Ez noa ni orrazten dagozela buruko sapok)

trense

ulle: ilea

ulle baltza: ile beltza

ulle erre

ulle girne: puntaz geratzen diren ileak

"Selau ulle girne tekosusen" - (Zelako ile gironak dauzkazun)

ulle gorri

ulle lodi: ile lodia, ile sendoa

ulle mea

ulle mengela: ile mengela, ile fina

GORPUTZA

bulerra: 1. bularra, 2. bularra, titia

"Aman bulerra edo, edosin, ausoko baten belarriko mineas, esate yeutzen, ene

LEIOAKO HIZTEGIA

eroixue seña, esayosu bota yaula buler txorrotadatu bet" - (Amaren bularra edo, edozein, auzoko baten belarriko minagaz, esaten zioten, ene eroan ezazue seina, esaiozu bota dezala bular txorrotadatu bat)

eperdi: ipurdia

"Amoma paño tripe eta eperdi andiao dekos ya seña eta saspí urte baño estekos" (Amamak baino tripa eta ipurdi handiagoak dauzka ja seinak eta zazpi urte baino ez dauzka)

espalde: lepoa, bizkarra

garri: gerria

"Semet arra dekosen megite san a garriti, ganadu" - (Zenbat arra dauzkan neurtzen zen hura gerritik, ganadua)

gorputze: gorputza

"Baye ori esayesten andrek, esan ber dosus esato, dekousenak gorputzen, esato esaten espadosus estire iten" - (Baina hori esan zidan andreak, esan behar dituzu zehatz, daukazunak gorputzean, zehat esaten ez badituzu ez dira egiten)

kolko: kolkoa

lepo: lepoa

"Ume tapa barik, bueno, ume noperaas igual, a dabil or sera iten ta neuk igual seña emen lepon, mantoitxuges tapata auki, begiskones aukiko deu orrek seña" Umea tapatu barik, beno, umea norberagaz beharbada, hura dabil hor zera egiten eta neuk beharbada seina hemen lepoan, mantoitxoagaz tapatuta eduki, begizkoa edukiko du sein horrek)

paparra

sile: zila, tripa zila

titi: titia

tripe: tripa, sabela

BESOAK

atzamarra: atzamarra

"Enbra baten atzamarrak min eite otzue?" - (Andrazko baten atzamarrek min egiten dizute?)

atzasala: atzazala

besape: besapea

"Pratikante pere irigi deust niri besapetan, orrek golondrinok, bai" - (Pratikanteak

ere ireki dit niri besapetan, golondrino horiek, bai)

besarte: besarte

"Eron deude besarten" - (Eroan dute besartean)

beso: besoa

"Euki dot seña neure besotan" - (Eduki dut seina neure besoetan)

"Neuri, sera, sustues, se atxine, uden, aberatzakana, arrastin esne eron bersatasan, goxen erote yakon errasiño at, ta arrastin, eta, batek atzeti, atzerikera segidu yesten, kutxillo bateas, eta sustues emen urte yesten, operata dekot emen beso, sera, olan dekoas kortadak, eta, ospiteler a egunen egunen amak erote yesten kuraten, sartze yestesen metxak, ta atara ta porkerik urtete yesten, eta esa yotzen amari se, besok esteko ya kurerik eta ebai ein ber dako, ta amak esa yotzon es, neuk gixonari esan, permiso artu eta etorko gares bier atzera, eta etzera etor gintzen ta aitek esa yeun se, ebai beso es, ointxe no Laukiser a, ta Jose defuntu, seme euki yeun, e, asur pratikante, etor san, eta esa yesten es, au beso ebaiteko estau, sera, neuk ingo dotzeas oin jenerok esan, baye semeana erongo sue se, seme dales pratikante, semek esteuste, semeas esteuste ortan, karselara erongo leskide, se atzen dabilteas, baye es inori esan, t'ara yoten gintzesen, eta iminte yesten pañu, eta beso, kortada tekoas, e? se, kortadek ei yestesen berak, baye besoan faltarik estekot esan ber, eta ebaiteko ospitelen esayetzen" - (Neuri, zera, ikaragaz, ze antzina, udan, aberatsengana, arrastian esnea eroan behar izaten zen, goizean eroaten zitzaion errazio bat, eta arrastian, eta, batek atzetik, atzerikara segitu zidan, kutxilo bategaz, eta ikaragaz hemen irten zidan, ebakita daukat hemen besoa, zera, holan dauzkat ebakiak, eta, eritetxera egunean-egunean amak eroaten ninduen osaketak egiten, sartzen zizkidaten metxak, eta atera eta saskeleriak irteten zidan, eta esan zion amari ze, besoak ez dauka ja osaketarik eta ebaki egin behar zaio, eta amak esan zion ez, neuk gizonari esan, baimena hartu eta etorriko gara bihar atzera, eta etxera etorri ginen eta aitak esan zuen ze, ebaki besoa ez, oraintxe noa Laukizera, eta Jose

LEIOAKO HIZTEGIA

difuntua, semea eduki zuen, hezur praktikantea, etorri zen, eta esan zidan ez, beso hau ebakitzeko ez dago, zera, neuk egingo dizkiot orain gauzak esan, baina semeagana eroango duzue ze, semea denez praktikantea, semeak ez dit, semeagaz ez dute horretan, kartzelara eroango nindukete, ze atzean dabilzkit, baina ez inori esan, eta hara joaten ginen, eta ipintzen zidan ehuna, eta besoa, ebakiak dauzkat, e? ze, ebakiak egin zizkidan berak, baina besoa akatsik ez daukat esan behar, eta ebakitzeko eritetxean esan zioten)

eskerra: ezkerra

"Yon dire eskerreko aldeti" - (Joan dira ezkerreko aldetik)

eskoya: eskoia

"Oin egoten siren idik, e, bietara ibiltzen sirena pere bai, igual eskerrati sein eskoati" - (Orain egoten ziren idiak, bietara ibiltzen zirenak ere bai, berdin ezkerretik zein eskoitik)

esku: eskua

"Asko eukite nendun ademas eskuten ta" - (Asko edukitzen nuen gainera eskuetan eta)

eskuarte: eskuarte

esku barru: esku barrua, ahurra

"Pregunta yosu Karmeneri ia, garik yausi bayakos, ta esku barruten ta euki nendusin" - (Itaun eiezaiozu Karmeni ea, gariak jausi zaizkion, eta esku barruetan eta eduki nituen)

eskuturre: eskubiterra, eskuturra

"Edosin lekun! eskuturretan edo kaderatan" - (Edozein lekutan! eskuturretan edo oinetan)

sorbalde: sorbalda

"Balde at aurren ta beste bat atzen alan, sorbaldan, ta txixek eroteko be bai, solora, tankarro bat aurren ta tankarro bat atzen, geuk estu, neskak estu erabili, aitek" - (Balde bat aurrean eta beste bat atzean halan, sorbaldan, eta txizak eroateko ere bai, sorora, tankar bat aurrean eta tankar bat atzean, geuk ez dugu, neskek ez dugu erabili, aitek)

ukondo: ukondoa

"Ukondon, eskuturren, orkatilen, geyena orkatilen ixeten da" - (Ukondon, eskuturrean, orkatilean, gehiena orkatilean izaten da)

yunte

"En jeneral yuntetan ixeten da" - (Gehienetan yuntetan izaten da)

HANKAK

anke: hanka; pertsonena ez eze animaliena eta gauzena ere izan daiteke

beatza: behatza

belaune: belauna

"Belaunek selan dekosus? esa yeusten, au kadere aitu yesten ta belaunek ederto!" - (Belaunak zelan dauzkazu? esan zidan, mokor hau aditu zidan, eta belaunak ederto!)

berne: berna

isterra: izterra

kadere: 1. mokorra. 2. oina; animaliena eta gauzena ere izan daiteke

"Ni kadera bietati operata nau" - (Ni mokor bietatik aperatuta nago)

orkatile: orkatila

"Orkatile olan, pustute parate aten, eta yo nitzen ba, ni emen bixi nitzen Etze Txikerren, ta yo nitzen ara koxoka koxoka, bera bixi san lekure, ta i yeusten sanatenes, birriten i yeusten" - (Orkatila holan, puztuta paratzen zitzaidan, eta joan nintzen ba, ni hemen bizi nintzen Etze Txikerrean, eta joan nintzen hara herrenka-herrenka, bera bizi zen lekura, eta egin zidan zaintiratua, birritan egin zidan)

orpo: orpoa

saltu: saltua, jauzia

txanke: txanka, bernaren atzea

"Orrek txankok berotuko tzues" (Txanka horiek berotuko dizkizut)

uñe

"Ni bies ibilte nintzen, uñe bietan iminte bota" - (Ni bigaz ibiltzen nintzen, oina bietan ipinita bota)

ERRAINAK

asurre: hezurra

"Alandase asurretako mine txarra da" - (Halandaze hezurretako mina txarra da)

"Esayeutzen se estala asurreko" - (Esan zion ezen ez dela hezurreakoa)

LEIOAKO HIZTEGIA

bioskollare

"Ba ori esate yean dala, ba, bioskollaran bai, bioskollare yausite" - (Bai hori esaten zuten dela, ba bihozturian bai, bihozturia jausita)

biotza: bihotza

"Bera biotzeko ixen san biotzeko mediku" - (Bera bihotzekoa izan zen behitzeko medikua)

biskerrasurre, biskarrasurre: bizkar hezurra

este lodi: heste lodia

este: hestea

estomagu: urdaila

gargantxoya

gibela: gibela

ileko: hilekoa

kaka: kaka

kuntzurruna: guntzurruna, kuntzurruna

"Samako minerako ta kuntzurrunetako minerako be bai, sayeas" - (Samako minerako eta kuntzurrunetako minerako ere bai, zahiagaz)

odola: odola

"Oin odola kanbiata deku" - (Orain odola aldatuta daukagu)

puxike: puxika

sana: zaina

"Aina sanatenes baño gao ixete san, se ak, e, asurrek, bere lekuti atarata oten basiren se, sanatenes esta besterik, san bat okertuten dosu, baye ak, e, asurre, bere lekuti mogiduten basendun bere, jo! selan imini ite yen, aik eta asurre bere lekurarten, ta imiteyeun" - (Harena zaintiratua baino gehiago izaten zen, ze hark, hezurak, euren lekutik aterata egoten baziren ze, zaintiratua ez da besterik, zain bat okertzen duzu, baina hark, hezurra, bere lekutik mugitzen bazenuen ere, jo! zelan ipini egiten zuek, harik eta hezurra bere lekura arte, eta ipintzen zuen)

"Amomak irekatzi yesten, sanak egoten dire, eta ein kurse, eta sanak, e, ia selau bareata daun, alderdi betera, eta iru egunen ein sanatenes, eta pasate sien" - (Amamak irakatsi zidan, zainak egoten dira, eta egin gurutzeta, eta zainak, ea zelako baretuta dagoen, alderdi batera, eta hiru egunean egin zain tiratua, eta pasatzen ziren)

sayetza: saihetsa

txixe: txiza

AZALA

anditu: handitua

asala: azala

askordine: azkordina, bilgorraz igurtzita kentzen ei dira

"Belarri puntetan ta eskuten askordinek eta!" - (Belarria puntetan eta eskuetan azkordinak eta!)

begi txindorra: begi txindorra

"Ser dekosu? begitxindorra, nori ikus dotzesu eperdi?" - (Zer daukazu? begi txindorra, nori ikusi diozu ipurdia?)

"Sera esateudean atxine Iñaki, auki, e, giltze, bentanan, eta urrengo egunen era batera, era batera, es ontara, beti era batera pasa, eta kitate sala" - (Zera esaten zuten antzina Iñaki, eduki, giltza, leihoan, eta hurrengo egunean era batera, era batera, ez honetara, beti era batera pasatu, eta kentzen zela)

bultu

eride: zauria

"T'orreri kendu asaltxu, eta imite san eridetan" - (Eta horri kendu azaltxoa eta ipintzen zen zaurietan)

gari: garia, garatxa

"Garik kentzen es, badekoas nik, garik" - (Gariak kentzen ez, badauzkat nik, gariak)

"Bai atxine esate yean se, orrek garik kentzen direla, niri ori akordate yat eta kendu i yeustesesen, Sestauko, andra batek, onen, e, Boni defuntues krieda egon san baten amak, esayosten konta ber direla esato dausenak dustik, ta gero berak eite yeun bear bat seun trasa, ara mendire edo yonta eite yeun berak bear bat, sera, okeleas, ta a estait agas okeleas ser eingo yen ak, nik ori estot ikusi, baye arik sortzigarren egunen edo, geitute yesten berak, ta esara konturetuten aik eta berak pregunta arten, garik yausi bayatzus espayatzus" - (Bai antzina esaten zuten ze, gari horiek kentzen direla, niri hori gomutatzen zait eta kendu egin zizkidan, Sestaoko, andre batek, honen, Boni difuntuagaz neskame egon zen baten amak, esan zidan kontatu behar direla zehatz dagozenak guztiak, eta gero berak egiten zuen behar bat antza, hara

LEIOAKO HIZTEGIA

mendirira edo joanda egiten zuen berak behar bat, zera, okelagaz, eta hura ez dakit okela hagaz zer egingo zuen hark, nik hori ez dut ikusi, baina handik zortzigarren egunean edo, deitzen zidan berak, eta ez zara konturatzen harik eta berak itaundu arte, gariak jausi bazaizkizu ez bazaizkizu)

"Eta bein, e, domeka baten beoneas yon ara, ara bere etzera Sestaure, eta ordun ikusi yeustesen, garik, ta esayeusten berak, geitu eyostesu neuri ea senbe tekosusen, e, fiyo" - (Eta behin, domeka baten beronegaz joan hara, hara bere etxera Sestaora, eta orduan ikusi zizkidan, gariak, eta esan zidan berak, deitu iezadazu neuri ea zenbat daukazun, ziur)

"Oin be baikoas, an garik, emeti be bai, baye a il san ta oin dausela emen, garik neu il arten" - (Orain ere badauzkat, han gariak, hemendik ere bai, baina hura hil zen eta orain dagozela hemen, gariak neu hil arte)

garo, garau: garaua

"Ba, oin estau olau jenerorik, garok urtete yeden okotzetara umetxuri, ta gatza kuxi, eta eite yakon, esto, ya astute dekot" - (Ba, orain ez dago holako gauzarik, garauek irteten zuten okotzetara umetxoei, eta gatza hartu, eta egiten zitzaion, zera, ja ahaztuta daukat)

"Igual oin momentun a garau ixte letike ona baye gero a lusero an badau txarrera yo letike" (Beharbada orain mementuan garau hura izan liteke ona baina gero hura luzero han badago txarrera joan liteke)

gatxa: materia

"Arek kinpullek imini, ta ondo da, barruko gatxa atateko" (Kinpula haiek ipini, eta ondo da, barruko materia ateratzeko)

golondrino

ixerdi: izerdia

"Ume ixerditan dau" (Umea izerditan dago)

lunarra: orainena

marke: orbaina

peke: orezta

pustille: postila, orbaina

saldarra: zaldarra

"Anaje defuntuk, e, nik emen atzen eperdin urte yeusten askok, eta anaje defuntuk kentze yeustesen niri, ur beroas, botille batera etxau ur bero eta a ur bero botille imini saldarran, ak atarateun dusti" - (Anaia difuntuak, nik hemen atzean

ipurdian irten zidan askok, eta anaia difuntuak kentzen zizkidan niri, ur beroagaz, botila batera bota ur beroa eta ur bero botila hura ipini zaldarrean, hark ateratzen zuen guztia)

"Kenpulleas be, kenpulle imini txapan ganen bigundu, eta a imini orio aputxu beteas, imini a an saldarran ganen, ta aik eta errementa arten, ta gero a karga suabe suaben trapu garbitxu beteas" - (Kinpulagaz ere, kinpula ipini txaparen gainean bigundu, eta hura ipini olio apurtxu bategaz, ipini hura han zaldarraren gainean, eta harik eta errementa arte, eta gero hura karga suebe-suabeen trapu garbitxo bategaz)

"Baye saldarrak pasa seitusen bera pe ainbet" - (Baina zaldarrak pasatu zituen berak ere hainbat)

GURARIAK

askure: hazkura

egarri: egarria

"Egarri badekosu edan" (Egarria badaukazu edan)

gose: gosea

"Guk an es, guk txape euki gendules, talok eta orrek gausek eiten gendusin se guk ogirik eskendun eiten ordun" - (Guk han ez, guk txapa eduki genuenez, taloak eta gauza horiek egiten genituen ze guk ogirik ez genuen egiten orduan)

"Umek gose deko" (Umeak gosea dauka)

LOA

loa

lo: lo

"Amakatarik amabitarten lo on da" (Hamaiketarik hamabitarta lo egon da)

logure: logurea

"Logure dekot" (logurea daukat)

sieste

LEIOAKO HIZTEGIA

OSASUNA

Atal honetan osasunagaz erlazionatuko berbak aurkezten ditugu. Atala lau azpi-ataletan banatu dugu: gaixoak, sintomak, erremedioak eta kolpeak.

2.1. GAIXOAK

begiskones: begizkoa

"Ba setarako ixengo da? esate yen, atxine esate yen se, umek gaixotute sirenen ta seren ta, enei! begi txarran batek ein dotzo gatx oneri umeri, begiskones" - (Ba zertarako izango da? esaten zuten, antzina esaten zuten ze, umeak gaixotzen zirenean eta zerean eta, ene! begi txarren baten egin dio gaitz ume honi, begizkoa)

"Ak eiteun seraas, plomoas, eta soldadureas, eta orioas, eta eiteitusen, e, berak, e, bere nastek an, eta agas esateun begiskones kentzen dala" - (Hark egiten zuen zeragaz, berunagaz, eta soldaduragaz, eta olioagaz, eta egiten zituen, berak, bere nahasteak han, eta hagaz esaten zuen begizkoa kentzen dela)

begi txarra

biotzeko

elgorri: elgorria

erreume

gatxa

gaixo: gaixoa

gorra: gorreria, gorra

"Makine bat bieja in dot nik, beye artute emen ta, bein akordate nas ademas se, berak esate oskun, esateusten se bier etorri sortziretako, gorra ixen san, neu pe artu dot gor apur bet ya, neu be erdi inusentetute nau gorraas ya, eta, esateusten se, bier, apatxa bitarteko beyek eta esin sapaldu, ta emeti eta arañño ordun ba oñes, basterreti basterreti basterreti, oin gañe automobil esan ibilten ordun te, eta yote nitzen ta, gois baten yo nitzen ara, esa yosten beti satos berandu, bueno Doroteo, es ein saratarik niri, e! esate neuntzen, bier etorko nas goxetiao, yon urreko, agindu yosten berak yoteko, eta bera Felipe Baltzaas, e, basora laguntan ota kargetan, an ordu bete igual nik, eta hombre, asaoti esate yesten, hombre maja!

atxine etor sara? atxine etor nas suk esan sosten baño ordu erdi lenao, alandase nik apurtukotzut buru suri gaur" - (Makina bat bidaia egin dut nik, behia hartuta hemen eta, behin gomutatzen naiz gainera ze, berak esaten zigun, esaten zidan ze bihar etorri zortzietarako, gorra izan zen, neuk ere hartu dut gor apur bat ja, neu ere erdi inuzentetuta nago gorragaz ja, eta, esaten zidan ze, bihar, apatxa bitarteko behiak eta ezin zapaldu, eta hemendik eta haraino orduan ba oinez, bazterretik bazterretik bazterretik, orain gaina auto ez zen ibiltzen orduan eta, eta joaten nintzen eta, goiz baten joan nintzen hara, esan zidan beti zatoz berandu, beno Doroteo, ez egin zaratarik niri, e! esaten nion, bihar etorriko naiz goizetiago, joan hurrengo, agindu zidan berak joateko, eta bera Felipe Baltzagaz, basora laguntzen otea kargatzen, han ordu bete beharbada nik, eta hara, asagotik esaten zidan, hara maja! antzina etorri zara? antzina etorri naiz zuk esan zenidan baino ordu erdi lehenago, halandaze nik apurtuko dizut burua zuri gaur)

gripe: gripea

kantzerra

katarro: katarroa

"Orrek eta nik esteku, ogetabi ilebeten diferentzi deku guk, eta igual ibili olgetan edo seren ta bota igual, katarro eukite bota ta, selaseko gorgollo saskela bota dosu suk!" - (Horrek eta nik ez daukagu, hogeitabi hilabeteren desberdintasuna daukagu guk, eta beharbada ibili olgatzen edo zerean eta bota beharbada, katarro edukita bota eta, zelaseko gorro saskela bota duzu zuk!)

"Katarro asko egoten sanen igual, olan bulerra igual kuite, iminte yesen asunek, igual lapiko bat uregas, berotan berotan, eta arek asunek emote yesen gorputzeti, ta gero, a, uregas berotan tapa tapa inte parate san, asunek emon ta osten, oyan" (Katarro handia egoten zenean beharbada, holan bularra beharbada hartuta, ipintzen zituen asunak, beharbada lapiko bat uregaz, berotan-berotan, eta asun haiek ematen zituen gorputzetik, eta gero, uragaz berotan tapatu-tapatu eginda paratzen zen, asunak eman eta ostein, ohean)

LEIOAKO HIZTEGIA

kukurruku astule

"Kukurruku astule euki nendun" (Kukurruku eztula eduki nuen)

osasune: osasuna

"Ori txarra da osasunerako" - (Hori txarra da osasunerako)

paperak

"Bai gause bero, atxine, guk danok pasa dus paperak, oin esta entzuten olaorik, estait, oin beste usen bat aukiko deu igual" - (Bai gauza beroa, antzina, guk denok pasatu ditugu kokaldak, orain ez da entzuten holakorik, ez dakit, orain beste izen bat edukiko du beharbada)

pulmoni gaixo

"Bere arrebek, pulmoni gaixoas egon, eta etor san etzera, serak imiten, oin, e, bentosak, basukes imite yesan ordun, basukes, guate satitxu et bota, makine bat imin dotzet neu pe orreri, ta bota guate ara, bistute dala ara" - (Bere arrebak, pulmonia gaixoagaz egon, eta etorri zen etxera, zerak ipintzen, orain, bentosak, basuakaz ipintzen zituen orduan, basuakaz, guate zatitxo bat bota, makina bat ipini diot neuk ere horri, eta bota guate hara, biztuta dela hara)

2.2. SINTOMAK

antoju: antojua, nazka

astule: eztula

biosganeko

biotzerre: bihotzerrea

"Mansanille oin be bai, ori biotzerre edo baukosu, e, imini egostan ta, geutzat primerako" - (Kamamila orain ere bai, bihotzerre hori edo badaukazu, ipini egosten eta, geuretzat primerakoa)

biorkade: bihurkada

gorgollo

"Selaseko gorgollo bota dosu! saskela!" - (Zelaseko gorro bota duzu! saskela!)

indarra, inderra: indarra

"Su esara txarra ixen inderren" - (Zu ez zara txarra izan indarrean)

infesiño: zoldura

"Orrek gero barrun infesiño deko" - (Horrek gero barruan zoldura dauka)

kalenture: kalentura

"Beyek pentza lei kalenture dekola edo seoser dekola beyek" - (Behiak pentsa daiteke

kalentura daukala edo zer edo zer daukala behiak)

kalte: kaltea

larri: larria, larritasuna

mine: mina

"Min onik estau, es" - (Min onik ez dago, ez)

otzikere: hotzikara

tenple: tenplea, egokera, gorputzaldia

tenple ona

tenple txarra: gorputzaldi txarra

tentzino: tentsioa

2.3. ERREMEDIQAK

aginetako mine: haginetao mina, kentzeko honako hau egon da:

"Iguar atxine, nik asko pasa dot aginetati, bardingo ixo nasenen, baye, igual ama defuntek emoteusten se, artu ixe ederra koña aputxu bet agora ta, imixu, min dekosun aldera ta gero bota ixe, esateusten ta, olau, alau medikamentuk, binegreas ta, orrekas gausekas atxine, osten, e, edo gause bero imini a dolore kalmetako, baye osten aginetako minerako" - (Beharbada antzina, nik asko pasatu dut haginetao, berdingo izan naizenean, baina, beharbada ama difuntuak ematen zidan ze, har ezazu ederra koinak apurtxu bat ahora eta, ipin ezazu, min daukazun aldera eta gero bota ezazu, esaten zidan eta, holako, halako medikamenduak, ozpinagaz eta, gauza horiekaz antzina, ostean, edo gauza beroa ipini min hura baretzeko, baina ostean haginetao minerako)

belarriko mine: belarrietako mina

"Belarriko minerako orio tenpladu, eta bulerra espabere" - (Belarriko minerako olio epela, eta bularra ezpabere)

buruko mine

"San Juanera be bai yon san buruko minekaitik" (San Juanera ere bai joan zen buruko minengatik)

erremedio: erremedioa

"Ta ber bada, ba yausite apurtan badoas estot auko beste erremediorik, osten eno" - (Eta behar bada, ba jausita apurtzen baditut ez dut edukiko beste erremediorik, ostean ez noa)

fregasiño

LEIOAKO HIZTEGIA

"Fregasiño, asunekas, makine bat emon dosku guri amak, enei! kuiten gendun katarro, eta asunek gordeta eukite yen, asunekas lepo iminte yoskun! eta gero, alkola bota ta bu! suten iminte yoskun" - (Fregazioa, asunakaz, makina bat eman digu guri amak, enei! hartzen genuen katarroa, eta asunak gordeta edukitzen zituen, asunakaz lepoa ipintzen zigun! eta gero, alkohola bota eta bu! sutan ipintzen zigun)

gargare: gargara

"Gatza ta binegre, eta ur bero apur bet, agas, edo limoya be batzuten eiten gendun, limoyagas bere, gargarak eiteko" - (Gatza eta ozpina, eta ur bero apur bat, haregaz, edo limoia ere batzuetan egiten genuen, limoiagaz ere, gargarak egiteko)

grangañeles, grangallenes: grangainela, garrangilena

"Grangañeles, ori, e, emen badekosu infesiño, pustillekas edo seren, emen aspin urteten deu bultutxu betek, eta olan ukutu te dekosu grangañeles" - (Grangainela, hori, hemen badaukazu zoldunea, postilakaz edo zerean, hemen azpian irteten du handitxo batek, eta holan ikutu eta daukazu grangainela)

"Berak eite yotzusen, an, e, iordik eta serak, eta ser dekosu? te grangañeles, berak preguntate otzun ori, ser dekosu? te grangañeles, ta ser dekosu? te grangañeles olan, e, ba saneate san" - (Berak egiten zizkizun, han, igurtziak eta zerak, eta zer daukazu? eta grangainela, berak itauntzen zizun hori, zer daukazu? eta grangainela, eta zer daukazu? eta grangainela holan, ba osatzen zen)

"Grangallenes, ba garo batzuk urteten deude" - (Grangainela, ba garau batzuek irteten dute)

"Gari garauek eta an esate yen amarrik bederatzire, bederatzirik sortzire, sortzirik saspire, alan egote sien kontetan eta alan iyordi alan eta" - (Gari garauek eta han esaten zuen hamarretik bederatzira, bederatzitik zortzira, zortzitik zazpira, halan egoten ziren kontatzen eta halan igurtzi halan eta)

"Birik batera eta grangallenes kalera" - (Birik batera eta grangainela kalera) [hau

esaten zen amaieran, kotaduria hamarretik hasita amaitzen zenean]

"Es grangañeles neuk eite nendun" - (Ez grangainela neuk egiten nuen)

gripe: gripea kentzeko honako hau erabili da:
indisiño, indesiño

"Eta akordate nas, amabosgarren egunen koxu eun bronkomoni, ta eron Algortara, eta esa yoskuen se au indesiño emon dietzela, neure seran esayeun medikuk espabere esta bixiko eta bixiten bada ekarri domekan" - (Eta gomutatzen naiz, hamabosgarren egunean hartu zuen bronkoneumonia, eta eroan Algortara, eta esan ziguten ze injekzio hau eman diezaiotela, neure zeraren esan zuen medikuak ezpabere ez da biziko eta bizitzen bada ekarri domekan)

"Medikuana ta atxine, inos bai, yote sanen, e, bat, indisiñok emote yeresan" - (Medikuarengana eta antzina, inoiz bai, joaten zenean, bat, injekzioak ematen zituzten)

kure

lurrune: lurruna

paratinelesa, palatillenasa

"Urdallenes ta palatillenasa ta ori ite yeun Luisak" - (Urdailena eta palatilena eta hori egiten zuen Luisak)

"Ori in deuste niri, ori emen auson auki gendun guk, e, Luisa, Bustamanteneko, ite yen paratineles, paratineles eite yean, Sarreneko Kleta defunte pe bai, paratineles, iminten dotzue olan, estomaguko, seren, berak kordel bat, eta imite otzun, e, beretati, seure estomagure, ta gero olan eite yesan, megidu, eskukes eta, estait irugarrenen edo laugarrenen ak, e, eskuk megikeran, olan burren eiten baseitusen, esate yeun enei! selaseko paratinelesa dekosun!" - (Hori egindate niri, hori hemen auzoan eduki genuen guk, Luisa, Bustamantenekoa, egiten zuen palatilena, palatilena egiten zuten, Zarreneko Kleta difuntuak ere bai, palatilena, ipintzen dizute holan, urdaileko, zerean, berak kordel bat, eta ipintzen zizun, beretatik, zeure urdailera, eta gero holan egiten zituen, neurtu, eskuakaz eta, ez dakit hirugarrenean edo laugarrenean hark, eskuak neurtzean,

LEIOAKO HIZTEGIA

holan bihurreen egiten zituen, esaten zuen ene! zelaseko palatilena daukazun!)

samako mine: samako mina

"Samako mine kentzeko gargarak eiten siren, gargarak binegreas ta gatz apur beteas, ur beroas" - (Samako mina kentzeko gargarak egiten ziren, gargarak ozpinagaz eta gatz apur bategaz, ur beroagaz)

"Ori ba iminteuen trapu beten, bayeta, bayeta, e, trapu sera, bayeta moduko trapu beten, onek autzek kentzen diren trapu beten, imini an, ta dobla seretati, eta amak imin dosku guri edonos ori, txapan ganen berotute, samako minerako" - (Hori ba ipintzen zuen trapu baten, baileta, baileta, trapu zera, baileta moduko trapu baten, hauts haurk kentzen diren trapu baten, ipini han, eta tolestu zeretatik, eta amak ipini digu guri inoiz hori, txaparen gainean berotuta, samako minerako)

sanatenes zaintiratu; hau egikeran honako formularen bat esaten da:

"Sanatenes sana urrutu, sana bere lekuretu" - (Zaina etenez zaina urratu, zaina bere lekuratu)

"Sanatenes be ite yeun nire auek, bai eskondu te gero i yeusten niri sanatenesa ta" - (Zaintiratua ere egiten zuen nire amaginarrebak, bai ezkondu eta gero egin zidan niri zaintiratua eta)

"Eta gero, oin, e, igual biorkada bat eiten dosu kaderan, eta atxine sanatenes, ein dot sanatanetan! bueno!" - (Eta gero, orain, beharbada bihurkada bat egiten duzu oinean, eta antzina zaintiratua, egin dut zaintiratutan! beno!)

urdellanes, urdallenes, urdillanes

"Urdellanes, antzeko esta ori?" - (Urdailena, antzekoa ez da hori?)

"Urdallenes emen ixeten da, ta ei yeutzen ta giau esan yon medikuana osatu san" - (Urdailena hemen izaten da, eta egin zion eta gehiago ez zen joan medikuagana osatu zen)

2.4. KOLPEAK

betondoko

"Emongo tzut betondoko at e!" - (Emango dizut betondoko bat e!)

golpe: kolpea

"Bero ber da ta igual berorik es, ta golpe ta golpe ta golpe emon, a, bueno, ta solta bes, ta sarri askotan gero igual atzera, danak atzera batu ber, ta ortarango bearrak enei! ganorabako bearrak, senbest?" - (Beroa behar da eta beharbada berorik ez, eta kolpea eta kolpea eta kolpea eman, beno, eta soltatu ere ez, eta sarri askotan gero beharbada atzera, denak atzera batu behar, eta horietariko beharrak ene! ganorabako beharrak, zenbat?)

FAMILIARTEKOAK

Atal honetan familia eta familia hartuemonei dagozkien berbak biltzen ditugu. Berbak hobeto sailkatzeko, atal honen azpi-atalak familia bera, senideak, familia erlazioak eta adin erlazioak izango dira.

3.1. FAMILIA

aiste: ahizta, ahizpa

"Orren aiste residentzin dau" - (Horren ahizta erresidentzian dago)

aiteamak: gurasoak

aite: aita

"Guren aiteri te amari nok ori burun sartu" - (Gurean aitari eta amari nork hori buruan sartu)

"Neu pere etzen amaas ta aiteas esetu dot, ni inos enas egon baye neure etzen bai" - (Neuk ere etxean amagaz eta aitagaz ezagutu dut, ni inoiz ez naiz egon baina neure etxean bai)

aitite: aitaita

"Aititek eite yeun labasu an" - (Aitaitak egiten zuen labasua han)

"Aititek esan yeun se giau estau" - (Aitaitak esan zuen ze gehiago ez dago)

alabe: alaba

"Berau dau eskondute ain alabeas" - (Berau dago ezkonduta haren alabagaz)

"Nire alabe tekos berrogetabost urte" - (Nire alabak dauzka berrogeita bost urte)

ama: ama

"Nire aite ixen san Sarragatako, eta ama Udondoko" - (Nire aita izan zen Zarragetaoa, eta ama Udondokoa)

LEIOAKO HIZTEGIA

"Etzen, gu amar, amar gare, amar ixen gare bueno, ta amarrak etzen gure amak" - (Etxean, gu hamar, hamar gara, hamar izan gara beno, eta hamarrak etxean gure amak)

amoma, amuma: amama

"Aren ama, eta emeko amuma ba esen siren nebarrebak" - (Haren ama, eta hemengo amama ba izan ziren neba-arrebak)

anaje: anaia

"Orrek ekarri ditus ollok eta bere anajek il ditus" - (Horrek ekarri ditu oiloak eta bere anaiak hil ditu)

"Luisa neure tia, ain gizona ta nire aite anajek" - (Luisa neure izekoa, haren gizona eta nire aita anaiak)

"Ori etor da basoti eta orren anaje soloti" (Hori etorri da basotik eta horren anaia sorotik)

andra gixonak: andre-gizonak

andre: andrea, emaztea

"Ori urte askotan Erandioko bat ibilte dau olan andra txikitxu bet" - (Hori urte askotan Erandioko bat ibilita dago holan andre txikitxo bat)

"Ta andre nongo dekola esan dosu?" - (Eta andrea nongoa daukala esan duzu?)

"Etor da andra euskeldun bet" (Etorri da andre euskaldun bat)

arrebe: arreba

"Nik arreba bi dekoas, bat etzen dau, ori alargune lotute dau" - (Nik arreba bi dauzkat, bat etxean dago, hori alarguna lotuta dago)

"Ain arrebe bisten san Erandion" - (Haren arreba bizitzen zen Erandion)

famili, fameli: 1. familia, senideartekoak. 2. seme-alabak

"Gureri estait etor badake gure fameli, gure, danok, amarrok, medikurik egon bada, e? estot entzun inos" - (Gureei ez dakit etorri zaien gure familia, gurea, denok, hamarrok, medikurik egon de, e? ez dut entzun inoiz)

gizona: gizona, senarra

"Nire gizonak egun beten, koyu yen, entrebiste iteko, ordu, alkateas, berba iteko berorrek" - (Nire gizonak egun baten, hartu zuen, elkarriketa egiteko, ordua, alkateagaz, berba egiteko berorrek)

guresok, gurosok: gurasoak

"Gure gureson sasoyan bai, erroldan yoten siren" - (Gure gurasoen sasoyan bai, erroldan joaten ziren)

"Nik inos estot ein baye, gureso pai" - (Nik inoiz ez dut egin baina, gurasoek bai)

"Su pere guresori entzungo seuntzen, esta?" (Zuk ere gurasoei entzungo zenien, ezta?)

llobe, lobe: loba, iloba

"Niri bere aistuko lekit, e? onek llobak eiten deuste batzuten sokorru se, igual orreri erdera astenas ta amama selan eiten dosu ba?" - (Niri ere ahaztuko litzaidake, e? iloba hauek egiten didate batzuetan aldarri ze, beharbada horri erdaraz hasten natzaio eta amama zelan egiten duzu ba?)

nebarrebak, nebarrebak: neba-arrebak

"Gure aite ta nebarrebak biek, e, serera yonta on siren, aik eskapata" - (Gure aita eta neba-arreba biak, zerera joanda egon ziren, haiek ihes eginda)

nebe: neba

"Ba ori, ontxe egonas esaten neure neberi, atxine auki nendun nik, liburu bat auki nendun, emen, e, Leyoako, abadek, oin Areatan bixi da, ya sar in san, t'auki nendun liburu et, eskribidu yen, an Ameriketan, libruk ekarri yeun usena Jesus Basañes, eta an librun etor san Leyoako istori dusti, bai Leyoako, e? atxineko, a, atxine aukiten gendusen abadek, eta orrek istori dustik etor siren Iñaki, e, an liburun, da a liburu eronendun ona beko libreri betera neuk, se bateri itxi te besteri itxi legitako, eta ori onas esaten, an etor siren, gure aitite Benito, Kandidote Etze Txikerrako txomin bedarra solon yate yen aik, e" - (Ba hori, oraintxe egon naiz esaten neure nebari, antzina eduki nuen nik, liburu bat eduki nuen, jemen, Leioako, abadeak, orain Areatan bixi da, ja zahar egin zen, eta eduki nuen liburu bat, idatzi zuten, han Ameriketan, liburuak ekarri zuen izena Jesus Basañes, eta han liburuan etorri zen Leioako historia guztia, baina Leioakoa, e? antzinakoa, antzina edukitzen genituen abadeak, eta historia guzti horiek etorri ziren Iñaki, han liburuan, eta liburu hura eroan nuen hona beheko liburudenda batera neuk, ze bati utzi eta besteari utzi irakurtzeko, eta hori egon naiz esaten, han etorri ziren, gure aitaita Benito, Kandidote

LEIOAKO HIZTEGIA

*Etze Txikerrekoa txomin belarra soroan
jaten zuten haiek)*

niete

nieto

seme: semea

semealabak: seme-alabak

3.2. SENIDEAK

ixeko: izekoa

*"Ixeko ta Damaso ta yote sien gastañak
batzen araxe" - (Izekoa eta Damaso eta
joaten ziren gaztainak batzen haraxe)*

ixeko osabak: izeko-osabak

lengusine: lehengusina

lengusu karnala: lehengusua

lengusu: lehengusua

*"Lengusu etor bearren anaje etor san" -
(Lehengusua etorri beahrrean anaia etorri
zen)*

llobe: loba

osabaixekok: osaba-izekoak

osabe: osaba

*"Puñaladan nire lengusun anaje bat il yeun
onek, e, orren osaba batek il yeun" -
(Puñaladan nire lehengusuaren anaia bat
hil zuen honek, horren osaba batek hil
zuen)*

*"Gure ama ta yote siresen, ba, osabeana ta"
(Gure ama eta joaten ziren, osabarengana
eta)*

tia: izekoa

*"Guri tia bat, e, soratu i akiun onek sartu
sirenen" - (Guri izeko bat, zoratu egin
zitzaigun hauek sartu zirenean)*

tio: osaba

*"Tiori bere lutu erote yakean" - (Osabei ere
lutua eroaten zitzaien)*

*"Guk estu entzun osten idi bai, guk sarri euki
du guk eskoya ta gure tiok, osabe esan
berren guk tio beti, tiok eskerra eta
eskoya" (Guk ez dugu entzun ostean idia
bai, guk sarri eduki dugu guk eskoia eta
gure tiok, osaba esan beharrean guk tio
beti, tiok ezkerra eta eskoia)*

3.3. FAMILIA ERLAZIOAK

aitebitxi: aita bitxi

aitebitxi-amabitxik: aita bitxi-amabitxiak

amabitxi: amabitxi

aube, aue: amaginarreba

*"Guren, e, serak, nire aube difuntek yaki
ixeun ori kentzeko, begiskones kentzeko" -
(Gurean, zerak nire amaginarreba
difuntuak jakin izan zuen hori kentzeko,
begizkoa kentzeko)*

besotako: besoetakoa

giñarrabe: aitaginarreba

*"Nire giñarrabek, ba, barre ite yosten" - (Nire
aitaginarrebak, ba, barre egiten zidan)*

gixona: gizona, gizonetzkoa

koñate: koinata

*"Bilbora nire koñatak ibil siren" - (Bilbora
nire koinatak ibili ziren)*

koñatu: koinatua

*"Neure koñatu defuntu, solteruten etorte san
ta nire amomak indabak kastañakas, eta
gero eskondu sanen kastañak urten urten
urten" - (Neure koinatu difuntua,
ezkobakotan etortzen zen eta nire amamak
indabak gaztainakaz, eta gero
ezkonduzenean gaztainak urtean-urtean-
urtean)*

pariente: senidea

*"Bai, bai, bai geure pariente bat, gure, nire
aiten ixeko bat" - (Bai, bai, bai geure
arteko bat, gure, nire aitaren izeko bat)*

suñe, suiñe: suhina

*"Iños nire suñeri eron dotzo iños, e, ollo" -
(Inoiz nire suhinari eroan dio inoiz, oiloa)*

3.4. ADIN ERLAZIOAK

agure: agurea

angeru: ume txikia, lehen jaunartzea egin
artekoa

*"Angeru, nik ser dai pa, senbet urterarten
ixengo da ba? saspi sortzi urterarten
ixengo da angeru? edo gitxiao" -
(Aingerua, nik zer dakit ba, zenbat urtera
arte izango da ba? zazpi zortzi urtera arte
izango da aingerua? edo gutxiago)*

"Angeru bet il da" - (Aingeru bat hil da)

atzo: atsoa

bikotxak: bikoitzak, bikiak

enbre: andrazkoa

*"Esayosten orrek enbrek, ta orrek beorrek
aukiko deu igual ondino ori libru" - (Esan
zidan andre horrek, eta horrek berorrek*

LEIOAKO HIZTEGIA

edukiko du beharbada oraindino liburu hori)

"Ori estok eta badoken bardin antzen iten da enbreri nai mutileri" (Hori hiketan berdin antzean egiten da andrazkoari nahi mutilari)

gixona: gizona

irukotxak

morrosko: morroskoa, morroia

morroya: morroia, gizonezkoa

mutiko: mutikoa

mutil bardingoa

mutile: mutila

"Mutiletarik sarrena au da" - (Mutiletatik zaharrena hau da)

neska-mutilek: neska mutilak

neskatile: neskatila

"Igal amasortzi, amasei amasortzi, selau neskatile in dan ori, e!" (Beharbada hamazortzi, hamasei hamazortzi, zelako neskatile egin den hori, e!)

neskato: neskatoa

"Seu tekosu neskatotxu bi, ta ia bat botaten badostesu ona au gobernateko, ume gobernateko, eta etor nitzen Lamiakora amairu urteas" - (Zeuk daukazu neskatotxo bi, eta ea bat botatzen didazun hona hau gobernatzeko, umea gobernatzeko, eta etorri nintzen Lamiakora hamahiru urtegaz)

"Neskatori, etzeko neskatori beti, kasik kantate yakon beti" (Neskatoari, etzeko neskatoari beti, kasik kantatzen zitzaion beti)

neskato bardingoa

neske: neska

"Ori da neskarik lodiena baserriko" - (Hori da neskarik lodiena baserrikoa)

"Neska gaste yon da" (Neska gaztea joan da)

saspiki: zazpikia

señe: seina

"Ori da seņik gasteena etzen" - (Hori da seinik gazteena etxean)

"Len, e, txikerretan umek, e, ba asko, seoser otz edo otz apur bet kuisten baeuden ensegida, ser deko? ta paperakas dau seņe" - (Lehen, txikerretan umeek, ba asko zer edo zer hotz edo hotz apur bat hartzen bazuten behingoan, zer dauka? eta kokaldakaz dago seina)

sortziki: zortzikia

ume bardingoa: ume bardingoa

ume: umea

"Makine bat ume dau errin, sarri esaten dot nik, emen esaten deude batzuk ese, Leyoako erri estala ume askoko erri" - (Makina bat ume dago herrian, sarri esaten dut nik, hemen esaten dute batzuek ezen, Leioako herria ez dela ume askoko herria)

"Esta etorri umeri pe" - (Ez da etorri umerik ere)

4. ELIKADURA

Atal honetan giza elikaduraren gainean jasotako berbak biltzen ditugu. Berbok azpi-ataletan banatzea erraza ez den arren, azpi-atal batzuk egiten ahalegindu gara, irakurketa erraztekoan. Azpi-atalok, jatorduak, hastekoak, okela, txerrikia, arraina, arrautzak, ogia, esnea-gaztaia, gozokiak-postreak, eta edariak dira.

4.1. JATORDUAK

afari: afaria

"Bere arrebe takar afari" - (Bere arrebak dakar afaria)

amakatako: hamaiketakoa

armosu, armusu: armozua, gosaria

"Bedarrak ebaite siresenen bere, yote siren ba lagunek, eta ara, bedarrak ebaite sirenen, eroten gendun ba, armosu, makallo" (Belarrak ebakitzzen zirenean, joaten ziren ba lagunak, eta hara, belarrak ebakitzzen zirenean, eroaten genuen ba, armozua, makailoa)

beskari, baskari: bazkaria

"Imin dot beskari su txikerren" - (Ipini dut bazkaria su txikerrean)

meriende, merinde: askaria

"Ori ixete san meriende ogi sati beten ganen imini nate bota asukere ta yan" - (Hori izaten zen askaria ogi zati baten gainean ipini bitsa bota azukrea eta jan)

yanari: janaria

yateko: jatekoa

yatordu: jatordua

LEIOAKO HIZTEGIA

4.2. HASTEKOAK

arrosa: arrosa

"Lelau iten da arrosa" - (Lehenago egiten da arrosa)

"Arrosa egosite be bai nastateutzen" - (Arrosa egosita ere bai nahasten zion)

basi: saltsa, plateretan ogiz batzen dena

berdine: berdamina

"Orrek berdine deko" - (Horrek berdamina dauka)

berdure: berdura

binegre, binagre: ozpina

bitze: bitsa

"Egosite estau bitzik, egosite nate" - (Egosita ez dago bitsik, egosita kipurria)

"Ori bitze, bitze ganeti kentzen yako, e, egosten daola, asten danen egosten garbantzuri" - (Bits hori, bitsa gainetik kentzen zaio, egosten dagoela, hasten danean egosten garbantzuari)

ensalade: entsalada

"Ensalade bapes, ensalade, letxuge bai baye tomate es, letxuge ta kenpulle" - (Entsalada bat ere ez, entsalada, letxuga bai baina tomatea ez, letxuga eta kinpula)

fideo sope: fideo zopa

garbantzu, grabantzu: garbantzua

"Gure amak iteuen egurdateko salde, salde, garbantzuk sopeas ta gero, grabantzuk aseas" - (Gure amak egiten zuen eguedi arteko salda, salda, garbantzuak zopagaz eta gero, garbantzuak azagaz)

gatza: gatza

"Pernile iminteko gatzetan es enbrea!" - (Pernila ipintzeko gatzetan ez andrea!)

gatzure: gatz ura

gixedu: gisadua

goyena: oilo saldaren azaleko koipea

"Salde ite san bai bai, baye antoja ite nintzen, goyena esate otzen, sera, ollon salde dusti a goyena, a grasa dusti, eta a artu ber dala eukiteko titi te yan in ber dala asko ta loditu te loditu ite nintzen" - (Salda egiten zen bai bai, baina nazkatu egiten nintzen, goiena esaten zioten, zera, oiloaren salda guzti hura goiena, koipe hura guztia, eta hura hartu behar dela edukitzeko titia eta jan egin behar dela asko eta loditu eta loditu egiten nintzen)

koipe: koipea

"Eta gero sartze siren, pernile estekot akordun, baye txorixok oriotan eta

koipetan bere bai" (Eta gero sartzen ziren, pernila ez daukat gomutan, baina txorizoak oliotan eta koipetan ere bai)

lapikoko: lapikokoa

mingotza: mingotsa, berdamina

"Letxuge samur espadau orre pere mingotza deko" - (Letxuga samur ez badago horrek ere mingotsa dauka)

ollo salde: oilo salda

ondakine: hondakina, hondarra

ondugarri

"Urdu sati te txorixo ta morsille ta orrek ondugarri orre(k) deko, ori da ondugarri" - (Urdai zatia eta txorizoa eta buzkantza eta horiek ondugarri horrek dauka, hori da ondugarria)

orio: olio

"Bai erre sardine sarra ta yo, papel bateas yo ondo ondo kendu asala ta bota orio gordine ta yan, taloas eta esne bai" - (Bai erre sardina zaharra eta jo, paper bategaz jo ondo-ondo kendu azala eta bota olio gordina eta jan, taloagaz eta esnea bai)

orio asak, asa orio: olio azak

"Guren esan eiten se gurean esekiun gustaten, ba osten, e, ori ixeta san bai etzerik geyenetan eite san ori, orio asak" - (Gurean ez zen egiten ze gurean ez zitzaigun gustatzen, ba ostean, hori izaten zen bai etxerik gehienetan egiten zen hori, olio azak)

"Emen bixi sen batek, ak esate yeun se gabon egunen orio ase espaiko berantzako gabon estala" (Hemen bizi zen batek, hark esaten zuen ze gabon egunean olio aza ez badauka berarentzat gabon ez dela)

papille: drungulua

"Goso ixeta san ta, plateran imini te yate yeun goso papille balitike les asukera apur beteas ta esneas" - (Gozoa izaten zen eta, plateran ipini eta jaten zuten gozo ahia balitz legez azukre apur bategaz eta esneagaz)

piper gorri

pistola sope: pistola zopa

porrusalde: porru salda

salde: salda

saltza berde: saltsa berdea

saltza gorri, salsa gorri: saltsa gorria

saltze, salse: saltsa

sope: zopa

urdine: urdina

LEIOAKO HIZTEGIA

egiten genituen porru askogaz, eta kinpula askogaz, horregatik hiru-lau egun bakarrik irauten zituzten)

4.3. OKELA

gixena: gixena

kallu

okele: okela

"Ni okelasale, enas ixen atagiñoko, ba oin ukusi be estot gure in, nik okelarik estot proba be iten, gurao dot txitxarro konjeladu yan ori okele baño" - (Ni okelazalea, ez naiz izan hataginokoa, ba orain ikusi ere ez dut gura egin, nik okelarik ez dut probatu ere egiten, gurago dut txitxarro izoztua jan okela hori baino)

sesine: zezina

"Sesine bai, batzarretan, e, beye makal oten basan, sera, ermandadek kentze yen ta ilte yeuden ta iminte yesen trosok, eta troso, etzen be esetu dot, eron, e, ermandadetik ganadu, okele garbitu, in sesine, eta eskegi ete satik imini, eta ondo goso" - (Zezina bai, batzarretan, behia makal egoten bazen, zera, ermandadeak kentzen zuen eta hiltzen zuten eta ipintzen zituzten zatiak, eta zatia, etxean ere ezagutu dut, eroan, ermandadetik ganadua, okela garbitu, egin zezina, eta eskegi eta zatiak ipini, eta ondo gozoa)

4.4. TXERRIKIA

amase

beso

"Txikertu aurrekok, besok, txarrin besok, pernilek es, txarrin besok, baye gero beste iminte san, alan, ser bat ote san sulo bat alau gause, barrike bat baletike les ta an imini gatza" - (Txikertu aurrekoak, besoak, txerriaren besoak, pernilek ez, txerriaren besoak, baina gero bestea ipintzen zen, halan, zer bat egoten zen zulo bat halako gauza, barrika bat balitz legez eta han ipini gatza)

"Aurreko, a, besok txorixotako itxite siren" (Aurrekoa, besoak txorizoetarako uzten ziren)

buskentza

"Buskantzak eiten gendus en porru askoas, ta kinpulle askoas, orreitarririk iru lau egun bakarrik aguantate yesen" (Buzkantzak

gatzure

kondile

"Guk kondile esaten gendun askena lotze sana ya ea ori kondil ori" - (Guk kotxila esaten genuen azkena lotzen zena ja ea kotxil hori)

lope: lopea, buzkentzarik lodiena

"Lope, esterik andiena, ak esteko, estek sulo a paño" - (Lopea, hesterik handiena, hark dauka, hesteak zulo bat baino)

"Itzeleko loditze deko ak, lope geitze yetzen ari" (Itzeleko loditza dauka hark, lopea deitzen zioten hari)

morsille, morsile: buzkantza

"Gero morsillek a ausotara, otzaratxun imini asurretxuk, otzara bi, eta otzaratxuk politiek ote siren, ta oin estau olau otzararik, baye imini otzaratxun morsille eta iminte san porrejenplo onek fulanontzako, bestek bestentzako" (Gero buzkantzak hura auzoetara, otzaratxoan ipini hezurtxoak, otzara bi, eta otzaratxoak politak egoten ziren, eta orain ez dago holako otzararik, baina ipini otzaratxoan buzkantza eta ipintzen zen esate baterako hauek urliarentzat, besteak bestearentzat)

odoloste: odolostea, buzkantzik meheena

patak

"Gatza artzekon, ba se nik akordun dekot, e, koyu txarrin patak, ta serari, urdi, mai ganen imini te koyu aik patak, bota gatza, olau gatza lodi" (Gatza hartzekoan, ba ze nik gogoan daukat, hartu txarriaren hankak, eta zerari, urdaia, mahai gainean ipini eta hartu hanka haiek, bota gatza, holako gatz lodia)

pernile: pernila

"Orreri estau serik, ori tapa in ber da ondo imini gatza bean ta pernilek ganen, gatzan ganen" - (Horri ez dago zerik, hori tapatu egin behar da ondo ipini gatza behean eta pernilak gainean, gatzaren gainean)

"Pernile orti atarata gero siketuten sartze san gatzetan, selako es!" - (Pernila hortik aterata gero siketzen sartzen zen gatzetan, zelako ez!)

solomo: solomoa

txarri patak: txerri hankak; jateko direnak

txintxorte: txintxorta

LEIOAKO HIZTEGIA

"Txintxorta pe iten gendusen gero, bota sartan andi betera, sera, urdie, eta gero lotute san, txintxortan modun" (Txintxortak ere egiten genituen gero, bota zartagin handi batera, zera, urdaia, eta gero lotzen zen, txintxorten moduan)

txorixo: txorizoa

urdei, urdi: urdaia

"Pernile, imini gatza bean, pernile ber dan modun iminte, ya kendu urdei edo, eta gero pernile, ta gero gatza ostabe, tapa ondo, inketu ondo ta gatzas, t'eukite san denporadatu bet estait, igual sei ilebeten baño giau alan, ta gero atara ta kendu gatza ber dan modun, ta emon piper sikues eta, serak estitzon, e, eulik eta estein pika" - (Pernila, ipini gatza behean, pernila behar den moduan ipinita, ja kendu urdaia edo, eta gero pernila, eta gero gatza ostera ere, tapatu ondo, inkatu ondo eta gatzagaz, eta edukitzen zen denboralditxo bat ez dakit, beharbada sei hilabetean baino gehiago halan, eta gero atera eta kendu gatza behar den moduan, eta eman piper sikuagaz eta, zerak ez diezaion, euliak eta ez dezak pika)

4.5. ARRAINA

angile: angira

"Emen es, emen estau errekerarik emen angilek" - (Hemen ez, hemen ez dago errekarik hemen angirak)

angule

"Guren aite defunturi gustatekixon angulek" - (Gurean aita difuntuari gustatzen zitzaizkion angulak)

"Baye ak Butroire yonta koyu eusen urte biten, angulek" - (Baina hark Butroera joanda hartu zituen urte bitan, angulak)

antxoa: antxoba

arrañe

asurre

"Orrek atxine, etzen eite san makallo ori, asurre, erdiko asurre kendute a" - (Horiek antzina, etxean egiten zen makailo hori, hezurra, erdiko hezurra kenduta hura)

atune: atuna

besegu, besigu: bisigua

"Ta ekarte nendun ta alan besegu modun iminite yate yeun onek ganoso" - (Eta

ekartzen nuen eta halan besegu moduan ipinita jaten zuen honek gogotsu)

lebatza: legatza

makallo: makailoa

"Ori bai, bai, ixte letike ori bai, e, es yaten dun makallona" - (Hori bai, bai, izan liteke hori bai, ez jaten dugun makailoarena)

"Ori makallo be bai, makallo be baya, erreta, orio botata" - (Makailo hori ere bai, makailoa ere baina, erreta, olio botata)

makallo asurre: makailo hezurra

peske: arraina

"Indabak, indabak aseas nastata eta gero peske bere etorte san peske bitarten eta gero ba kafekoletxe postre ixete san, frute eote sanen ba frute ikok edo, ikok eta ya koxiten gendusen umek arbolatan" (Indabak, indabak azeagaz nahastuta eta gero arraina ere etortzen zen arraina bitartean eta gero ba kafesnea postrea izaten zen, fruta egoten zenean ba fruta ikoak edo, ikoak eta ja hartzen genituen umeek arbolatan)

sardine: sardina

sardine sarra: sardina zaharra

"Sardine sarrak, se gosok! gure amak, il san egunen bere" - (Sardina zaharrak, ze gozoak! gure amak, hil zen egunean ere)

txitxarro: txitxarroa

"Besegu baño giau gustate yakion txitxarro erreta, bota berakatzaas ta frijidute ta piper sikues ta satitxukes ta binagre apur bet bota ara ta yateun ta gustate yakion asko txitxarro laban erreta" - (Besegua baino gehiago gustatzen zitzaion txitxarroa erreta, bota berakatzaas eta prijitu eta piper sikuagaz eta zatitxoakaz eta ozpin apur bat bota hara eta jaten zuen eta gustatzen zitzaion asko txitxarroa labean erreta)

4.6. ARRAUTZAK

abi

abixeri: abisaria, galduko arrautza

arrutze, arrotze: arrautza

"Bai, bai, euki du batan bat guren, baye euron tarten yayo dienak, baye es ekarte baltza tielako, baye ikiten de arrutze, suri barik, gorri gorri barik beste kolore bat, ta polite ixeten da ain arrutze" - (Bai, bai,

LEIOAKO HIZTEGIA

eduki dugu baten bat gurean, baina euron tartean jaio direnak, baina ez ekarrita beltzak direlako, baina edukitzen dute arrautza, zuria barik, gorri-gorria barik beste kolore bat, eta polita izaten da haien arrautza)

"An ya nendun nik dosena erdi arrutze egunen" (Han jan nuen nik dozena erdi arrautza egunean)

arrutze abixeri

asala: arrautza azala

"Esteko seikusirik, e, se arrutzek asala eukitearrik, barrun espadau ondo yanta esteko barrun gorririk" - (Ez dauka zer ikusirik, ze arrautzak azala edukitzeagatik, barruan ez badago ondo janda ez dauka barruan gorririk)

"Onek arrutzek selau asala, mea dekon!" (Arrautza honek zelako azala, mehea daukan!)

asal mea: mintzezko arrautzea, azalbako arrautza

gorringo: gorringoa

kaskare

"Orreitarrik esaten de batzuten ta batzuten iten deres ollok, esaten dere se estotzela emoten denporarik kaskare ein dien arrutzeri" - (Horregatik esaten dute batzuetan eta batzuetan hil egiten dituzte oiloak, esaten dute ze ez diela ematen astirik azala egin dezaten arrautzei)

mintze: mintza

"Baye sarriten eon dire, eta abin ukutu be esineko arrutzeri se apurtu iten da kaskare, mintze" - (Baina sarritan egon dira, eta habian ikutu ere ez egineko arrautzari ze apurtu egiten da azala, mintza)

mintzedune: mintzezko arrautzea, azalbako arrautza

ollo arrutze

pato arrutze

suringo: zuringoa

tortille

"Nik oin estot edaten baye nik edan dot neu pe ardaua, neure denporan edan dot ardaua, eta es gauen es egurdirin goxen, tortille sati beteas edo, sardiñe sar bateas edo edosein gauseas, gaur egun dustin proba bes, bai goxen, alandase niri gusta yat baye ogotasei urte darot nik proba barik ya ardaurik" - (Nik orain ez dut edaten baina nik edan dut neuk ere

ardaua, neure denboran edan dut ardaua, eta ez gauean ez eguerdian goizean, tortilla zati bategaz edo, sardina zahar bategaz edo, sardina zahar bategaz edo edozein gauzagaz, gaur egun guztian probatu ere ez, bai goizean, halandaze niri gustatu zait baina hogeita sei urte daroat nik probatu barik ardaurik)

4.7. OGIA

amase

"Eiten dosu amase ta yo yo ber dan modun, me me metxun ta imini, ta asaltxu(k) baño esteu urtetan, ta aren barrun txokolate ontza bat iminten baosu a da goso, txokolate in dotzu, urtu iten tzu an taloan ta goso" - (Egiten duzu oreka eta jo jo behar den moduan, mehe mehe mehetxoan eta ipini, eta azaltxoak baino ez du irteten, eta haren barruan txokolate ontza bat ipintzen baduzu hura da gozoa, txokolatea egin dizu, urtu egiten dizu han taloan eta gozo)

arto: arto irinagaz egiten den ogia

"Goixen, kafekoletxe, artoas, arto eiteuen gure amak, eskolara yoteko" - (Goizean, kafesnea, artoagaz, arto egiten zuen gure amak, eskolara joateko)

"Arto, arto beti arto, guk arto euki du beti, guren esta on goserik, a, ostera gose beres, se ogin gose bai, baye artona es, se arto Butroirarten yon ta iyo arto ta ekarten gendun" - (Artoa, artoa beti artoa, guk artoa eduki dugu beti, gurean ez da egon goserik, ostera gosea ere ez, ze ogiaren gosea bai, baina artoarena ez, ze artoa Butroeraino joan eta eho artoa eta ekartzen genuen)

arto urune: arto irina

drungulu: drungulua

"Drungulu ureas einte, ureas ta gatzas einte, ori ite san eta imini trapu suri beten ganen, otzitu arte, eta gero aas esne berori alan sopak ein" - (Drungulua uregaz eginda, uregaz eta gatzagaz eginda, hori egiten zen eta ipini trapu zuri baten gainean, hoztu arte, eta gero hagaz esne beroari halan zopak egin)

"Drungulu igual, guren esta sekule yan eta drungulu ite yeuden ure egosten eta ari

LEIOAKO HIZTEGIA

botate yetzean urune" (Drungulua beharbada, gurea ez da sekula jan eta drungulua egiten zuten ura egosten eta hari botatzen zioten irina)

erritxi, ritxe: ogi mota bat

"Erritxi beteas goso meriendateko baye esan oten ataringorik" - (Erritxe bategaz gozoa askaria egiteko baina ez zen egoten haietarikorik)

gari urune: gari irina

ierra: igerra, irin igerra, labetik paseko irina

"Terra se badau pasata labati, ta a ixetan da gosoau berde baño, se berdek, garraspeotxu moduko eukiten deu" - (Igerra ze badago pasatuta labetik, eta hura izaten da gozoagoa berdea baino, ze berdeak, garraztxo modukoa edukitzen du)

kurrusku: kurruskua

lebadure

morokile: morokila

"Morokile esneas ta asukera apur bet botaten gintzen gosoau, eta a ixeta san gosoau" - (Morokila esneagaz eta azukre apur bat botatzen genion gozoago, eta hura izaten zen gozoagoa)

ogi baltza: ogi beltza, zahai eta guzti egiten den ogia

ogi siku: ogi sikua

ogi: ogia

"Ogirik esan eiten emeti, garies ogi esan eiten arto bai" - (Ogirik ez zen egiten hemendik, gariagaz ogia ez zen egiten artoa bai)

"Ogi be ixeten basan alan txikerra ta lodi te alan opilen antza deko orrek" - (Ogi bat izaten bazen halan txikerra eta lodia eta halan opilaren antza dauka horrek)

opile: opila

"Labati ondo einbako ori einikeran opile inikeran apurtu iten da" - (Labetik ondo eginbako hori egin egikeran opila egin egikeran apurtu egiten da)

"Ogi bere alan txiker bat, lodi bet, lodi bet opile, opile esaten yako" - (Ogia ere halan txiker bat, lodi bat, lodi bat opila, opila esaten zaio)

pistole: ogi mota bat, luzinga eta estua

"Pistole, ori ixete san ogi estu estu estutxu bet eta gogorra, ori ixete san sope iteko" - (Pistola, hori izaten zen ogia estu-estu-estutxu bat eta gogorra, hori izaten zen zopa egiteko)

talo: taloa

"Esne, ta taloas edo ogi, taloas beti kasik beti, eta batzuten sardine sarra erreta" - (Esnea, eta taloagaz edo ogia, taloagaz beti kasik beti, eta batzuetan sardina zaharra erreta)

"Talo baño fasillau iteko da" (Taloa baino errazago egiteko da)

talo urune

tostade

"Kanpoa martxo da gaur te tostadak ein ber dus" (Kanpora Martxo da gaur eta tostadak egin behar ditugu)

tremesa

"Tremesa da, ogin, gari txarra, asalaas ta, saye ta dana iten da, e, tremesak orrek ixete sien ogi, sera andik, ogi erredondok orrek andik, tremesak, tremes bat, esaten dun ordun bere bai, baye ixeten sien es, e, ogi suri espabere ogi baltza, edo ogi saye ta dana iten sana, ordun garie txarto yota edo oten san ta" - (Tremesa da, ogiaren, gari txarra, azalagaz eta, zahia eta dena egiten da, tremesak horiek izaten ziren ogi, zera handiak, ogi biribilak horiek handiak, tremesak, tremes bat, esaten genuen orduan ere bai, baina izaten ziren ez, ogi zuria ezpabere ogi beltza, edo ogia zahia eta dena egiten zena, orduan garia txarto jota edo egoten zen eta)

"Iru kiloko serak egote siren tremesa pai" (Hiru kiloko zerak egoten ziren tremesak bai)

urun berde: irin hezea, labetik pasatubako irina

urune: irina

"Ta arrosa bere bai, uruneri arrosa egosi te a bere bai" - (Eta arrosa ere bai, irinari arrosa egosi eta hura ere bai)

"Esne asko egote sanen esneas eta esne gitxi egote sanen seraas, ureas, ure irikiten parate sanen bota eta ondo ondo in eta ai se goso! gero esne bota katilutera bota, eta asukera apur beteas ta esneas, se goso! eta grasiak uruneri!" (Esne asko egoten zenean esneagaz eta esne gutxi egoten zenean zeragaz, uragaz, ura irakiten paratzen zenean bota eta ondo-ondo egin eta ai ze gozo! gero esnea bota katiluetara bota, eta azukre apur bategaz eta esneagaz, ze gozo! eta eskerrak irinari!)

urun ierra: irin igerra, labetik pasatuko irina da

LEIOAKO HIZTEGIA

urun suri: irin zuria, gari irina

"Baye urun suri baño nik usau ixeta neun arrosa, esku bete arros egosi ondo ta bota"
- (Baina iri zuria baino nik erabili izaten nuen arrosa, esku bete arroz egosi ondo eta bota)

4.8. ESNEA-GAZTA

esne bitze: esne bitsa

esne nate: esne kipurra, esne bitsa

esne: esnea

"Ara esne saltzen yoten gintzesen" - (Hara esnea saltzen joaten ginen)

gastai ure: gastai ura, gastaiak egikeran galtzen duen ura

gastaya, gastai: gazta, gaztaia

"Emon doskue gastai aputxu bet bakoxtari" - (Eman digute gastai apur bat bakoitzari)

"Gastaya in du geuk" - (Gaztaia egin dugu guk)

"Gastai apur bet emon doskue" (Gastai apur bat eman digute)

learra: legarra

nate: kipurra, bitsa

4.9. GOZOKIAK-POSTREAK

arroskoletxe: arrosesnea

"Gero asa oriok, beti beti iminten gendun, ta gero txarrik gausek, ta gero akabun arroskoletxe" (Gero olio azak, beti beti ipintzen genuen, eta gero txerriaren gauzak, eta gero azkenean arrosesnea)

asukere: azukre

"Oin nik estait, nik ori itenendun, e, melokotoyak eta, okaranak eta iteko, e, asukereas ta ureas ta egosi eta" - (Orain nik ez dakit, nik hori egiten nuen, milikotak eta, okaranak eta egiteko, azukreagaz eta uragaz eta egosi eta)

"Gastaña pai, gastañak beko Jilek asukereas yaten situsen" - (Gaztainak bai, gaztainak beheko Gilek azukreagaz jaten zituen)

esne sopak: esne zopak

esti: eztia

gallete

gastaña lapikoko

"Gastaña lapikoko, ba indabak, imini egosten indabak eta bota iru bider ure ba, otza,

aputxu bet iminite, ta irugarren botaten sendunen ure, gastañak euki prest, ya erreta, asala kendu, ta garbitu, an seoser sandarra edo eukiteyeun eta, irugarrenes irikiten gastañak bota a, ta gero egoste dausela kasik, ein kenpulleas ta orioas ta frijidu, refrito bat esaten gintzen ta ein frijidu, ta bota ta giaurik eseberes, gatzta apur bet se eurok ixeten dire, dultze ixete san gastañaas, baya gastaña es bat es bies, espabe igual, e, nik iru kilo gastaña be erre doas amuma biste sanen, akordaten sara? gastaña lapikoko, iru kilo gastaña be erre doas ta imini indabakas, ta danontzako!" - (Gaztaina lapikokoa, ba indabak, ipini egosten indabak eta bota hiru bider ura ba, hotza, apurtxo bat ipinita, eta hirugarren botatzen zenuenean ura, gaztainak eduki prest, ja erreta, azala kendu, eta garbitu, han zer edo zer zantarra edo edukitzen zuen eta, hirugarrenez irakiten gaztainak bota hura, eta gero egosita dagozela kasik, egin kinpulgaz eta olioagaz eta prijitu, berprijitu bat esaten genion eta egin prijitu, eta bota eta gehiagorik ezer ere ez, gatzta apur bat ze eurok izaten zira, ezta izaten zen gaztainagaz, baina gaztaina ez bat ez bigaz, ezpabere beharbada, nik hiru kilo gaztaina ere erre ditut amoma bizitzen zenean, gomutatzen zara? gaztaina lapikokoa, hiru kilo gaztaina ere erre ditut eta ipini indabakaz, eta denontzako!)

ikopase: iko pasa

iko siku

intxur saltze: intxaur saltsa

"Es, es, intxur saltze esan ixen ardauas es" - (Ez, ez, intxaur saltsa ez zen izan ardauagaz ez)

karamelo: karameloa

konfite

konpote: konpota

"Konpote ite san guren, konpote" (Konpota egiten zen gurean, konpota)

maspase: mahats pasa

okeranpase: okaran pasa

pastela

postre: postrea

sagar erre

sopak: esne zopak, talo zopak

LEIOAKO HIZTEGIA

"Lurreko katiluk, yaten gendus an sopak"
(Lurrezko katiluak, jaten genituen han zopak)

"Imini olan serbilleta baten ganen eta gero agas drungulues sopak esneri" (Ipini holan serbiletta baten ganean eta gero drungulu hazaz zopak esnari)

turroya

"Nire denporan turroya ote san" (Nire sasoiaren turroia egoten zen)

tostade: tostada

txokolate: txokolatea

"Al deune pai txokolate eta batzuk, modutxu eukite yeudenak yate yeuden txokolate ritxeas, ba guk, a, egun betzuten ogi bakarrik" (Ahal duenak bai txokolate eta batzuek, modutxoa eduki zutenek jaten zuten txokolatea erritxeagaz, ba guk, egun batzuetan ogia bakarrik)

4.10. EDARIAK

ardau: ardaua

"A moskorti ixen san, perdidu, ardau baño moskortiau ixen san gixajo" - (Hura mozkortia izan zen, galdua, ardaua baino mozkotiagoa izan zen gixajoa)

"Gabon egunerako, sera, sagarrak, e, ardauas, ta asukereas einte" - (Gabon egunerako, zera, sagarrak, ardauagaz, eta azukreagaz eginda)

edari: edaria

kafe: kafea

"Kafe, estot neuk estot ein etzen se guren kafe gitxi artu da" - (Kafea, ez dut neuk ez dut egin etxean ze gurean kafe gutxi hartu da)

"Esaten deue se asko obe urteten deuela kafek" (Esaten dute ze asko hobea irteten duela kafeak)

kafekoletxe

"Atxine bakixu ser, etorten sintzen eskolati, indabak, kafekoletxe, edo esne sopakas" (Antzina badakizu zer, etortzen zinen eskolatik, indabak, kafesnea, edo esnea zopakaz)

koñaka, koña: koinaka

kope: kopa

pitipine: pitipina, mahats hondarrakaz egiten den edaria

"Eta gero matzan, e, lotze sana, bota barrike batera, bota, urekas betatu te gero

pitipine" - (Eta gero mahatsaren, lotzen zena, bota barrika batera, bota, urakaz bete eta gero pitipina)

txirkori

"Ori kafe lapikon eite sanen, e, an surten, bekosurten ta alan sartzen dela, nik estot ein olaurik estot ein, se gusta bes asko kafe, eta gustaten badaku be niri estat gusta es txikoririk botate kaferi, kafe kafe bada ta espabere bapes" - (Kafe hori lapikoan egiten zenean, han surtan, beheko surtan eta halan sartzen dela, nik ez dut egin holakorik ez dut egin, ze gustatu ere ez asko kafea, eta gustatzen bazaigu ere niri ez zait gustatu ez txikoriarik botatzea kafeari, kafea kafea bada eta ezpabere bat ere ez)

ure: ura

"Gero arrutze bat iminteuden uretan" - (Gero arrautza bat ipintzen zuten uretan)

4.11. TXAKOLINA

barrike: barrika, upela

metxe: metxa

"Gure txakolinek inor eyen moskortan eta an auson batek eite yen metxeas, eta danak moskorta sien" - (Gure txakolinak inor ez zuen mozkortzen eta han auzoan batek egiten zuen metxagaz, eta denak mozkortzen ziren)

morde: morda

moskorra: mozkorra

mosto: muztioa

"Txakoline ite yen, ya astute dekot, txakoline tinekuten imini, ta aplasta ondo, eta mosto sertu, imini, ak emote yena, sertu, pasa eta imini barriketan, eta ite san txakoline, bai metxa barik, e?" - (Txakolina egiten zuen, ja ahaztuta daukat, txakolina tinakotan ipini, eta zapartu ondo, eta mostoa zertu, ipini, hark ematen zuena, zertu, pasatu eta ipini barriketan, eta egiten zen txakolina, baina metxa barik, e?)

parre: parra

txakoline: txakolina

"Barrio dusti junta ta orra yon ta orra etzealdera, ta or iten san txakoline" - (Auzune osoa elkartu eta horra joan eta horra baserrira, eta hor egiten zen txakolina)

LEIOAKO HIZTEGIA

eurenak umeenak, eta han ere batu, eta gero paxa bat bueltaka-bueltaka-bueltaka, batzuetan umea estututa lar)

5. JANTZIAK

Jantzieraren gaineko berbak banatzeko egin ditugun azpi-atalak arropak, oinetakoak, osagarriak, apaingarriak eta, azkenik, joskigintza beharrari dagokiona izango dira.

5.1. ARROPAK

arkondare, alkondare: alkondara

"Erosi dot alkondara sabala" (erosi dut alkondara zabala)

baske: jaka

bluse

bruse: brusa, hau lehen nagusiek jantzen zutena da

errope: arropa

"Ordun erre kara yon ber ixete san, balde artu burun te erre kara garbitan erropak" - (Orduan erre kara joan behar izaten zen, baldea hartu buruan eta erre kara garbitzen arropak)

"Bakixu ser eingosun esa yesten koyu erropak eta erdu ta lotu sites emen, esaite yon ta etzera ibili, t'amentxe eongo sara geues" - (Badakizu zer egingo duzun esan zidan hartu arropak eta erdu eta lotu zaitetz hemen, ez zaitetz joan eta etxera ibili, eta hamentxe eongo zara geugaz)

frake: praka

gone: gona

gorantza: gonantza, gorantza

kaltzerdi, kaltzetine: galtzerdia

kamisoya

korse

mantarra

mante: ume txikerrak estaltzeko erabiltzen zen mantarra

"Lelau suri bet, pañala esate otzena oin, ixera txikitxu beten modun, an batu, bueltaka bueltaka, e? gero, gero mantatxu bet, eurenak umenak, ta an bere batu, ta gero paxa bat bueltaka bueltaka bueltaka, batzuten ume estutu lar" - (Lehenago zuri bat, oihala esaten diotena orain, izara txikitxo baten moduan, han batu, bueltaka-bueltaka, e? gero, gero mantatxo bat,

mantille

mantoya

oyala: oihala

"Bai itzela kanbio, orrek oyalak esaten tzen paxe, pañelutxu emeko kurtzetan iminte, alan, e, buru estien, e, batera bestera bota" - (Bai itzela aldaketa, oihal horiek esaten zieten paxa, zapitxia hemengoa gurutzean ipinita, halan, burua ez dezan, batera bestera bota)

pañala: oihala

paxe: paixa

"Paxan iminte aken eskapulariotxu bet" - (Paxan ipintzen zitzaien kutuntxo bat)

txakete

txapela: txapela

txapine: txapina, artilezko galtzerdia eta baita umeen galtzerdi txikerrei ere esaten zaie

yake: jaka

5.2. OINETAKOAK

abarke: abarka

abarkete: abarketa

borsegi: bortzegia

bote

kordela: kordela, lokarria

"Atxine ote san kordel bat" - (Antzina egoten zen kordel bat)

kordoya: kordoa

oñetakok: oinetakoak

sapate: zapata

"A estait espasan sapatak garbitako" (Hura ez dakit ez zen zapatak garbitzeko)

sinte: zinta, abarketak lotzeko erabiltzen direnak

txispegi: txarri zila, lustretzat oinetakoei ematen zitzaien txarri koipea

5.3. OSAGARRIAK

adarra: moino adarra

amentalala: amantala

"Amentala astegunerako eta domekatarako lanasko ta, bai, gure amak euki yeun ori" (Amantala astegunerako eta domeketarako

LEIOAKO HIZTEGIA

artilezkoa eta, bai gure amak eduki zuen hori)

boltze: 1. poltsa. 2. poltsikoa

boltzillo: poltsikoa

bufande

"Amak, e, kanpora urtetan be esoskun itxiten ta bufande, bufande iminte oskun olan, amarrata, buruti, bufanda bat iminte oskun amarrata" - (Amak, kanpora irteten ere ez zigun uzten eta bufanda, bufanda ipintzen zigun holan, lotuta, burutik, bufanda bat ipintzen zigun lotuta)

buruko pañelu: buruko zapia

fartikere: patrika

"Andra bat egon san makal, pariente gure gixonan pariente bat, txarto egon san ya ilteko ta, alaba bat etorri yakon ensegida, se, ilten daule ba, ama ilten ta, allega san amari bakixu ser esayetzen, ama! non dosu fartikere?" (Andre bat egon zen makal, artekoa gure gizonaren arteko bat, txarto egon zen ja hiltzeko eta, alaba bat etorri zitzaion behingoan, ze, hiltzen dagoela ba, ama hiltzen eta, ailegatu zen amari badakizu zer esan zion, ama! non duzu patrika?)

garriko: gerrikoa

guante

guardasola: guardasola, aterkia

"Eron guardasola se pentza lei euri ingo deule" (Eroa guardasola ze pentsa liteke euria egingo duela)

katxabe: makulua

pañelu: zapia

"Udondoko andrak, gure aman edadekok danak aukiteuden pañelu" - (Udondoko andreek, gure amaren edadekoek denek edukitzen zuten zapia)

"Gure amak ederto iminte yen pañelu" (Gure amak ederto ipintzen zuen zapia)

sonbreru

"Es, mese paga iten gendun, sera, bost ogerleko edo, ogerleko bat edo, bakoitxak al diena, noperan usenaas, ta an iminte yeuden, noperan usenaas" - (Ez, meza ordaindu egiten genuen, zera, bost ogerleko edo, ogerleko bat edo, bakoitzak ahal duena, norberaren izenagaz, eta han ipintzen zuten, norberaren izenagaz)

tokille: tokila

5.4. APAINGARRIAK

adornu: apaingarria

bordadu

"An egote san, eskinetxuten, traputxu, eskegite, bordadukes ta" (Han egoten zen, hegaltxoetan, traputxo eskegita, bordatuakaz eta)

lasu: bizdea, begizta

puntille

urre

"Urre ixengo baletike les" (Urrea izango balitz legez)

urregorri: urregorria, urrea

urresuri: urrezuria, zilarra

5.5. JOSKIGINTZA

algodoya

artesik: artaziak

burukortza: buruko orratza

"Amoma defuntek gurekok kentze yeutzen, sera, burukortza bateas, burukortza bateas kentzen, ser deko amoma ba? mii aspin yekok, miaspiko deko" - (Amoma zenak gurekoak kentzen zien, zera, buruko orratz bategaz, buruko orratz bategaz kentzen, zer dauka amama ba? mihi azpian zaukak, mihiazpikoa dauka)

estena

firu: firua, haria

"Firutxu bet ixeten da, baye estotzo itxiten mieri, ber dan modun ibilten batera bestera, ta ak kentze yeutzen" - (Firutxu bat izaten da, baina ez dio uzten mihiari, behar den moduan ibiltzen batera bestera, eta hark kentzen zien)

ilobale: firu bala, hari bala

lane: artilea

orrostoki: orraztokia

orrotza

"Koltxoyak eiteko orrotza bai, neu pe estait igual eukikot, eskineren baten igual, olan doblaten da amarre" (Koltxoia egiteko orratza bai, neuk ere ez dakit beharbada edukiko dut, okoluren baten beharbada, holan tolesten da amarra)

pañu: oihala, ehuna

perkala

"One tekon modun baye perkalesko" (Honek daukan moduan baina perkalezkoa)

LEIOAKO HIZTEGIA

punto

tele: tela, ehuna

terlise

yosteko makine: josteko makina

"Yosteko makine apurtu da" (Josteko makina apurtu da)

6. BIZILEKUA

Bizilekuari emango diogun atal honetan etxearen inguruan batu ditugun berbak aurkeztuko dira. Azpi-atalak etxea egiteko materialak, etxearen egitura, etxearen banaketa, atea-leihoak-eskailera, sua, argia, ura, sueteko tresnak, ontziteria, altzariak, etxeko arropak, bogada eta garbikuzia dira.

6.1. ETXEA EGITEKO MATERIALAK

burnei, burni: burdina

kare bixi: kare bizia

kare: karea

kristela: kristala

"Yausi da bentanako kristela

ladrillo, ladrillu: adreilua

"Baye nire aitek eiteyeun ladrillu et o, ladrillu et, saku sar bateas, saku sar bateas amarrata botate yeun ak, ladrillue tximineti, se sarriten txapek eite yeun, e, ta beti keas beti keas etzen, eta, niri ori beti gusta yat" - (Baina nire aitak egiten zuen adreilu bat edo, adreilu bat, zaku zahar bategaz, zaku zahar bategaz lotuta botatzen zuen hark, adrilua tximineatik, ze sarritan txapak egiten zuen, eta beti keagaz beti keagaz etxean, eta, niri hori beti gustatu zait)

ormigoya

6.2. ETXEAREN EGITURA

basterra: bazterra

bea: behea, zola

eskine: eskina, kantoia, hegala

eskutu: ezkutunea, gordelekua

etxeurre: etxaurrea

"Estait aor etzeurren espadau ondino" - (Ez dakit haor etxe-urrean ez dagoen ondino)

etze: etxea

"Artasa da or ikusten dana, ori, orrek etzek, oin dusti da barri, baye or oten siren, e, etze bi" - (Artaza da hor ikusten dena, hori, etxe horiek, hori guztia da berria, baina hor egoten ziren, etxe bi)

"Baye ori bere len biste san lekuti, a etze bota yen ta beste leku betera traslada da ta, estaipa" - (Baina hori ere lehen bizitzen zen lekutik, etxe hura bota zuten beste leku batera aldatu da eta, ez dakit ba)

etzeondo: etxeondua

gallurre: gailurra

goye: goia, sabaia

ola: ohola

"Olan antzeko baye gure ixen san ola sarratute dana" (Holan antzekoa baina gurea izan zen ohola zarratuta dena)

orme: horma

"In deue ladrillosko orma bat" (Egin dute adreiluzko horma bat)

poste: postea, zutabea

"Posten, portale ote san poste bateas, an posten lorak, erramu eta jenerok adornata, san juan egunerako" - (Postean, ataria egoten zen poste bategaz, han postean loreak, erramua eta gauzak apainduta, San Juan egunerako)

tellatu: teilatua

telle: teila

"Gero ganeti ure bota, ta tellan puntakas arraska iten geuntzen" (Gero gainetik ura bota, eta teilen puntakaz karrankatu egiten genion)

6.3. ETXEAREN BANAKETA

kamare: kamara, ganbara

"Oin bere erramu, urten urten bedeinketuten da, eta gero erramue eroten du etzera eta siketu, kamaran oten da, gur dan lekun, eta gero, aste santureko eron, eta autze iteko erre iten deude" - (Orain ere erramua, urtean-urtean bedeinkatzen da, eta gero erramua eroaten dugu etxera eta sikatu, kamaran egoten da, gura den lekuan, eta gero, aste santurako eroan, eta hautsa egiteko erre egiten dute)

karraju: karrajua

LEIOAKO HIZTEGIA

"Emeti karrajuti urtete yen beyek kanpora" -
(Hemendik karrajutik irteten zuten behiek
kanpora)

komune

kuartu: gela

lastategi: lastategia

"Bedarra be igual, ba kamare betatu, osea
lastategi, ordun lastategi esate san, beyen
ganen, ta lastategin esanen kapiduten
geyao, kanpon eite sendun mete" -
(Belarra ere beharbada, ba kamara bete,
hau da lastategia, orduan lastategia esaten
zen, behien gainean, eta lastategian ez
zenean sartzen gehiago, kanpoan egiten
zenuen meta)

portala, portale: ataria

"Portalen imini arrik olan, e, filan, ta gero
imini an, e, gurdin erruedak badakixu?
gurdiak? imini aik erruedak an portalen,
kasureko bi, emen bi kabita sien eta gero
in, e, txolak, txola txikerrak ta gero ta ai(k)
txolak yo ta yo ta yo gixonak" - (Atarian
ipini harriak holan, ilaran, eta gero ipini
han, gurdiaren txirrinkak badakizu?
gurdiarenak? ipini txirrinka haiek han
atarian, kasurako bi, hemen bi sartzen
ziren eta gero egin, txolak, txola txikerrak
eta gero eta txola haiek jo eta jo eta jo
gizonek)

"Gari, portaletan yote san, iminte yeden,
selan geituten da ba?" (Garia, atarian
jotzen zen, ipintzen zuten, zelan deitzen da
ba?)

sute, suete: suetea, sukaldea

"Suetek dekos iru metroko lusere" - (Suetek
dauzka hiru metroko luzera)

tejabane: tejabana

"Tejabanatxu et on san t'an on san, e, laba
bat, ta ite yen labasu aiteitak, ta gero
akabaun, esaten gintzen ba itxiteko
piperrak erretako, ta eukiten gendun
sestokade piperra igual, ta erretan gendun
an prasan, ta gero aas ekarte siren, e,
kanporantza" - (Tejabanatxo bat egon zen
eta han egon zen, labe bat, eta egiten zuen
labasua aitaitak, eta gero azkenean, esaten
genion ba uzteko piperrak erretzeko, eta
edukitzen genuen zarankada piperra
beharbada, eta erretzen genuen han
txingarretan, eta gero hazag ekartzen
ziren, kanporantz)

txixe poso: txiza-putzua

"Txixe poso bai gortan, gortan txixe poso" -
(Txiza-putzua bai kortan, kortan txiza-
putzua)

6.4. ATEA-LEIHOAK-ESKAILERA

ate: atea

"Gaur goxen etor nasenen ate ixite on da" -
(Gaur goizean etorri naizenean atea itxita
egon da)

balkoya

bentane: leihoa

"Bentane ixi ber da se otza iten deu" (Leihoa
ixi behar da ze hotza egiten du)

eskillere

giltze: giltza

"San Pedrok, e, an seren, aukite yesan
tamañukok, selaseko giltzek! selaseko
giltzek euki dus etzetan ba!" - (San Pedrok,
han zerean, edukitzen zituen tamainakoak,
zelaseko giltzak! zelaseko giltzak eduki
ditugu etxeetan ba!)

kisketa: kisketa

"Ateko kiskete apurtu da" (Ateko kisketa
apurtu da)

"Kiskete esate san osten manilleri manille"
(Kisketa esaten zen ostean maratilar
maratila)

manille: maratila

"Ateko manille apurtu da" (Ateko maratila
apurtu da)

txaramela

"Olatxukes ein te imini an ta txaramela"
(Oholtxoakaz egin eta ipini han eta
txaramela)

6.5. SUA

auspo: hauspoa

"Auspo sue bistuteko auspo, an dekot nik,
txabolan dekot nik auspo bat" - (Hauspoa
sua bizteko hauspoa, han daukat nik,
txabolan daukat nik hauspo bat)

autze: hautsa, errautsa

barsune: bartzuna, errautsa kentzeko
erabiltzen den burdinazko tresna

"Barsune da serak mogitako, jenerok
mogitako, prase ta egurrek mogitako" -
(Bartzuna da zerak mugitzeko, gauzak

LEIOAKO HIZTEGIA

mugitzeko, txingarra eta egurrak mugitzeko)

beko sue, bekos sube, beko surte: beheko sua

"Txape euki gendun guk, lelau bekosurte bai gero txape, ta an txapen ganen erretan gendusena" - (Txapa eduki genuen guk, lehenago beheko-surtea bai gero txapa, eta han txaparen gainean erretzen genituen)

danboline: danbolina, gaztainak erretzeko erabiltzen zen

"Kastaña erretan yoten sirenak kanpoti, kalen, baye guk es etzen estu ños danbolinik usa" - (Gaztaina erretzen joaten zirenak kanpotik, kalean, baina guk ez etxean ez dugu inoiz danbolinik erabili)

gantxo: gantxo

"Kafe iten dosun gustin sartu gantxo ikuskosu selan kafe obek urteten deuen" (Kafea egiten duzun guztian sartu gantxo ikusiko duzu zelan kafe hobeak irteten duen)

iketza

katea: katea; tximinea garbitzeko erabiltzen zen katea bat

"Tximinen eukite gendusena katea bi" - (Tximinean edukitzen genituen katea bi)

kea: kea

"Bai, bai olau gause pai, sorginek andi tximineti sartzen diela ta, autzen edo, kean barruti datosela ta, olau gausek, inusentekerik" - (Bai, bai holako gauzak bai, sorginak handik tximineatik sartzen direla eta, hautsen edo, kearen barrutik datozela eta, holako gauzak, inuzentekeriak)

kearte: kearte

"Kearten sartu diren" (Keartean sartu dira)

kedarra: kedarra

"Kedarra bai baye kedarra da noperari be salta deutzen gause tire kedarrak orrek baltzak saltaten deudenak, baye olline ostantzen, olline dau eta ollinek saltaten deu baye kedarra beti aurpegin edo, beti soltaten datzu kedarren bat" - (Kedarra bai baina kedarra da norberari ere saltatu dioten gauzak dira kedarrak beltz horiek saltatzen dutenak, baina hautsa osterantzean, hautsa dago eta hautsak saltatzen du baina kedarra beti aurpegian edo, beto soltatzeko zaizu kedarren bat)

misto: mistoa

mukurre

olline: kedarraren hautsa

"Bekosurte? ba esebes, kendu a dana, eta gero ba, ordun esan oten lejia ta esin san garbitu lejiak, kendu dana, garbitu dana, batu ori olline dana do, e, sera, egurren, e, sera ta solora bota" - (Beheko-surtea? ba ezer ere ez, kendu hura guztia, eta gero ba, orduan ez zen egoten lexiba eta ezin zen garbitu lexibagaz, kendu dena, garbitu dena, batu kedarraren hauts hori dena edo, zera, egurraren, zera eta sorora bota)

parrille: parrila

prase: txingarra

sue: sua

"Albon, ingirun sue in keas siketu ite sala, se alan estala galtzen txorixoa" - (Alboan, inguruan sua egin keagaz sikatu egiten zela, ze halan ez dela galtzen txorizoa)

surte

surteko gantxo

sutondo: sutondoa

taloburnei, taloburni: talaburdina

"Gero in ber dosu ondo amasa gero yo ta estitzen apurtu, ta gero kuxu alantxe eskun ta darosu, e, taloburni esaten dosun modun" - (Gero egin behar duzu ondo amasatu gero jo eta ez diezaitoten apur, eta gero hartu halantxe eskuan eta daroazu, talaburdina esaten duzun moduan)

"Eta artorako bere, selan geituten da? arto iteko, geuk euki dune? talo iteko, taloburnei" (Eta artorako ere, zelan deitzen da? artoa egiteko, geuk eduki duguna? taloa egiteko, talaburdina)

tenase, tenasak: tenazak, txingarrak eta ilintiak hartzeko erabiltzen ziren

"Tenase esate san baye tenasa lau sera txingerrak edo, emen koyu t'ara bota, se an ote san sue gitxi, ba emen koyu t'ara bota, artu dein inderra giau suek" - (Tenaza esaten zen baina tenaza lako zera txingarrak edo, hemen hartu eta hara bota, ze han egoten zen sua gutxi, ba hemen hartu eta hara bota, har dezan indarra gehiago suak)

trebere: trebera

"Trebera baten ganen imini, ta an erre ta espabe surten, sera prasan, prasara bota ta an erre ta erain, e, palu beteas edo egur beteas eta, atara gero" - (Trebera baten gainean ipini, eta han erre eta ezpabere surtan, zera txingarretan, txingarretara

LEIOAKO HIZTEGIA

bota eta han erre eta eragin, makila bategaz edo egur bategaz eta, atera gero)

txape: txapa

"Len txape egoten san" - (Lehen txapa egoten zen)

"Ori erre estaiten, eite san, txapan bere etxate san, sera, eta gero txapa ganera, ta berari artori be bai, iminte aken ganen apur bet" (Hori erre ez dadin, egiten zen, txapan ere botatzen zen, zera, eta gero txapa gainera, eta berari artoei ere bai, ipintzen zitzaien gainean apur bat)

tximine: tximinea

"A esan garbitu iten se a sabala ixeta san tximine, tximine baye txapakoa, txapakoa bai, tellature ien, eta nire aitek ladrillu botate yeun kordel bateas, saku beteas amarrata ladrillu, e, estin apurtu gausek eta a sakues eta ladrillues, gora ta bera" - (Hura ez zen garbitu egiten ze hura zabala izaten zen tximinea, tximinea baina txapakoa, txapakoa bai, teilatura igan, eta nire aitak adreilua botatzen zuen kordel bategaz, zaku bategaz lotuta adreilua, ez ditzan apur gauzak eta zaku haregaz eta adreiluagaz, gora eta behera)

txingerra: txingarra

txispe: txinparta

"Ori esateuden ba, onek, ordun dosela gatxak, orrek txispek urtetan deudenen andi" - (Hori esaten zuten ba, hauek, orduan doazela gaitzak, txinparta horiek irteten dutenean handik)

6.6. ARGIA

argi: argia

"Ta egon gintzen gaueko amabiterarten, seña ago sabalik on san koitedu, ilko da, gero ilko da, ta argi yote yakiun" - (Eta egon ginen gaueko hamabietara arte, seina aho zabalik egon zen koitadua, hilgo da, gero hilgo da, eta argia joaten zitzaigun)

eletresidade

"Eta etor sanen eletresidade, sera, palues yo besetagendun, e, emon diskuen argi" - (Eta etorri zenean elektrizidadea, zera, makilagaz jo behar izaten genuen, eman diezaguten argia)

epertargi

farola: farola

"Amoma etzalden bixite san, eta alabe eskondute euki yen Undon, an, a, ta yote san gauetan, esan egoten argirik, ta farolaas" (Amama baserrian bizi izaten zen, eta alaba ezkonduka eduki zuen Udondon, han, eta joaten zen gauetan, ez zen egoten argirik, eta farolagaz)

farola argi

kandela argi: kandela argia

kandela negarra: kandela negarra

kandele: kandela

"Kandele eta mayatzen loratan, sera, danok kandelakas ta lorakas amabirjineri eroten" - (Kandela eta maiatzaren loretan, zera, denok kandelakaz eta lorekaz Ama Birginari eroaten)

"Sanantioniori kandela bat eron ber dako ia emoten badosku ser ona" - (San Antoniori kandela bat eroan behar zaio ea ematen digun zer ona)

kandeleru: kandelerua

kandile: kinkina, kriseilua

karburo argi: karburo argia

karburo, karbudo: karburoa

"Karbudok urten yenen, bu! argi andi osten petroleo argitxues edo kandeas" - (Karburoak irten zuenean, bu! argi handia ostein petrolio argitxoagaz edo kandelagaz)

metxe: metxa

"Metxek emote yen argitasune" - (Metxak ematen zuen argitasuna)

petroleo argi: petrolio argia

petroleo: petrolio

6.7. URA

arri: harria, sukaltarria

depositu

errade: errada, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia; andreek sarritan errada buruan erabiltzen zuten

"Errade bai neu pe euki dot" - (Errada bai neuk ere eduki dut)

kantaru: kantarua, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

txorro: 1. txorrota, giltza. 2. txorroa, txorrota

"Guk euki gendun, e, iturri txorro bies baye etzen es" - (Guk eduki genuen, iturria txorro bigaz baina etxean ez)

LEIOAKO HIZTEGIA

ure: ura

ur palu: ur makila

6.8. SUETEKO TRESNAK

botille

"Lengo egunen estai nok esayeusten se, ai aoneri esa neuntzen neuk mayen, limonada botille ba pe esin dot sabaldu oin te" - (Lehengo egunean ez dakit nork esan zidan ze, a haoni esan nion neuk mahaian, limonada botila bat ere ezin dut zabaldu orain eta)

enbudo: enbutua, onila

estere

"An iminte sien talok eta, ixetan basien bi edo iru in ber ixeten direnak ba bastertxuti, alan, ta erdien beste bat, iru, e, kabite sien majo esteran" - (Han ipintzen ziren taloak eta, izaten baziren bi edo hiru egin behar izaten direnak ba baztertxotik, halan, eta erdian beste bat, hiru, sartzen ziren ederto esteran)

garrafoya: garrafoia

"Kortxosko es oingo daun modun, espabere egote san, aik ixeta sien garrafoyak, ademas gosoau egote san an ardau besten baño" - (Kortxoazkoa ez oraingoa dagoen moduan, espabere egoten zen, haiek izaten ziren garrafoiak, gainera gozoago egoten zen han ardaua bestean baino)

kafe errote

kafetere

kaldere

"Eta kaldere be bai eskegite, esne egosteko be bai" (Eta galdara ere bai eskegita, esnea egosteko ere bai)

kasuele: kazola

katxarro: katxarroa

lapiko: lapikoa

"Trebera esaten gintzen guk, alan imini lau kaderako, lau kaderako ta ain ganen imini lapiko ta erre, edo egosi gausek, indabak eta gausek, lurreko lapiko ademas gosoau, ta espabere ogote san eskegite, burni bet, alan, eta an sartu lapikon sera ta an" - (Trebera esaten genion guk, halan ipini lau hankakoa, lau hankakoa eta haren gainean ipini lapikoa eta erre, edo egosi gauzak, indabak eta gauzak, lurrezko lapikoa gainera gozoagoa, eta espabere

egoten zen eskegita, burdina bat, halan, eta han sartu lapikoa zera eta han)

lurreko lapiko

marmite: kantina

morteru: morteroa, almaiza

pasadora: iraztontzia

"Eta botaten gintzen esneri, megidu esne seme tan ta botaten da, ta ite san kuaja, osea ite san gogortu, ta ordun botate nendun nik, e, sera batera pasadora edo, sulotxudune ta ara, an imini trapu bet, ta botate nendun ara, eta an yote san apurke apurke ure, ta lotze san bakarrik" - (Eta botatzen genion esnari, neurtu esnea zenbat den eta botatzen da, eta egiten zen legartu, hau da egiten zen gogortu, eta orduan botatzen nuen nik, zer batera iraztontzira edo, zulutxoduna eta hara, han ipini trapu bat, eta botatzen nuen hara, eta han joaten zen apurka-apurka ura, eta lotzen zen bakarrik)

potijo: potixea

sartana: zartagina

tankarro

tape: tapa, sukaldeko ontzien estalkia

6.9. ONTZITERIA

kikere

basu: basoa, edalontzia

katillu, katilu: katilua

"Ta gero a bera koyite bai katilu betera edo katxarro batera koyite bota asukere ta batidu ondo ondo ta goso ixeta san a, baye asukereas ixen ber ixeta san" - (Eta gero hura bera hartuta bai katilu batera edo katxarro batera hartuta bota azukrea eta irabiatu ondo-ondo eta gozoa izaten zen hura, baina azukreagaz izan behar izaten zen)

kollare: koilara

"Ureas in kollara palusko kollaraas bota urune ara ta erain te erain te erain eta lodi lodi an imini eta gero atara ta yan, gure beste aldekok" (Uragaz egin koilara zerezko koilaragaz bota irina hara eta eragin eta eragin eta eragin eta lodi-lodi han ipini eta gero atera eta jan, gure beste aldekoak)

kutxillo: ganibeta, kutxilua

platera: platera

LEIOAKO HIZTEGIA

"Makine bat yan deu orrek plateran" -
(Makina bat jan du horrek platerean)
"Gabonatan lelengo platera koliflora"
(Gabonetan lehengo platera azalorea)

plater asala
plater sakona
tase
tenedora
yarre: pitxarra

6.10. ALTZARIAK

arke: arka
"Arkan sartute sien" (Arkan sartzen ziren)
armario
"Armario euki du beti olan baldakas, eta katiluk eta an eskegite, onen modun katiluk eta platerak" (Armarioa eduki dugu beti holan apalakaz, eta katiluak eta han eskegita, honen moduan katiluak eta platerak)
aspire: azpira, oramahia
"Aspire euki dot neuk, bai baye aspire esta, aspire da iteko talo, talo iteko da aspire" (Azpira eduki dut neuk, bai baina azpira ez da, azpira da egiteko taloa, taloa egiteko da azpira)
aurki: aulkia, errespaldobakoari esaten zaio, kasurako kortara behiak batzeko eroaten dena
"Olau aurkirik estait esetu badot" (Holako aurkirik ez dakit ezagutu dudan)
"Ganadu eratziteko eta beti aurki olesko" (Ganadua eraisteko eta beti aulkia oholezkoa)
balde: baldea
"Andi eskeite san balde ta, ure berotako beyentzako ta olan" (Handik eskegitzen zen baldea eta, ura berotzeko behientzat eta holan)
banku
"Banku beti euki du guk sueten bere bai" (Lanka beti eduki dugu guk suetean ere bai)
bañere
espillu: ispilua
"Neure buru espillun ikus dot" (Neure burua espiluan ikusi dut)
gasundegi, gasuntegi, gasundi: gatzunaska
"Gasuntegin eote san urdei be bai, pernile pe bai, pasten dana gero iten gendun, atara

gatzeti eta, piper sikues ta, emon piper sikues ta gatza kendute ta eskegi" -
(Gatzunaskan egoten zen urdaia ere bai, pernirik ere bai, pasatzen dena gero egiten genuen, atera gatzetatik eta, piper sikuagaz eta, eman piper sikuagaz eta gatza kenduta eta eskegi)

jergoya
kaje: kaxa
kajoya
koltxoya: koltxoia
"Sapak, metxuk, sartute sien, ta koltxoya in klaro!" (Sapak, mehetxoak, sartzen ziren, eta koltxoia egin jakina!)
komade, komode
kume
"Kumen ein dot nik lo" (Kuman egin dut nik lo)
maye: mahaia
"Plateratara ta mayera ta atara barik estin artu gustu, se ordun maye garbite san lejiaas" - (Plateretara eta mahaira eta atera barik ez dezan har gustua, ze orduan mahaia garbitzen zen lexibagaz)
oya: ohea
"A koitedu otabi urteas topa yeun amak oyan ilte ta, gasterik yon san" - (Koitudu hura hogeita bi urtegaz topatu zuen amak ohean hilda eta, gazterik joan zen)
radio: irratia, irrati aparailua
sille, sile: sila, aulkia; sila errespaldoduna izaten da
"Silen yarrite san eta esan sile ikusi be iten" - (Aulkian jesartzen zen eta ez zen aulkia ikusi ere egiten)
telebisiño: telebista, telebista aparailua
yarleku: jarlekua, jezarlekua

6.11. ETXEKO ARROPAK

almuede
ixere: izara
"Ordun ixera sati beteas errementa a" - (Orduan izara zati bategaz errementatu hura)
koltxille
"Koltxillek euki dus baye es lumekas" (Koltxilak eduki ditugu baina ez lumakaz)
kortine: gortina
mante: manta, tapa

LEIOAKO HIZTEGIA

"Atañoako otza iten deules manta bat koyu berixen du" (Hainbesterainoko hotza egiten duenez manta bat hartu behar izan dugu)

mantela: zamaua, mahai-estalkia

sapi

sorki: 1. sorkia, sukaldeko trapua. 2. zamak garraiatzeko buruan ipintzen zena

trapu: trapua, sorkia

"Trapu beteas, trapu umedo busti beteas kentzen dotzesu ondo" - (Trapu bategaz, trapu heze busti bategaz kentzen diozu ondo)

6.12. BOGADA

alanbre: alanbrea, erropa eskegitzeko erabiltzen zena

barande: baranda, erropa eskegitzeko lekua

bogade: bogada

gantxo

lejia: lixiba

sepillu

"An arrin yo erropak eta yagona ta an sepillues ta gausekas" - (Han harrian jo arropak eta xaboiztatu eta han eskubilagaz eta gauzakaz)

sine

"Gero txorixok eiteko olau sinek" (Gero txorizoak egiteko holako zinak)

tine

tineku: tinakoa, erropak garbitzeko erabiltzen zen egurrezko ontzia

yaboya, yagoya: xaboia

"Gero emon yaboya ta imini bedarran ganen, t' itxi eguskik emon dion apur bet, lejian partes, se suritako, eta gero ostabe koyu, artu te yabona ostabe ta garbitu eta ala! etzera" - (Gero eman xaboia eta ipini belarraren gainean, eta utzi eguzkiak eman diezaion apur bat, lexibaren orde, ze zuritzeko, eta gero ostera ere hartu, hartu eta xaboiztatu ostera ere eta garbitu eta tira! etxera)

6.13. GARBIKUZIA

autze: hautsa

eskobe: erratza

garbikusi: garbikuzia

sastarra: zaborra

"Gari emen, e, gero saldu ite yeuden saldu be bai, gero etzera eron, yo gari, eta garbitu ite san makine batzuk dana, bota alderdi bateti botate san sastarra ta bestera gari garbi garbi garbi, ta saldu ite san gari" (Garia hemen, gero saldu egiten zuten saldu ere bai, gero etxera eroan, jo garia, eta garbitu egiten zen makina batzuk dena, bota alderdi batetik botatzen zen zaborra eta bestera garia garbi-garbi-garbi, eta saldu egiten zen garia)

sose: sosa

ugerra: ugerra, lohia

7. SINESKERAK

Atal honetan sineskerei buruzko berbak batzen ditugu; sineskera horietariko gehienak elizari dagozkio; beste batzuk, ostera, garaiteko sines-esparruetan koka ditzakegu. Gaia aurkezteko honako azpiatalok egin ditugu: eliza, erlijioa, elizkizunak, kleroa eta gainerako sineskerak.

7.1. ELIZA

banku: bankua, jazarlekua

"Bankutxu bi egote siren portikun, an etxate en respontzo ta kanposanture eron" - (Bankutxu bi egoten ziren elizpean, han botatzen zuten errespontsoa eta kanpusantura eroan)

elispe: elizpea, elizaren arkupea

eleixe, elixe: eliza

ermite: baseliza

"Mayatzen amabosten Sanisidro Ondiseko ermiten" - (Maiatzaren hamabostean San Isidro Ondizeko baselizan)

"An dau Peruri te ermite be an dau, San Bartolome geituten dakon ermite be an dau" - (Han dago Peruri eta baseliza ere han dago, San Bartolome deitzen zaion baseliza ere han dago)

kandeleru: kandeleroa

"Sepulture? bai, traputxu imini eta kandelerek an, neu pere bai, ni pere imin dot ori, urte askotan, eta ara bota, iru edo lau perra, se ordun esan oten dirurik,

LEIOAKO HIZTEGIA

abade etorte san ta erresate yen abadek, beran sonbrerure botate yen, erresa, ta sonbrerure" - (Sepultura? bai, traputxoa ipini eta kandeleroak han, neuk ere bai, nik ere ipini dut hori, urte askotan, eta hara bota, hiru edo lau txakur, ze orduan ez zen egoten dirurik, abadea etortzen zen eta errezatzen zuen abadeak, beraren kapelera botatzen zuen, errezatu, eta kapelera)

kanpe: kanpaia

kapille

kurtze, kurse: gurutzea

"Umeri gero kurtzek eta gure aubek eiteutzosen" - (Umeari gero gurutzeak eta gure amaginarrebak egiten zizkion)

"Santa Barbara, eta kui katilun ure, ta ure botate san kursek einte" - (Santa Barbara, eta hartu katiluan ura, eta ura botatzen zen gurutzeak eginda)

"Orio, lar berotu barik, an imini te orioas imini serak, kursek einte, emen kurse bat, emen beste bat, ta emen beste bat" - (Olioia, lar berotu barik, han ipini eta olioagaz ipini zerak, gurutzeak eginda, hemen gurutze bat, hemen beste bat, eta hemen beste bat)

parroki: parrokia

"Parrokiko santu san juan egunen, junion ogetalauen" - (Parrokiako santua san juan egunean, ekainaren hogeita lauan)

portiku: elizpea, elizaren arkupea

"Emen portikun estot ikusi inos, e, mayerik eta" - (Hemen elizpean ez dut ikusi inoiz, mahairik eta)

sakristi: sakristia

sepulture: sepultura, elizan familiaren hilekoen oroimenez jartzen zen petrila eta beronen gainean sorki beltz bat zamau zuri batek estalia, beronetan kandelak biztuta egoten ziren

"Ori sepulturena, au elexe yausi in san, ta gero kendu i yeuden, ya modernoau i yeuden, e, sera, iminteko, elexe igual igual imin yeuden, baye modernoau egon ditzen kendu i yeden sepulturek, oin estau sepulturerik" - (Sepulturen hori, eliza hau jausi egin zen, eta gero kendu egin zuten, ja modernoago egin zuten, zera, ipintzeko, eliza berdin-berdin ipini zuten, baina modernoago egon dadin kendu egin zituzten sepulturek, orain ez dago sepulturerik)

sille

toke

"Enterru edo ilte sanen bata ba pere tokek yote yeresen, oin estau tokerik es eser" - (Hileta edo hiltzen zenean baten bat ere jotaldiak jotzen zituzten, orain ez dago jotaldirik ez ezer)

trapu baltza

trapu suri

"Trapu suri, trapu baltza aspin, ta trapu suri ganen, kandelero kandelakas, kandelero bi, sepulturek eukiten gendusen, e, igual, lauek bat, sepulture bat, eta danok kandelero bakotxana" - (Trapu zuria, trapu beltza azpian, eta trapu zuria gainean, kandeleroa kandelakaz, kandelero bi, sepulturek edukitzen genituen, beharbada, lauek bat, sepultura bat, eta denok kandelero bakoitzarena)

txiline: txilina

ur bereinketu: ur bedeinkatua

"Atxine ur bedeinketu ite san aste santun, barrike itzelatan iminte san, eta bakotxak trugoya egote sanerako ta etzera eroten gendusen, oin kendu da ori mode dana" - (Antzina ur bedeinkatua egiten zen aste santuan, barrika itzeletan ipintzen zen, eta bakoitzak trumoia egoten zenerako eta etxera eroaten genituen, orain kendu da moda hori dena)

yarleku

7.2. ERLIJIOA

amabrijine, amabirjine: amabirjina

"Ondiseko amabrijine geituten tzu" - (Ondizeko amabirjina deitzen diogu)

"Begoñara urten urten urten, amabirjineana, yon, e, trenen, trenen yon, kuxi eskallerak bean eta uñes, Begoñara" - (Begoñara urtean-urtean-urtean, Ama Birjinagana, joan, trenean, trenean joan, hartu eskailerak behean eta oinez, Begoñara)

arime: arima

"Purgatoriko arimek serure yoten dire" - (Purgatorioko arimak zerura joaten dira)

"Ba atxine gause asko esate san, se atxine esate san se, bat ilten danen etzen esate yeun se, orren arime yon da, etze ondoko arbolarik parajeenera, ta senbet bider guk, e, esan ta igual ilte san amoma edo aitite

LEIOAKO HIZTEGIA

edo, ba gure amoman edo aititen arime or madarin ganen ongo da se, ori arbolarik parajeena" - (Ba antzina gauza asko esaten zen, ze antzina esaten zen ze, bat hiltzen denean etxean esaten zuen ze, horren arima joan da, etxe ondoko arbolarik parajeenera, eta zenbat bider guk, esan eta beharbada hiltzen zen amama edo aitaita edo, ba gure amamaren edo aitaitaren arima hor madariaren gainean egongo da ze, hori arbolarik parajeena)

bijili: bijilia

"Bijili iteko ori ber san" - (Bijilia egiteko hori behar zen)

"Pekatu ixeta san ordun eiten basendun, espasendun eiten bijili, oin esta baye bardin da" - (Bekatua izaten zen orduan egiten bazenuen, ez bazenuen egiten bijilia, orain ez da baina berdin da)

"Garixume oson bijili, barikurik barikure" - (Garizuma osoan bijilia, barikutik barikura)

bulda: bulda

"Buldak, ori, astesantun, pagaten seyenak, ba bijilirik eyen eiten, bai guk beti ein dules bijili eguno estu paga" - (Buldak, hori, aste santuan, ordaintzen zituztenek, ba bijiliarik ez zuten egiten, baina guk beti egin dugunez bijilia egundo ez dugu ordaindu)

dotrine: doktrina

elexakok: elizakoak, sakramentuak

"Makal ote sana txarto, elexakok, txilineas etorte sien, monagilloas" - (Makal egoten zena txarto, elizakoak, txilinagaz etortzen ziren, meza-lagunagaz)

erlejiño, erlijiño

"Ni erlejiño andiko nas, enas esango lar sante baye erlejiño, guresok irekatzite dekot" - (Ni erlijio handikoa naiz, ez naiz izango lar santua baina erlijioa, gurasoek irakatsita daukat)

infernu, ifernu: infernua

jainko, jangoiko: jaungoikoa

"Jainkoan sinesten dot" (Jangoikoagan sinesten dut)

linbo: linboa, bateatubako umeak hiltzen zirenean linbora joaten ei ziren. Bestalde, lupetzeko lekuari linboa ere esaten zaio.

mandamentu

"Esateuden mandamentu tirela jangoikok einekok baye aiteko tie ba gixonak einekok,

ta gixonak einekok, eta gixonak, au ingo du gaur te bier eingo du beste gause bat, gixona gixona da ta, alandase, nik orren serik estekot, pekatu ein dotenik bijili estotelako eron, es" - (Esaten zuten mandamenduak direla jangoikoak eginekoak baina haietakoak direla gizonak eginekoak, eta gizonak eginekoak, eta gizonak, hau egingo dugu eta bihar egingo dugu beste gauza bat, gizona gizona da eta, halandaze, nik horren zerik ez daukat, bekatu egin dudarik bijilia ez dudalako eroan, ez)

pekatu: bekatua

"Bai baye orreitearrrik ori esta ixen pekatu iños beres, iños besta ixen pekatu se pagaten dan pekatu esta pekatu, pagaten dana esta pekatu, ta pagaten baosu yateko, ba" - (Bai baina horregatik hori ez da izan bekatua inoiz ere ez, inoiz ere ez da izan bekatua ze ordaintzen den bekatua ez da bekatua, ordaintzen dena ez da bekatua, eta ordaintzen baduzu jateko, ba)

promese: agindua

"Batzuk Begoñara ite yen promesa modun" - (Batzuek Begoñara egiten zuten promesa moduan)

purgatorio: purgatorioa

santu: santua, saindua

"Santu et atarate yean, baye estait sein egun ixeta san, atarate yean amabirjine kalera" - (Santu bat ateratzen zuten, baina ez dakit zein egun izaten zen, ateratzen zuten Amabirjina kalera)

"Iños iños ukus dot ataraten nik, baye estait ordun seitarrrik ixeta san atara yerena santu bet" - (Inoiz inoiz ikusi dut ateratzen nik, baina ez dakit orduan zergatik izaten zen atera zutena santu bat)

sante: santua, saindua

seru: zerua

sinesmena

"Orrek esteko sinesmena" (Horrek ez dauka sinesmena)

sineste: sinismena

7.3. ELIZKIZUNAK

bautiso

bedatzi urrunek: bederatzi urrunak

LEIOAKO HIZTEGIA

"Etzen ilte sanari bederatzi urrunete yotzen, etzen bertan, bayer abade barik, yakite yenak errosario erresaten ta" - (Etxean hiltzen zenari bederatzi urrunak egiten zizkioten, etxean bertan, baina abade barik, jakiten zutenak errosarioa erresatzen eta)

elixartze: eliza hartzea, eliza sartzea

"Oin ama, elexara yoten da bautisaten be, gu es, gu yoten gintzesen, sera, paraten gintzen ondo, seña kusi, eta elixartze iten elexara" - (Orain ama, elizara joaten da bataiatzen ere, gu ez, gu joaten ginen, zera, paratzen ginen ondo, seina hartu, eta eliza hartze egiten elizara)

errespontzo, respontzo: errespontsoa

erresu: otoitza

"Emen emen onek gure edadekok kanta in ber da ta itzeleko erresuk eta iten gendusen, ure edan eta bakixu gose, ene! igual madarik, Irenek, geitzen san bat gure lagune ganadu yaboten egoten gintzen da, Irene kuxikus madarixu betzuk, es gure aitek kontata dekos, eta erramak, erramak bean yoten pisues, Irene madarixu betzuk kuxikus, etorri te gose, ta urek korrite yen olan, ure, manantialetako ure, ta aik ure edan olan, eta erresa, eta beste tragu bet edan, erresa" (Hemen hemen gure edadeko hauek kantatu egin behar da eta itzeleko otoitzak eta egiten genituen, ura edan eta badakizu gosea, ene! beharbada madariak, Irenek, deitzen zen bat gure laguna ganadua jagoten egoten ginen eta, Irene hartuko ditugu madarixu batzuk, ez gure aitek kontatuta dauzka, eta abarrak, abarrak behan jotzen pisuagaz, Irene madarixu batzuk hartuko ditugu, etorri eta gosea, eta urak korritzen zuen holan, ura, iturburuetako ura, eta haiek ura edan holan, eta erregutu, eta beste zurrutada bat edan, erregutu)

errogatibe: errogatiba

"Ori bai, esate yen abadek se, bueno ba errogatibe in ber du euri in dien, eta al yeurenak edo gure yeunak yoten gintzen, eta emoteden kasureko buelta bat oin emen gauseles gu, yon, e, ara unibersidedera, Goyerrire kasik, eta egote san, e, sirku bet egote san eite san a buelte, eta ite san ori sirku, eta gero an aurren abadek ya elexen aurrera yon ber ixete san gero elexen

aurrera, eta an abadek eite yen berba batzuk eta, bendesiño batzuk bota, t'a ixeta san, e, etor ditzen, e, ure" - (Hori bai, esaten zuen abadeak ze, beno ba errogatiba egin behar dugu euria egin dezan, eta ahal zutenak edo gura zutenak joaten ginen, eta amaten zuten kasurako buelta bat orain hemen gagozenez gu, joan, hara unibersitatetera, Goierrira kasik, eta egoten zen, zirkulu bat egoten zen egiten zen buelta hura, eta egiten zen zirkulu hori, eta gero han aurrean abadeak ja elizaren aurrera joan behar izaten zen gero elizaren aurrera, eta han abadeak egiten zituen berba batzuk eta, bedeinkazio batzuk bota, eta hura izaten zen, etor dadin, ura)

errosario: errosarioa

"Errosario erresaten, primeran, latin, euskera, dustirik yakiteunak, eta berbas bere estok eta badok, beti" - (Errosario errezatzen, primeran, latin, euskara, guztirik jakiten zuena, eta berbaz ere eztuk eta baduk, beti)

komunino: komunioa

"Etzekoas bakarrik, etzen esta koiten, eta yoten ikis deu itzel, eta ikisko deu gure badeu, ta dinotzo aititek, komunino iten dosunen, erregalako tzu eingo baosu, soñu bet, bayer nos eingo deu?" - (Etxekoagaz bakarrik, etxean ez da hartzen, eta jotzen ikasi du itzel, eta ikasiko du gura badu, eta dinotso aitaitak, komunioa egiten duzunean, erregalatuko dizugu egingo baduzu, soinu bat, baina noiz egingo du?)

kredo: kredoa

memorila

"Il bada kasureko, domekas, enterra badeude, ordun astelenen eiten deude memorila" - (Hil bada kasurako, domekaz, lurpetu badute, orduan astelehenean egiten dute memorila)

mesa naosi: meza nagusia, beluko meza

mese: meza

"Bai umetxu, yon siren Begoñara selebra san mese, ta mutilek esa eun, lengusuk esateuen se, bai mesa emoten abade ta, abaderi esate yeutzen se, antxe abaden atzekalden dau esateyen berak, aitu an beste aldera pasa da, iñok es ieun ikusten bera paño" - (Bai umetxo, joan ziren Begoñara egin zen meza, eta mutilak esan

LEIOAKO HIZTEGIA

zuen, lehengusuak esaten zuen ze, bai meza ematen abadea eta, abadeari esaten zion ze, hantxe abadearen atzeko aldean dago esaten zuen berak, aditu han beste aldera pasatu da, inork ez ei zuen ikusten berak baino)

"Amakatako mesara yon dires" (Hamaiketako mezara joan dira)

pater nosterra

prosesiño: prozesioa

"Gero Santo Kristo erote san eta santu, Dolorose, ta santu erote yen gixonak, eta gu danok atzen, baye prosesiño elegantek, oin estau olaorik emen" - (Gero Santo Kristo eroaten zen eta santua, Dolorosa, eta santua eroaten zuten gizonek, eta gu denok atzean, baina prozesio dotoreak, orain ez dago holakorik hemen)

salide: ama berriaren lehen irteera

"Es ama es, amak eyen urteten etzetik, e, salide ite san umeas" - (Ez ama ez, amak ez zuen irteten etxetik, irteera egiten zen umeagaz)

"Ni neu yo nintzena neu bai, Begoñara yo nintzen ile bakarrenen, ta urten, ori salide in barik urten bes, e?" - (Ni neu joan nintzena neu bai, Begoñara joan nintzen hil bakarrenean, eta irten, irteera hori egin barik irten ere ez, e?)

salideko mese: olatako meza

"Gaur enterru ixen bada, gaur memorila ta enterru ba, ber dan modun konpleto, eta bier salideko mesara" - (Gaur enterrua izan bada, gaurk memorila eta enterrua ba, behar den moduan osorik, eta bihar olatako meza)

urteko memorila: urtegarrenean egiten den meza, urte bigarrenean ere egiten izan da meza bat

"Ilen lelengo domekan da memorila, eta gero, urtegarrenen, eiten deudenen ordun, urteko memorila esaten dako" - (Hilaren lehenengo domekan da memorila, eta gero, urtegarrenean, egiten dutenean ordun, urteko memorila esaten zaio)

7.4. KLEROA

abade: abadea

"Bautisaten be bai umek, oin umek, e, barrure sartu te an oten gares, ordun es, ordun

kanpon itxoten gentzen ta abadek urteteun beran kapeas ta yantzite, eta yoten gintzesen abaden atzen umekas" - (Bataiatzen ere bai umeak, orain umeak, barrura sartu eta han egoten gara, ordun ez, ordun kanpoan itxaroten genion eta abadeak irteten zuen beraren kapagaz eta jantzita, eta joaten ginen abadearen atzean umeakaz)

aite santu

fraile: frailea

"Ni oin elexara esi nas yon, au kaderako sera dekoteles dotorek kita yesten medikuk, baye telebistan domekan domekan entzun dot mese, baye erri ederra taus, aldea itzelak, oin be domekan bere entzun dot telebistan mese, sera, oin iten dana, fraile esengo da, komenton, frailen komenton, e, iru domekatan oten da elexa baten, ta beste irugarren domekan beste elexa batera kanbiaten de" - (Ni orain elizara ezin naiz joan, mokorreko zera daukadanez doktoreak kendu zidan medikuak, baina telebistan domekan-domekan entzun dut meza, baina herri ederrak dagoz, baserri itzelak, orain ere domekan ere entzun dut telebistan meza, zera, orain egiten dena, fraidea izango da, komentuan, fraideen komentuan, hiru domekatan egoten da eliza baten, eta beste hirugarren domekan beste eliza batera aldatzen da)

komento: komentua

moje, monje: moja

"Eta an erropak bedeinketute ekarri etzera ta, guk aite makal euki gendun bastante txarto, eta esa yoskun, se nik lengusine dekot moje eta abade, lengusu, Areatan bixi da oin, se neure edadeko da ta ya jubilatata dau, eta esate yoskuen eron San Felisisimora eta bedeinketu onek erropak, eta San Felisisimora gu, bueno, ni urte askotan yo nas San Felisisimora" - (Eta han arropak bedeinkatuta ekarri etxera eta, guk aita makal eduki genuen nahiko txarto, eta esan zigun, ze nik lehengusina daukat moja eta abadea, lehengusua, Areatan bizi da orain, ze neure edadekoa da eta ja jubilatuta dago, eta esaten ziguten eroan San Felizisimora eta bedeinkatu arropa hauek, eta San Felizisimora gu, beno, ni urte askotan joan naiz San Felizisimora)

LEIOAKO HIZTEGIA

monagillo: monagiloa

parroko: parrokoa, erretorea

sakristau: sakristaua

"Bueno bota yesan or sakristauena ta an etzek falta diren" (Beno bota zituzten hor sakristauarena eta han etxean falta dira)

7.5. GAINERAKO SINISKERAK

beste mundukok: beste mundukoak, izaki harrigarriak ez aipatzeko hau esaten da

"Beste mudukok urteten deude" - (Beste mundukoek irteten dute)

eskapulario: kutuna, inork umeari begizko egin ez diezaion jartzen zena

"Iminte geuntzen, e, barruko paxatxun, inperdibletxu beteas, eskapulario ta beti ekarte san ademas, a kendu barik, ibiltzen gendun" - (Ipintzen genion, barruko paxatxoan, traba orratz bategaz, eskapularioa eta beti ekartzen zen gainera, hura kendu barik, erabiltzen genuen)

kutune: kutuna, inork umeari begizko egin ez diezaion jartzen zena

lamiñe: lamina

"Nik iruotabederatzi urte dekoas eta nik ori estot esetu oin arte, entzun bai, lamiñek oten siela ta ortarango jenerok" - (Nik hirurogeita bederatzi urte dauzkat eta nik hori ez dut ezagutu orain arte, entzun bai, laminak egoten zirela eta horietariko gauzak)

sorgine: sorgina

"Sorginkeri tiela esate yean" - (Sorginak direla esaten zuten)

"Bueno esaten deude sorgine txikerra dala esaten deude, e? leku txikerren sartzen dala baye" - (Beno esaten zuten sorgina txikerra dela esaten dute, e? leku txikerrean sartzen dela baina)

"Sorginek erongo saituse bai!" - (Sorginek eroango zaituzte bai!)

"Egun beten be yon san bat eta, pentza yeun seun trasa bate batek oratuten dotzola ta sasi ixen san, ta yon san bide sati andi beten eiten dotzola oratu iten dotzola sasik eta, ointxe ointxe kosiko neu, ointxe kosiko neu te ya, yon sanen inder giauas sasi apurtu san t'ordun lotu san libre ta sasi ixen san esan ixen sorgine" - (Egun baten ere joan zen bat eta, pentsatu zuen antza

denez baten batek oratzen diola eta sasia izan zen, eta joan zen bide zati handi baten egiten diola oratu egiten diola sasiak eta, oraintxe oraintxe hartuko nau, oraintxe hartuki nau eta ja, joan zenean indar gehiagogaz sasia apurtu zen eta orduan lotu zen libre eta sasia izan zen ez zen izan sorgina)

"Bai sorginek, bai sorginek, e, bekosurtean su ite yeala sorginek egoteko ta sorginek etorteko ta, andi tximineti be sartze siela ta, se tximine be sabala ixeta san bekosurtena, olau gausek Jesus! semet bider entzun dusen! baye nik sinestu estot ein iños be, e?" - (Bai sorginak, bai sorginak, beheko surtean sua egiten zutela sorginak egoteko eta sorginak etortzeko eta, handik tximineatik ere sartzen zirela eta, ze tximinea ere zabala izaten zen beheko surtearena, holako gauzak Jesus! zenbat bider entzun ditugun! baina nik sinestu ez dut egin inoiz ere, e?)

"Es yon ara, se an sorgine tabiltzes" - (Ez joan hara, ze han sorginak dabiltza)

sorginkeri: sorginkeria

"Orrek sorgine tires, orrek dabiltzesanak ulle orrastan, ikusi es gendun eiten guk iñor" - (Horiek sorginak dira, horiek dabiltzanak ilea orrazten, ikusi ez genuen egiten guk inor)

8. HERIOTZA

Atal honetan gizakiaren heriotzagaz lotuko lexikoa batzen dugu.

enterru: enterrua, lurpetzea

eriotze: heriotza

funerala: hileta

"Gero elexan funerala, baye egun beratan, bai oin eiten dotze, sera, elexara sartu, etxa bereinkesiño, eta eron, e, kanposanture, eta gero funerala iten dotze" - (Gero elizan hileta, baina egun beratan, baina orain egiten diote, zera, elizara sartu, bota bedeinkazioa, eta eroan, kanposantura, eta gero hileta egiten diote)

gorpu: gorpua

"Ori bakixu selan esate san, ote sana errin, ilte sanen gorpu, erote yeden, kursetan lotu eta pater nosterra erresa" - (Hori badakizu

LEIOAKO HIZTEGIA

zelan esaten zen, egoten zena herrian, hiltzen zenean gorpua, eroaten zuten, bidegurutzetan lotu eta aita gurea errezatu)

kaje

kanposantu: kanposantua, ortusantua, hilerria
"Kanposanture artes, ori neu pe ukus dot" - (Kanposantura artez, hori neuk ere ikusi dut)

lutu: lutua

"Nik saspi urten es, bost urten ero nendun lutu nik, giñarrabe il san, aue il san, koñata bat il san" - (Nik zazpi urtean ez, bost urtean eroan nuen lutua nik, aitagarreba hil zen, amagarreba hil zen, koinata bat hil zen)

9. UMEZAROA

Atal honetan umezaroaren gaineko berbak batzen ditugu; azpi-atalak olgetak, umeakaz erabiltzen den lexikoa eta, azkenik, eskolari dagokiona batzen dugu.

9.1. UMEEN OLGETAK

baloya

botxo: botxoa, lurrean egiten den zuloa kanikak edo intxaurrak sartzeko

botxoka

"Botxoka bai, seraas, asurrekas" - (Botxoka bai, zeragaz, hezurakaz)

garsara: txakurrandik biribil batetik ateratzeko egiten den olgeta

goitibere: goitibehera

kanike: kanika

kaniketan: kaniketara

kirrinkarran: kirrinkaran, gurdiaren partikan iztertolaka paratzen da ume bat, gainerakoek gurdiaren atzeko kamatik gora altxatzen dute hura

kordela: kordela, xibari dantzan eragiteko erabiltzen dena

kornete

kuike: kuika, ostu-ostuka

marro: marroa

muñeke: andrakila, panpina

olgete: olgeta

palatarrike

pelote: pilota

salbo: kuike

sokan: sokan, soka dantzan

soka yantzan

tabe: taba

tronpe: xiba

trukume: trukamea

txirrintola: txirrintola

txorro morro piko tallo ke: txorro morro piko tailo ke

9.2. UMEEN LEXIKOA

andi-andi

apatxe: apatxe, jezartzeko esaten da

apatxe in

babalore

lastana: lastana

lolo in: lo egin

lolo: lo

mama: ura

papa: ogia

papalo: papaoa, umeak ikaratzeko papalo etorriko dela esaten zaie

"Lo iminte sirenen umek esate yaken lolo lolo se papalo etorko da" (Lo ipintzen zirenean umeak esaten zitzaien lolo-lolo ze papaoa etorriko da)

punbale in: jausi

punbale: jausi

tato

"Tato in ber da" (Tato egin behar da)

toto: txakurra

"Toto dator" (Toto dator)

txatxa: fruitua

"Kostaten dales ainbeste badaki txatxa dana" (Kostatzen denez hainbeste badaki txatxa dena)

txetxe, txetxa: umea

txikiñe

"Ta nik esate neuntzen se, Kandido ori esta yateko, bai txikiñe goso da goso esateusten berak, goso da txikiñe au, te txomin bedarra" - (Eta nik esaten nion ze, Kandido hori ez da jateko, bai txikina gozoa da gozoa esaten zidan berak, gozoa da txikina hau, eta txomin belarra)

udebarriko lore

LEIOAKO HIZTEGIA

9.3. ESKOLA

eskole: eskola

"Andi yoten gintzen eskolara erdera ikisten, se an euskera esan emoten eser eskolan, ta yoten gintzen lotzaas, eskendun yakin erderarik" - (Handik joaten ginen eskolara erdara ikasten, ze han euskara ez zen ematen ezer eskolan, eta joaten ginen lotsagaz, ez genuen jakin erdararik)

kastigu: zigorra

libru, liburu, libiru: liburua

"Estot ekarri libururik" - (Ez dut ekarri libururik)

"Ta ori libru auki neun te, eroneun orra bera libreri betera, pasta barrik iminten, ta yo nintzen se esausten se, datorren asterako ongo da, yo nintzen ta ainbeste bieja einendun, akabun dinoste se, libreri ixi in da, ta libreri seaitik? non dau nire libru ba? esa neuntzen, ba erreklamaku, erreklamaku, estaude giau ekarri, e, Iñaki, ainbeste bieja ein dot eta or galdu yat" - (Eta liburu hori eduki nuen eta, eroan nuen horra behera liburudenda batera, azal berriak ipintzen, eta joan nintzen ze esan zidan ze, datorren asterako egongo da, joan nintzen eta hainbeste bidaia egin nuen, azkenean dinostate ze, liburudenda itxi egin da, eta liburudenda zergatik? non dago nire liburua ba? esan nion, ba erreklamatuko dugu, erreklamatuko dugu, ez dute gehiago ekarri, Iñaki, hainbeste bidaia egin dut eta hor galdu zait)

"Eta bakixu nok auki ber deun, estait aukiko badeu ak ori liburu" - (Eta badakizu nork eduki behar duen, ez dakit edukiko duen hark liburu hori)

numeru

maistre, maestre: maistra

10. DENBORA

Denborari buruzko berbak hobeto aurkezteko atal hau ondoko azpiataletan banatuta emango dugu: urtaroak, hilak, astegunak, denboraren banaketa, egunaren banaketa eta egunen arteko erlazioak

10.1. URTAROAK

negu: negua

"Negureko se negun estait, aik udebarrin eoten die" - (Negurako ze neguan ez dakit, haiek udaberrian egoten dira)

ude: uda

"Urte dustin dau oin gause ademas, urte dustin, len esan oten eser bere, len uderik udera, piperrak eta letxuge ta aselge ta oin urte dustin" - (Urte osoan dago orain gauza gainera, urte osoan, lehen ez zen egoten ezer ere, lehen udatik udara, piperrak eta letxuga eta azelga eta orain urte osoan)

udebarri: udaberria

"Nik oin arten, aurterarten gitxi, gitxi ein dot emen, e, altu daules, ba moteau te onek, ba asko esta egon, baye aurtengo udebarri txarra ixen da, se auri asko, a, berok, se bero iten badau, bero iten badau ba, bero ta umedadeas, ba ordun orrek, e, eiten dire asko, gero ba beste kasu be pere bada, len atxine esiren iminten, olan, ikusten dosu onek oin serak selan dausen ba, metro bi ingirun daus iminte, len iminten siren ba igual, lau, lau edo bos metroko, distantzin" - (Nik orain arte, aurten arte gutxi, gutxi egin dut hemen, altu dagoenez, ba ugerra eta hauek, ba asko ez da egon, baina aurtengo udaberria txarra izan da, ze euri asko, beroak, ze bero egiten badu, bero egiten badu ba, beroa eta hezetasunagaz, ba orduan horiek, egiten dira asko, gero ba beste kasu bat ere bada, lehen antzina ez ziren ipintzen, holan, ikusten duzu hauek orain zerak zelan dagozen ba, metro bi inguruan dagoz ipinita, lehen ipintzen ziren ba beharbada, lau, lau edo bost metroko distantzian)

urrite

"Oin au sasoi ontako denpore da au, se urriten beti oten da ego axe ierra, urriten piperrak akabun lotzen diren piperrak eta berandu ereiten diren indabak eta orrek dustik elduteko onek axe ierrak onak ixeten dire" (Orain hau sasoi honetako eguraldia da hau, ze udagoiengan beti egoten da hego haize igerra, udagoiengan piperrak azkenean lotzen diren piperrak eta berandu ereiten diren indabak eta horiek guztiak heltzeko haize iger hauek onak izaten dira)

LEIOAKO HIZTEGIA

10.2. HILAK

abril

"Abrilen ein doas laurogei" - (Apirilean egin ditun larogei)

agostu, agustu: abuztua

"Larogetabost ein doas agostun" (Larogeita bost egin ditut abuztuan)

bagile

disienbre

enero: urtarrila

febrero: zezeila

julio: garagarrila

junio: bagila

marti: martia, martxo

maitze, mayatza, mayetza: maiatza

"Emeretzi urte mayetzen einte daus" - (Hemeretzi urte maiatzean eginda dagoz)

nobienbre: zemendia

sesalle: zezeila

setienbre: iraila

urri: urria

10.3. ASTEGUNAK

astelena: astelehena

bariku: barikua, ostirala

domeke: domeka, igandea

"Orre(k) baki se gure aite ba, alau sale ixete san ta domekatan, domeka goixetan, sapatuen be bear ein ber ixete san ta domeka goixetan, orrek biek yaten yean" - (Horrek badaki ze gure aita ba, halako zalea izaten zen eta domeketan, domeka goizetan, zapatuan ere behar egin behar izaten zen eta domeka goizetan horiek biek jaten zuten)

eguna: eguna, osteguna

egustena, egustena: eguaztena, asteazkena

ilena: astelehena

"Badakit selan ilena dan" (Badakit zelan astelehena den)

martitzena, martzena: martitzena, asteartea

sapatu: zapatua, larunbata

10.4. DENBORAREN BANAKETA

aldi: aldia

aste: astea

"Oin aste bete etor san" - (Orain aste bete etorri zen)

"Asten iru biderres egoten da ori bendejeas" - (Astean hiru biderrez egoten da hori bendejeagaz)

astegune: asteguna

asti: astia

"Esteke astirik" - (Ez daukate astirik)

ateaskena: astegoiena, asteburua

bart

bespere: bezpera

denporade: denboraldia

denpore: denbora

"Niri alabek denporarik galdu barik urreko egunen yon Bilbora, ta ekarri yesten sera, sinte" - (Niri alabak denborarik galdu barik hurrengo egunean joan Bilbora, eta ekarri zidan zera, zinta)

egune: eguna

"Egun dustin layetan total ser eiteko? bosteun metro iteko" - (Egun osoan laiatzen eta zer egiteko? bostehun metro egiteko)

"Egunokas esta etorri" - (Egunokaz ez da etorri)

"Ai gaur euki dot nik egun andi! gaur egun andi dekot! a, se posi(k) naun!" - (Ai gaur eduki dut nik egun handia! gaur egun handia daukat! a, ze pozik nagoen!)

gerra denpore

"Artu emeti talegatxu te, ori gerra denporan ixete san" - (Hartu hemendik zakutxoa eta, hori gerra sasoiaren izaten zen)

gerraoste: gerra ostea

gose sasoya

ile: hila

"Datorren ilean etorko da sarriau" - (Datorren hilean etorriko da sarriago)

"Datorren ilen, ukusikosu jente asko basabiltzes, e, sera ebai, melokotoyak eta sagarrak, eta okeranak eta orrek gustik podaten" - (Datorren hilean, ikusiko duzu jente asko bazabiltza, zera ebaki, milikotak eta sagarrak, eta okeranak eta horiek guztiak inausten)

"Orrek ilek erdera ostantzen asteko egunek euskera" (Hil horiek erderaz osterantzean asteko egunak euskaraz)

ilebete: hilabetea

LEIOAKO HIZTEGIA

"Angeru angeru, e, iru ilebete, or esaten da, enei! selau angeru ederra! se denpora deko? ta iru ilebete edo sei ilebete edo" - (Aingerua, aingerua, hiru hilabete, hor esaten da, ene! zelako aingeru ederras! ze denbora dauka? eta hiru hilabete edo sei hilabete edo)

minutu

momentue: mementua

ordu erdi: ordu erdia

ordu: ordua

"Akabuko ordun ba galtzu erosi iten san" - (Azken orduan ba galtzua erosi egiten zen)

"Emoten deudes berreun, e, orduko" - (Ematen dituzte berrehun, orduko)

sasoya, sasoi: sasoa

"Nire sasoyan bere bai, nik alabe sarrena etzen euki nendun" - (Nire sasoiaren ere bai, nik alaba zaharrena etxean eduki nuen)

"Ya gastañak erreta yateko sasoya da es piperrak" (Honezkero gaztainak erreta jateko sasoa da ez piperrak)

urte: urtea

"Ondino denpora andirik esta, urte askorik esta, oin esta entzuten" - (Oraindino denbora handirik ez da, urte askorik ez da, orain ez da entzuten)

"Nik dekoas oin ba, irurogeta amalau urte" - (Nik dauzkat orain ba, hirurogeita hamalau urte)

10.5. EGUNAREN BANAKETA

arrasti: arrastia, arratsaldea

"Egune, ein egune, ein, e, goxen ein, ta urreko goxerarten, ta arrastin eiten badosu, urreko arrastirarten" - (Eguna, egin eguna, egin, goizean egin, eta hurrengo goizera arte, eta arrastian egiten baduzu, hurrengo arrastira arte)

atzalde: arratsaldea

egurdate: eguerdiarte

egurdi: eguerdia

"Ori Artea daun lekun, e, basok eseten siren, orra bota, or auki te gero ekarri egurdi etzera ta lastok emon edo olau, a, bedar saskel batzuk eta aurrera" - (Artea hori dagoen lekuan, basoak izaten ziren, horra bota, hor eduki eta gero ekarri eguerdian etxera eta lastoak eman edo holako, belar saskel batzuk eta aurrera)

gaue: gaua

"Gauetan etorten da, ori etorten da loye asko daun lekun" - (Gauetan etortzen da, hori etortzen da lohia asko dagoen lekuan)

"Klaro! oin dices igual otamar urte talorik iten estala baye aitaman denporan goxen eta gauen talo" (Jakina! orain dira beharbada hogeita hamar urte talorik egiten ez dela baina gurasoan sasoiaren goizean eta gauean taloa)

goixe, goxe: goiza

"Or, e ba, goxen, a, goxeko bostatan edo yon solora, eta ebai gero ya ba, beste bear batzuk eiteko" - (Hor, ba, goizean, goizeko bostetan edo joan sorora, eta ebai gero ja ba, beste bear batzuk egiteko)

ilunde: ilundea

10.6. EGUNEN ARTEKO ERLAZIOAK

aranegun, arenegun: herenegun

atzo: atzo

"Atzorik ona estot ikusi" - (Atzorik hona ez dut ikusi)

bier: bihar

"Oba da bier etor saitesen" - (Hobe da bihar etor zaitezten)

etzi

gaur: gaur

"Gaur goixen egonas Mungien" - (Gaur goizean egon naiz Mungian)

"Au ixen da gaurko" - (Hau izan da gaurko)

11. METEREOLOGIA

Meteoreologiari buruzko atal hau honako azpiataletan banatuta aurkezten dugu: eguraldia, euria, ekaitza, elurra-leia, haizea, lainoa-hedoia eta tenperatura.

11.1. EGURALDIA

aro: aroa

"Layakas bere, aro ona oten basan, kuite sun soye andiau, ta aro txarra oten basan ba, soye txikerrau" - (Laiakaz ere, aro hona egoten bazen, hartzen zenuen zohia)

LEIOAKO HIZTEGIA

handiagoa, eta aro txarra egoten bazen ba, zohia txikerragoa)

denpore: eguraldia

"Ingo baleuke denpora ona" - (Egingo balu eguraldi ona)

"Egon kanpon beyek eta murruseka ta, ya altera beyek, e, denpore, e, alan kanbio dakarrenen, kale kalen dausen en, gortan es, e?" - (Egon kanpoan behiak eta murrusaka eta, ja artega behiak, eguraldia, halan aldaketa dakarrenean, kale-kalean dagozenean, kortan ez, e?)

"Denpora txarra inarrik basora yongo gare" (Eguraldi txarra eginagatik basora joango gara)

11.2. EURIA

afrontu: afrontua

"Afrontu ba datorrenen kasureko, ori euries ta axe sarratu te itzeleko saparradak eta sera, ordun, afrontu ordun, se paraten da itxoso baltza baltza baltzen eta etorten da itzeleko, e, golpegas etorten da" - (Afrontua ba datorrenean kasurako, hori euriagaz eta haize zarratua eta itzeleko zaparradak eta zera, orduan, afrontua orduan, ze paratzen da itsaso beltz-beltz beltzean eta etortzen da itzeleko, kolpeagaz etortzen da)

asaro

"Asaro ona dau" - (Azaro ona dago)

aterrunea: aterrunea

base: basa, lokatza, lupetza

euri ugerra: euri ugerra

euri, auri: euria

saparrade: zaparrada

11.3. EKAITZA

denporala: denboralea

"Seoser denporala dator se aitu selan dabiltesen beyek, esteude egon gure, eta yan berren alkar be beyek, ta igerta yean denpore, ta, ilunderako etorte san denporala" - (Zer edo zer denboralea dator ze aditu zelan dabilzan behiak, ez dute egon gura, eta jan beharrean elkar ere behiak, eta igartzen zuten eguraldia, eta, ilunderako etortzen zen denboralea)

truboya, trugoya: trumoia

"Atxine kontus ibilte san esneas trugoi iten bayeun" - (Antzina kontuz ibiltzen zen esneagaz trumoia eiten bazuen)

11.4. ELURRA-LEIA

abasuse: abazuza

edurre: elurra

"Edurre da ona lurrerako" - (Elurra da ona lurrerako)

freskure: ihintza

kaskaragarra: kazkabarra, abazuza, txingorra

"Goso ixeten dire bai, ainbet euki du aurten piperra bai, tomate bapes, tomate ensegida, aik kaskaragarrak fastidia yen ta goixerik gabera usteldu san dana" (Gozo izaten dira bai, hainbat eduki dugu aurten piperra bai, tomate bate ere ez, tomate behingoan, kazkabarra haiek hondatu zuten eta goizetik gauera usteldu zen dena)

leye: leia, izotza

"Oin atxineko lau besigurik eta estau, es txitxarrik es, se atxine txitxarro, oin sasoi ontan asi, ta leye ite yeunen txitxarro baltza baltza baltzak ote sien, bertakok, ta oin jainko taki nongo tiren" - (Orain antzinako lako besegurik eta ez dago, ez txitxarrik ez, ze antxina txitxarro, orain sasoi honetan hasi, eta leia egiten zuenean txitxarro beltz-beltz-beltzak egoten ziren, bertakoak, eta orain Jainkoak daki nongoak diren)

11.5. HAIZEA

axe: haizea

"Ori gorri gorri gorri, axena ixetan da geyau" - (Gorri-gorri-gorri hori, haizearena izaten da gehiago)

axe epela: haize epela

axe igerra, axe ierra: haize igerra

"Urriten beti egoten da au axe igerra" - (Urrian beti egoten da haize iger hau)

itxosoko axe: itsas haizea

norteko axe: ipar haizea

"Norteko da ba, txarrena, se surreko, ya surreko da bero" - (Iparrekoa da ba,

LEIOAKO HIZTEGIA

txarrena, ze hegokoa, ja hegokoa da beroa)

surreko axe

"Gaur denpora ona ingo deu, se surreko axe dau" - (Gaur eguraldi ona egingo du, ze hegoko haizea dago)

11.6. LAINOA-HEDOIA

11.7. TENPERATURA

bero: beroa

"Ba ganadu ordun badekosu kanpon, bueno alkar yan berren, ta saltuke dana, eta akabun barrure sartu ber, beroas" - (Ba ganadua orduan badaukazu kanpoan, beno elkar jan beharrean, eta saltoka dena, eta azkenean barrura sartu behar, beroagaz)

fresko: freskoa

"Fresko badau beti dau gosoau berotan baño" - (Fresko badago beti dago gozoago berotan baino)

otza: hotza

sargori: sargoria

"Bero andi espadau esaten du, guk esaten du en jeneral bero andi espadau esaten du, selau denpora sargori dau edo eguski espadau olan ilun serako badau selau denpora sargori deku, egunokas on dan modun, sargori" (Bero handia ez badago esaten dugu, guk esaten dugu gehienetan bero handia ez badago esate dugu, zelako eguraldi sargori dago edo eguzki ez badago holan ilun zerekoa badago zelako eguraldi sargori daukagu, egunokaz egon den moduan, sargoria)

sikete: sikatea

umedade: hezetasuna

"Nik estait nik entzuten dot ese umedade dekolakon dala ori axetan euki ber diela txorixok eta eskegite" - (Nik ez dakit nik entzuten dut eze hezetasuna daukalako dela hori haizetan eduki behar direla txorizoak eta eskegita)

12. ZERUA-ASTROAK

Atal honetan zerua eta astroei buruzko berbak batzen ditugu.

argitasune: argitasuna

eguski: eguzkia

"Eguski badau, eguskik emoten dotzeneko il eiten die" - (Eguzkia badago, eguzkiak ematen dieneko hil egiten dira)

"Eta ños, e, yakin igual, ta ein guardi te egon, eta atxurreas atara, ta ikusi ordureko eguskik ilten ditu" - (Eta inoiz, yakin beharbada, eta egin guardia eta egon, eta aitzurragaz atera, eta ikusi ordurako eguzkiak hiltzen ditu) [Satorrak eguzkiak hiltzen ei ditu]

"Eguski artzen dauna da bakixu eguski apropos artzen dauna ta eguskik edo koi dau edo eguskiten dau, kendu saites orti se eguskiten ta eguskik min eingo tzu igual" (Eguzkia hartzen duen da badakizu eguzkia apropos hartzen duena eta eguzkiak edo hartu du edo eguzkitan dago, ken zaitez hortik ze eguzkitan eta eguzkiak min egingo dizu beharbada)

gerispe: gerizpea

ilbera: ilbehera (adi.)

ilbere: ilbehera

"Eineskeronen ilberan, ba konserbate sendun ondo" - (Eginez gero ilbeheran, ba kontserbatzen zenuen ondo)

"Geu pere oin lantzen bein eiten du, kasureko, erein ber badosu edo piperra edo olan, ene! ba ilbere da onerik onera ta gero irergi bete onerik onera, ortan aputxu et aitude san" - (Geuk ere orain lantzean behin egiten dugu, kasurako, erein behar baduzu edo piperra edo holan, ene! ba ilbehera da honetatik honetara eta gero iretargi betea honetatik honetara, horretan apurtxo bat aditzen zen)

ilgora: ilgora, hau aditzondoa da

ilgore: ilgora

irergi bete

iretargi: iretargia

iretargi bete: iretargi betea

"Iretargi bete daunen ur bixi taus eta ordun estotzu artuten gatza" - (Iretargi betea dagoenean ur biziak dagoz eta orduan ez dizu hartzen gatza)

iretargi oso

LEIOAKO HIZTEGIA

seru: zerua

"Gaur denpora ona ingo deu se aitu ara selau seru polite daun" - (Gaur eguraldi ona egingo du ze aditu hara zelako zeru polita dagoen)

ur bixik: ur biziak

13. INGURUNEA

Inguruneari buruzko berbak aurkezten dira atal honetan. Azpi-atalak herria, eraikinak, mendia, lurra-soroa, bideak, errekak eta itsasoa izango dira.

13.1. HERRIA

auso: auzoa

barrio: auzoa

"Peruri da emeko beko, orko, emeko alderdiko, berau, Altamiretik ona" - (Peruri da hemengo behekoa, horkoa, hemengo alderdikoa, berau, Altamiratik hona)

"Sarriena da ori, ta Sansoena da ni bixi nintzen lekuko" - (Sarriena da hori, eta Sansoena da ni bizi nintzen lekukoa)

erri: herria

"Orrek erri beteko tires" - (Horiek herri batekoak dira)

"Emen, e, estot entzun neuk emen, e, errin" - (Hemen, ez dut entzun neuk hemen, herrian)

kale, kalle: kalea

plase: plaza

"Erriko plase or dau" (Herriko plaza hor dago)

13.2. ERAIKINAK

aldea: baserria

"Esta yaten lengo modun se emen aldean ixete san indabe" (Ez da jaten lehengo moduan ze hemen baserrian izaten zen indaba)

aldetze

ayuntamientu, ayuntamiento, ayuntamintu

"Nok esan tzu, e? ayuntamentukok?" - (Nork esan dizu, e? udalekoek?)

"Ayuntamentu, baye ayuntamentu txikerrao, eta ayuntamentun o san, albon, eskole bere, errimata, ayuntamentun, eta kanposantu bere bertan, oin kanposantu andiao, onao on san len, eta oin barrurao ta ya andiao" - (Udaletxea, baina udaletxea txikerragoa, eta udaletxean egon zen, alboan, eskola ere, dautsola, udaletxean, eta kanposantua ere bertan, orain kanposantu handiagoa, honago egon zen lehen, eta orain barrurago eta ja handiagoa)

"Ayuntamintun konsejala ixen da" - (Udaletxean zinegotzia izan da)

barra: taberna

baserri: baserria

"Nik baserrin beyekas estot bearrik ein, esta? se emen beti egoten siren idik" - (Nik baserrian behiakaz ez dut beharrik egin, ezta? ze hemen beti egoten ziren idiak)

"Errekalde ixen da baserri bet or, Leyoako baserri bet" - (Errekalde izan da baserri bat hor, Leioako baserri bat)

botike

"Bai seoser, beti botiken saltzeuean, e, agoko minerako" - (Bai zer edo zer, beti botikan saltzen zuten, ahoko minerako)

dende: denda

drogeri

eskole: eskola

estanku

"Ta yoten giñen estanku betera bat, Udondoko estankure bat, ta beste bat emen Elexalden egote san, aiteri tabako ekarteko" - (Eta joaten ginen estanko batera bat, Udondoko estankora bat, eta beste bat hemen Eleizaldean egoten zen, aitari tabakoa ekartzeko)

etzealde, etzalde: baserria

"Bueno emen, e, bakixu ba beti etzealden, a, etzealdetan beti ba, ba frute beti egon da, beti egon da ba, porejenplo, oingo moduen asko iminte es" - (Beno hemen, badakizu ba beti baserrian, baserrietan beti ba, ba fruta beti egon da, beti egon da ba, esate baterako, oraingo moduan asko ipinita ez)

"An daus, e, etzealde bi baño estaus an" - (Han dagoz, baserri bi baino ez dagoz han)

"An dau etzealde, orti gora yongo basentikes preguntaten baosu Bustamantene non daun, Ganak non bixi dien esango tzu

LEIOAKO HIZTEGIA

edosinek" - (Han dago baserria, hortik gora joango bazina itauntzen baduzu Bustamantene non dagoen, Ganatarrak non bizi diren esango dizu edozeinek)

"An daus etzalde bi" (Han dagoz baserri bi)

"Ortiko da emeko, etzalden bixi dana" (Hortikoa da hemengoa, baserrian bizi dena)

"Gure ixen san akaburengo, gure ixen san Santzone, Larrabarri, Bidortza, Atxabaleta, Liboas, ainbest etzalde bota yen" (Gure izan zen azkena, gurea izan zen Santzone, Larrabarri, Bidortza, Atxabaleta, Liboa, hainbat baserri bota zuten)

fabrike

"Gu saspia aiste esen gares, ta inos aite fabriken bear einbako esen da" - (Gu zazpi ahizta izan gara, eta inoiz aita lantokian behar eginbako izan da)

farmasi: farmazia

"Farmasin saltzen deude" - (Farmazian saltzen dute)

karniseri: harategia

"Umetxu asi sanen ibiltzen ta ori ba, ala bajatu saites karniserire ta, amairu urteas karniserin sartu nitzen ni" - (Umetxoa hasi zenean ibiltzen eta hori ba, hara baja zaitetz harategira eta, hamahiru urtegaz harategian sartu nintzen ni)

karsela: kartzela

labadero

labrantze: baserria

leku: lekua

"Egon gara biok leku beten" - (Egon gara biok leku baten)

libreri

matadero: hiltegia

"Atxine esan mataderora eroten ganadu makal ote sana" - (Antzina ez zen hiltegia eroaten ganadua makal egoten zena)

palasio: jauregia

panaderi: okindegia

"Gero karra ostabe beste panaderi betera" - (Gero karra osterara ere beste okindegi batera)

pasteleri

pelukeri: ile apaindegia

pisu: solairua

"Bai, bai, eskole ego san a bere, an eskole ego san, an, e, oin, e, telefono daun paren? ba antxe ego san etze andi bet, pisu biko

ixe san, bai bean egon siren mutilek eta neskak" - (Bai, bai, eskola egon zen hura ere, han eskola egon zen, han, orain, telefonoa dagoen parean? ba hantxe egon zen etxe handi bat, solairu bikoa izan zen, baina behean egon ziren mutilak eta neskak)

probaderu: probalekua

serbesere

taberne: taberna

"Elexe daun lekun, or esan egon besterik, etzetxu bet, taberne, eta estanku" - (Eliza dagoen lekuan, hor ez zen egon besterik, etxetxo bat, taberna, eta estankoa)

txabole: txabola

"Eskegite dekot nik an ondinokarren txabolan" - (Eskegita daukat nik han oraindinokarren txabolan)

yayotze: jaiotetxea

"An ni nasen, e, yayotzeko, an ure asko dau, baye etzen eguno beres, beti baldekas ekar ber etzera" - (Han ni naizen, jaiotetzekoa, han ura asko dago, baina etxean egundo ere ez, beti baldeakaz ekarri behar etxera)

13.3. MENDIA

abaro

"Bai ointxe sartu da orra abarora" - (Bai oraintxe sartu da horra abarora)

aldaspera: aldats behera (adb.)

aldatza: aldatsa

altakurre: altakurra

arri: harria

"Emen arri da ba, are antzeko" - (Hemen harria da ba, harea antzekoa)

"Seoser bear, okeleas eiten deude, ta selan a okele, usteldu an arrin aspin, desaparesiten dire" - (Zer edo zer behar, okelagaz egiten dute, eta zelan okela hura, usteldu han harriaren azpian, desagertzen dira)

asala: lur azala

"Base asko egoten basan, ointxe dau asal ona" - (Basa asko egoten bazen, oraintxe dago azal ona)

baso: basoa

"Ortarako euki ber dosu, baso andi bet eukiteko eurek, eta baso ba, ixi ber dosu seure dana, ese ni enas yongo surera ta onena ta bestean, ta besten solara enas

LEIOAKO HIZTEGIA

yongo ni, e, sera iten" - (Horretarako eduki behar duzu, baso handi bat edukitzeko eurak, eta basoa ba, itxi behar duzu zeurea dena, ezen ni ez naiz joango zurerara eta honena eta besteana, eta besten sorora ez naiz joango ni, zera egiten)

basterra, bastarra: bazterra

"Kotxe etor danen, neure buru bastarrera bota ber ixen dot" (Kotxea etorri denean, neure burua bazterrera bota behar izan dut)

espalde: malda

mendi: mendia

"Butroire orti, e, serati, Askartzati, Askartzati menditeti, ara, Butroire urtetan, eta Txistoerrotara, kaminos kaminos, bai Txistoerrotara, bai an Akarlandan, ya mendin sartu, t'urteten gendun ya Laurotara, Txistoerrotara" - (Butroera hortik, zeretik, Askartzatik, Askartzatik mendietatik, hara, Butroera irteten, eta Txistoerrotara, bidez bide, bai Txistoerrotara, bai han Akarlandan, mendian sartu, eta irteten genuen Laurotara, Txistoerrotara)

solo: soroa

"Ori ona ixeta san solon bere, ondo erreta" - (Hori ona izaten zen soroan ere, ondo erreta)

solo bastarra

"Bai mamukiok etzen eukite gendusen beti, mamukiok, e, solon, solo bastarren iminte" - (Bai mamukioak etxean edukitzen genituen beti, mamukioak, soroan, soro bazterrean ipinita)

13.4. LURRA-SOROA

arri gorri

arlo: arloa

arte lurre

"Arte lurre be bai, arte lurre be eseten da, gogorra bear eiteko, bai gero kosetxe koiteko onak" - (Arte-lurra ere bai, arte-lurra ere izaten da, gogorra behar egiteko, baina gero uzta hartzeko onak)

bustine: buztina

"Arik bestek, orrek beste landak, orrek, e, dires ya bustin gitxiaukok, askos gitxiao, orrek, e, kalise deuke aspin" - (Beste haiek, beste landa horiek, horiek, dira ja buztin

gutxiagokoak, askoz gutxiago, horiek, kaliza daukate azpian)

karkabe: karkaba

kayuela arri: kaiula harria

kayuela lurre

"Kayuele, kayuela lurre eseten da, aspin arri, arri kayuela" - (Kaiuela, kaiuela lurra izaten da, azpian harria, harri kaiuela)

kayuele: kaiula

"Kayuele fine da, bedarra be finao eseten da kayuelatan bustinen baño" - (Kaiuela fina da, belarra ere finago izaten da kaiueletan buztinean baino)

landamine: landamina

"Labrabako es, igual bedarra ebaite, uden igual, e, ebai bedarra, ta gabonatan ostabere urteten deu, t'ori da landamine" (Landubakoa ez, beharbada ebakita, udan beharbada, ebaki belarra, eta gabonetan ostera ere irteten du, eta hori da landamina)

lande: landa

lantzarra: lantzarra

"Etzen estus uki baye, sera, lantzarrak eta yateko, artegi etorte yakon" - (Etxean ez ditugu eduki baina, zera, lantzarrak eta jateko, artesia etortzen zitzaion)

luame

"Bai, lurrek luamak eta, emen porejemplo au, espalde dusti da, sera, bustine" - (Bai, lurrak luamak eta, hemen esate baterako hau, malda osoa da, zera, buztina)

"Luama esaten da, ba, e, lur fasile, sakonere andi dekona, luama" - (Luama esaten da, lur erraza, sakonera handia daukana, luama)

lurre: lurra

"Lur gitxi euki gendun" - (Lur gutxi eduki genuen)

mune: muna

ortu: ortua

solo: soroa

terreno: lur saila

13.5. BIDEAK

bide: bidea

"Guk naiko kanta iten gendun biden, amairu edo amalau lagun yoten gintzesen emeti Asure" - (Guk nahiko kanta egiten genuen

LEIOAKO HIZTEGIA

bidean, hamahiru edo hamalau lagun joaten ginen hemendik Asuara)

estarte: estrata

gurpide: gurdibidea

"Ordun esan oten alau, e, karreterarik, e? ordun, e, bide gurpide eon san bakarrik" - (Orduan ez zen egoten halako, errepiderik, e? orduan, bide gurdibidea egon zen bakarrik)

kamino: kaminoa, errepidea

"Gero kaminok ei yoskuesenen ya kaminotati" - (Gero kaminoak egin zizkigutenean ja kaminoetatik)

kamino eskine

"Bueno yoten gintzesen, Txistoerrotara, onek, e, Jose Luis Bilbao t'onek bixi diren ingirun, albon dau errota bat kamino eskinen, Txistoerrotara ta Eugeni Sarreneko ta ni yoten gintzen asto aurretik artu, ta biok, umek garela ondinokarren, e? se abastosekok ibilte siren, ta sorrotxu banaas" - (Beno joaten ginen, Txistoerrotara, hauek, Jose Luis Bilbao eta hauek bizi diren inguruan, alboan dago errota bat kamino bazterrean, Txistoerrotara eta Egeni Zarrenekoa eta ni joaten ginen astoa aurretik hartu, eta biok, umeak gareka oraindinokarren, e? ze abastosekoak ibiltzen ziren, eta zorrotxo banagaz)

karretere

"Undo au da, au Sabino Arana, au beko karretere da, sera, Sabino Aranako, e, metrora yoten garesela, ori da Sabino Arana, Undoko" - (Udondo hau da, hau Sabino Arana, beheko errepide hau da, zera, Sabino Aranakoa, metrora joaten garela, hori da Sabino Arana, Udondokoa)

kurtze

"Emen asi kurtzen eta Leyoara on siren etze bi" (Hemen hasi gurutzean eta Leioara egon ziren etxe bi)

sulo: zuloa

13.6. ERREKAK

erreke: erreka

"Atxineko errekek erropa garbitako ote siren" (Antzinako errekek arropa garbitzeko egoten ziren)

iturri: iturria

"Iturrire yon dire ure bile" - (Iturrira joan dira ura bila)

manantiala

patine: patina

"Guk euki du patine, etzeaurren" - (Guk eduki dugu patina, etxe aurrean)

poso: putzua, osina

subi: zubia

"Berantza ta eskoatara subi be tau oin inte barri, len egurresko subi bet oten san" - (Beherantza eta eskoitara zubi bat dago orain eginda berria, lehen egurrezko zubi bat egoten zen)

"Banator Portalteti neure katxarro sarrakas eta pasa subi eta an" (Banator Portugaletetik neure katxarro zaharrakaz eta pasatu zubia eta han)

ubide

13.7. ITSASOA

itxoso: itsasoa

playe

14. LANDARERIA

Landareria alorreko berbak ondoko azpi-ataletan banatuta aurkezten ditugu: arbolak, basa-landareak, ortuariak, fruituak, garia, artoa, belarra-zekaleak, landareen atalak, eta azkenik, jaso ditugun berba konposatuakaz, gainerakoak.

14.1. ARBOLAK

arbole: arbola

"Arbolarik parajeenekora yoten dala arime esate yean" - (Arbolarik parajeenekora joaten dela arima esaten zuten)

gastañe: gaztaina

"Ba ostantzen neuk, e, guren emen, Sanantoniora biden yoten gintzesen gastañak kuiten, Sanantonio bide ote san an Bulunburun goyen eote siren gastañak eta yoten gintzen gastañak kuiten baya neuk etzen estot euki" - (Ba osterantzean neuk, gurean hemen, San Antoniora bidean joaten ginen gaztainak hartzen, San Antonio bidea egoten zen han Bulunburun)

LEIOAKO HIZTEGIA

goian egoten ziren gaztainak eta joaten ginen gaztainak hartzen baina neuk etxean ez dut eduki)

"Sanantoniora biden oten sien ta an, oin esta denpora asko, urte asko estire egon gintzesan egun beten ta batu gendusen ainbet an gastañak" - (San Antoniora bidean egoten ziren eta han, orain ez da denbora asko, urte asko ez dira egon ginen egun baten eta batu genituen hainbat han gaztainak)

intxurre: intxaurrea

lexarra: lizarra

okalitu: eukaliptua

"Guren, e, eskuturreko portalen, ese ona albora basos etorten da axe bat, apurtu iten dotzu, aurpegi bere, or dekot okalitu andi bet nik, eta okalitu ibiltzen da pla-pla, pla-pla! eta axe! ifernuko barrabasa lau axe" - (Gurean, izkukurako atarian, ezen hona albora bazoaz etortzen da haizea, apurtu egiten dizu, aurpegia ere, hor daukat eukaliptu handi bat nik, eta eukaliptua ibiltzen da pla-pla, pla-pla! eta haizea! infernuko barrabasa lako haizea)

pinu: pinua

"Eurek ibilte siren idikes, ordun Akarlanda esaten deutzena, bakixu orti pinuk, e, ebai, eta pinuk preparate esan, eta pinuk bajaten idikes" - (Eurak ibiltzen ziren idiakaz, orduan Akarlanda esaten diotena, badakizu hortik pinuak, ebaki, eta pinuak prestatzen zituzten, eta pinuak bajatzen idiakaz)

san jua lexarra

"San Juan egune, sera, parroikiko santu esete sales, sera, selan geitzen dako orreri, etzen euki du ori arbole, san jua lexarra, oin bere an ongo da" - (San Juan eguna, zera, parrokiako santua izaten zenez, zera, zelan deitzen zaio horri, etxean eduki dugu arbola hori, san jua leizarra, orain ere han egongo da)

txopo: txopoa, makala

14.2. BASA LANDAREAK

arbusto

asune: asuna

batana: batana

"Batana, esnera botaten gendun lantzen beinen, amak botate yen" (Batana, esnera botatzen genuen lantzean behin, amak botatzen zuen)

berro: berroa

elorrantza: elorrantza

"Elorrantzak pintxo tire" - (Elorrantzak arantzak dira)

erramu: erramua

"Bedeinketu eite yoskun aitek solo, eta erramuk imini" - (Bedeinkatu egiten zigun aitak soroa, eta erramuak ipini)

giñarre: ginarrea

ire, ide: ira

"Irekas errete san, irek ekarte siren txarri il baño lelau" Irakaz erretzen zen, irak ekartzen ziren txerria hil baino lehenago)

itzo matza

"Itzo matza ixete san beste bat, sulotxu bet aukiteun eperditi ak, eta sigarroas emon sue areri, eta ain seraas errete san a" - (Itzo mahatsa izaten zen beste bat, zulotxo bat edukitzen zuen ipurdian hark, eta zigarroagaz eman sua hari, eta haren zeragaz erretzen zen hura)

kañabele, kañubele: kanabera

"Guk kañabele, se kañabele aukiten gendun asko" - (Guk kanabera, ze kanabera edukitzen genuen asko)

"Gero nire gixonak yoten deu kañabela bat, oin ein deu ori, sera, erakutziko tzut selao kañabela dan" - (Gero nire gizonak jotzen du kanabera bat, orain egun du hori, zera, erakutsiko dizut zelako kanabera den)

kardu latza: kardu latza

"Kardu latza pintxodune da" - (Kardu latza arantzaduna da)

kardu: kardua

kuku bedarra

mamukio: mamukioa

"Mamukio, makine bat ori bere, enei! ori ba egosi, egosite, a bere egosite aparta, eta epeltxu egote sanen bota orio txorrotada on bat eta, axek kentzeko ta se, axetu ite san beye, eta gero emon a, ta gero garrotada batzuk" - (Mamukioa, makina bat hori ere, ene! hori ere egosi, egosita, hura ere egosita apartatu, eta epeltxu egoten zenean bota olio txorrotada on bat eta, haizeak kentzeko eta ze, haizetu egiten zen behia, eta gero eman hura, eta gero kolpe batzuk)

LEIOAKO HIZTEGIA

"Mamukiok, e, beyek, e, ote sirenen makal edo mamukion ure emote yaken, egosi mamukio, otzitu te ure emote yaken" - (Mamukioa, behiak, egoten zirenean makal edo mamukioaren ura ematen zitzaien, egosi mamukioa, hoztu eta ura ematen zitzaien)

mantzanille, mansanille: mantzanila, kamamila

"Mantzanille orti Martutik? ortik eite san barbaridede, unibersidede oin dan lekutik eta, eta batze gendun mantzanille, eta gero iminte gendun, e, kamaran gerispetan, ixerak edo, seratan, eta siketan sienen gero, boltzatxuten" - (Kamamila hortik Martutik? hortik egiten zen barbaridade, unibertsitate orain den lekutik eta, eta batzen genuen kamamila, eta gero ipintzen genuen, kamaran gerispetan, izarak edo, zeretan, eta sikatzen zirenean gero, poltsatxotan)

mimena: mimena

"Mimenak gause askotarako usate siren, sera, kañabelak ebaite sirenen, mimenakas amarra, ta pilotan imini, orrek sabaldute yausi estitesen edo". (Mimenak gauza askotarako erabiltzen ziren, zera, kanaberak ebakitzen zirenean, mimenakaz amarra, eta pilotan ipini, horiek zabaltzen jaus ez ditezan edo)

oreganu

otabedarra

"Asikieran guk iten gendun basora yon eta otabedarra ebai eta siketan danen satik in otabedarrak" (Hasikieran guk egiten genuen basora joan eta otabelarra ebaki eta sikatzen denean zatiak egin otabelarrak)

ote: otea

"Ote bai, ote, aspiterako beyentzak" - (Otea bai, otea, azpitarako behientzat)

sanbedarra: zain belarra

"Ba orio epelaas eta onek bedarrak, sanbedarrak, ta aikes ei yeusten, kurtze batzuk, ta sakatu, ta sakatukeran min ba!" - (Ba olio epelagaz eta belar hauek, zain belarrak, eta haiekaz egin zizkidan, gurutze batzuk, eta sakatu, eta sakatukeran min ba!)

sasi: sasia

"Ein ein ber da espabe sasik betatuko deude solo" - (Egin egin behar da ezpabere sasiek beteko dute soroa)

14.4. ORTUARIAK

arto indabe

ase: aza

aselge, asalge: zerba

baba andi

baba txikerra

"Nik ori estot emen esetu, baye, dinoude ori baba txikerra nopera pe yateko, ba imini, a, besperan imini ureas, imini uretan" - (Nik hori ez dut hemen ezagutu, baina, dinote baba txiker hori norberak ere jateko, ba ipini, bezperan ipini uragaz, ipini uretan)

babe: baba

"Babak oten siren andik eta txikerrak" - (Babak egoten ziren handiak eta txikerrak)

bañe: leka

berakatza: berakatza

"Berakatza ekar bearren ekar seitusen" - (Berakatza ekarri beharrean ekarri zituen)

"Aiteri inos entzunte dekotzet estait nik batzuk iten espayedan berakatzaas ta estait perejile botate bayetzean eta kasuelan be bai uruneas" (Aitari inoiz entzunda daukakiot ez dakit nik batzuek egiten zuten berakatzagaz eta ez dakit perrexila botatzen zioten eta kazolan ere bai irinagaz)

berako

"Berakok estau emoten broterik" - (Beherakoak ez du ematen ernekatzik)

berako indabe: beherako indaba

erremolatxe: erremolatxa

eskarole: eskarola

gernikese: Gernikako indaba

gorako

"Gorakori imin ber dako palu, palu imin ber dako edo kañabele edo" - (Gorakoari ipini behar zaio makila, makila ipini behar zaio edo kanabera edo)

gorako indabe: gorako indaba

iderra: ilarra

indaba gorri: indaba gorria

indaba suri: indaba zuria

indaba tolosane: indaba tolosana

indabe: indaba

LEIOAKO HIZTEGIA

"Len ba, beti, ba edo arto, arto, indabe, ba, gari, t'orrek jenerok ukite sien" - (Lehen ba, beti, ba edo artoa, artoa, indaba, ba, garia, eta gauza horiek edukitzen ziren)

"Emen ayuntamentuk kentze yoskuen dana, indabe, niri, ekarri, indabe, ayuntamenture, gorri edo suri, eta eskutxu bete pisu, gitxi edo baiko, bota (...) bat, e, amak sakure, ekarri burun eta atzera bota yesten, ayuntamentun on san enpleau betek" - (Hemen usalak kentzen ziguten dena, indaba, niri, ekarri, indaba, udaletxera, gorria edo zuria, eta eskutxo bete pisua, gutxi edo badauka, bota (...) bat, amak zakura, ekarri buruan eta atzera bota zidan, udaletxean egon zen enplegatu batek)

kalabaze: kalabaza

kaspeadu, kaspeade

kinpulle, kinpule, kenpulle: kipula

koniflora, koliflora: azalorea

"Bai koniflora be ote san baye saltzeko gabonetan" - (Bai azalorea ere egoten zen baina saltzeko gabonetan)

letxuge: uraza

nabo: arbia; arbia eta naboa bereizi giten dira

"Galtzu luse eseten san, eta orreas serreas ebai, eta iminten san, a, negun nabokas, imini, porejenplo arrastin imini te gero urreko egunerako, eta nabok, e, otza, negun ba otza, eta galtzu ite yen, a, sertu an, itxite yen, e, suabe suabe" - (Galtzua luzea izaten zen, eta horregaz zerragaz ebaki, eta ipintzen zen, neguan arbiakaz, ipini, esate baterako arrastian ipini eta gero hurrengo egunerako, eta arbiak, hotza, neguan ba hotza, eta galtzua egiten zuten, zertu han, uzten zuten, suabe-suabe)

ortuari: ortuaria

patate: patata

"Patatarako be bai, patata pere selemín baten andi pasiren, ba patata gitxies betatu, txikerra pasien ba patata gíau" - (Patatarako ere bai, patatak ere zelemín baten handiak baziren, ba patata gutxigaz bete, txikerrak baziren ba patata gehiago)

perejile: perrexila

"Atxine gure amomak esate yen perejile emon ber yakela se ilte sien, dosenas ilte sien" - (Antzina gure amamak esaten zuen

perrexila eman behar zaiela ze hiltzen ziren, dozenaz hiltzen ziren)

"Perejile emon ber dotzete, se bueno estaus tenple oneas" - (Perrexila eman behar diet, ze beno es dagoz tenple onagaz)

piperra: piperra

"Nik aurtengo patatak nik erainte egon dire ta artuko piperrak nik iminte egon dire" - (Nik aurtengo patatak nik ereinda egon dira eta hartuko piperrak nik ipinita egon dira)

piper siku

porru: porrua

"Ba daus porruk iminte an, oin dau salla bat iminte" - (Badagoz porruak ipinita han, orain dago sail bat ipinita)

senaori: azenaoria

tolosane

"Tolosane ta ori gernikese baño estot auki baye len bai, len beti" - (Tolosarra eta gernikar hori baino ez dut eduki baina lehen bai, lehen beti)

tomate: tomatea

"Ortureko txarra da, se ortun letxuge imini, edo tomate imini edo, piperra imini, beti dau urtetan" - (Orturako txarra da, ze ortuan letxuga ipini, edo tomatea ipini edo, piperra ipini, beti dago irteten)

"Ba ta autze botateko tomateri te" - (Ba eta hautsa botatzeko tomateei eta)

txakur ase: txakur aza, garatuta dagoen aza

"Emen ortaríngo esta eoten asko, txakur asak esaten dake" - (Hemen horietaríkoa ez da egoten asko, txakur azak esaten zaie)

"Onek txakur asak, errepollobakok, txakur asak, olau sendok" - (Txakur aza hauek, burubakoak, txakur azak, holako sendoak)

udebarriko ase

"Negin koniflore, ase, eta udebarrin, e, udebarriko asak, porruk, ta olau jenerok" - (neguan azalorea, aza, eta udaberrian, udaberriko azak, porruak, eta holako gauzak)

14.5. FRUITUAK

anita madari

atxiko: atxikoa, iko mota bat

boskantoi: bost kantoiko sagarra

"Boskantoi dire, alan bos punte balekos les dekos sagarran punték, goyen" - (Bost

LEIOAKO HIZTEGIA

*kantoi dira, halan bost punta baleuzka
legez dauzka sagarraren puntak, goian)*

brebe: breba, iko mota bat

errainete, erreinete: erreineta

frute: fruitua

*"Eta atxineko serak, e, lengo serak, e, lengo
patroyak, esaten siren imini arbol bat oin,
ta igual, e, bost edo sei urten eyen esebe
emoten, eiten sien arbolak andik, gero ba,
bixi be giau iten siren, e? giau iten siren,
oingo, oingo frutek, e, imini te ya bigarren
urterako ta bauke frute, irugarren, ya total
emonta, ta gero orreitarrrik eiten dire, a,
sarrau pere" - (Eta antzinako zerak,
lehengo zerak, lehengo patroiak, izaten
ziren ipini arbol bat orain, eta beharbada,
bost edo sei urtean ez zuen ezer ere
ematen, egiten ziren arbolak handiak, gero
ba, bizi ere gehiago egiten ziren, e?
gehiago egiten ziren, oraingo, oraingo
frutak, ipini eta ja bigarren urterako eta
badaukate fruta, hirugarren, ja guztiz
emanda, eta gero horregatik egiten dira,
zaharragoak ere)*

gabon madari

gastañe: gaztaina

iko: ikoa

*"Ikok eukite gendusen udebarrikok brebak,
eta gero negukok, bueno setienbrekok
ostabe beste tandada bat" - (Ikoak
edukitzen genituen udaberrikoak brebak,
eta gero negukoak, beno iraillekoak oster
ere beste txanda bat)*

iko baltza

iko latza

iko suri: iko zuria

intxurre: intxaurre

kane

*"Kane, berde berde ba ta, ori kane bai, esetu
ot baye guk estu euki" - (Kana, berde-
berde bat da, kana hori bai, ezagutu dut
baina guk ez dugu eduki)*

kerexe, kerixe: gerezia

*"Kerexa pe bai, kerexak itzelak abor etze
atzen oten siren, ori baserri daun lekun" -
(Gereziak ere bai, gereziak itzelak haor
etze atzean egoten ziren, baserri hori
dagoen lekuan)*

kerixa bellegi

klaudia

*"Emen etzealdan klaudia paño estot esetu" -
(Hemen baserrian klaudiak baino ez dut
ezagutu)*

konferentzi madari

kutxillo madari: kutxilo madaria

*"Ontxe be nauk emen iminte dekoasenak, a,
dires, a, konferenzia, ta komizio, dires
geyenak edo, baukoas beste batzu pere,
esta? baye kutxillo madarik, atxine bai,
atxineko kutxillo madarik, ondikarren orti
baukoas orti, e, bate bat iminte" -
(Oraintxe ere neuk hemen ipinita
dauzkadanak, dira, konferenzia eta
komizioa, dira gehienak edo, badauzkat
beste batzuk ere, ezta? baina kutxilo
madariak, antzina bai, antzinako kutxilo
madariak, oraindikarren hortik
badauzkat hortik, baten bat ipinita)*

larrabetzu sagarra

limoya: limoia

madari: madaria

*"Senbet balio deu kilo bat madarik?" -
(Zenbat balio du kilo bat madarik?)*

*"Senbet madari emon dotzus orrek?" (Zenbat
madari eman dizkizu horrek?)*

malluki: mailukia

*"Suk malluki asko yan dosus" (Zuk mailuki
asko jan dituzu)*

matza: mahatsa

*"Nik esetu ot etzen matza txakoline ite yen
aitek" - (Nik ezagutu dut mahatsa txakolina
egiten zuen aitak)*

milikote, melokotoya, milokotoya: milikota

*"Txakoline ite yeden se parra itzelak euki
gendusen, eta frute, sagarra, madarik,
milokotoyak, okeranak, ikok" - (Txakolina
egiten zuten ze parra itzelak eduki
genituen, eta fruta, sagarra, madariak,
milikotak, okaranak, ikoak)*

naranje: laranja

okeran klaudia: okaran klaudia

okerana, okarana: okarana

*"Okeranak emen, a, sera beti, klaudia,
okerana klaudia beti" - (Okeranak hemen,
zera beti, klaudia, okarana klaudia beti)*

sagarra: sagarra

*"Sagarra(k) daus loran" - (Sagarrak dagoz
loran)*

sagar gasa

san juan madari: san juan madaria

san juan sagarra: san juan sagarra

san pedro madari: san pedro madaria

LEIOAKO HIZTEGIA

san pedro sagarra: san pedro sagarra

sidiri madari

"Sidiri madari orrek bellegik, urtzuk ondino dau onenen, e, sidiri madari bet" - (Sidiri madaria beilegi horiek, urtsuak oraindino dago honenean, sidiri madari bat)

siridi

"Emeko betikok, a, siridi esaten san, san jua madarik, gabon madarik, eta ba alan, e, sagarratan urte betek, e, ba t'erraineta pere bai, ori beti, beti ixen da" - (Hemengo betikoak, zidiria esaten zen, san jua madariak, gabon madariak, eta ba halan, sagarretan urte beteak, ba eta errainetak ere bai, hori beti, beti izan da)

tellerune sagarra

"Tellerune sagarrak, e, geitzen siren beste batzuk" - (Teilaruna sagarrak, deitzen ziren beste batzuk)

toleriko

urdine: urdin sagarra

urtebete: urtebete sagarra

14.6. GARIA

buru

"Aurten garik buru txikerra deke" (Aurten gariek buru txikerra daukate)

galautze, galeutze: galautsa

galtzu: galtzua

"Galtzues iteko da ori" - (Galtzuagaz egiteko da hori)

"Emote yeden sentenon ogi baltza baltza baltza, bueno baltzau olan, eta galtzuk eta danak eser bere sartu barik" (Ematen zuten zekalearen ogi beltz-beltz-beltza, beno baltzagoa holan, eta galtzuak eta denak ezer ere zertu barik)

garau: garaua

"Guk emen etzealden estu auki ori, baye, olan kaja bat sulokas, eta maseta bateas yo ta garaue yauste san bera" - (Guk hemen baserrian ez dugu eduki hori, baina, holan kaxa bat zuloakaz, eta mazuto bategaz jo eta garaua jausten zen behera)

gari bixarra: gari bixarra

gari buru: gari burua

gari txole: gari txola

gari: garia

"Makine bat, a, istrinkada, garik yoten, a, portalen, imini arri bet, arri bet imini, olan

arrik imini, eta an yo jente partide bat ekarten, ta akabate sanen, gari! eskatuten ba, bearren ba ordun, sera barrio dusti eite san, alkarreas, barrio dusti bai, lelau etze baten gero besten, ta alan eiten san" - (Makina bat, istrinkada, gariak jotzen, atarian, ipini harri bat, harri bat ipini, holan harriak ipini, eta han jo jende partida bat ekartzen, eta amaitzen zenean, garia! eskatzen ba, beharrea ba orduan, zera auzune guztia egiten zen, elkarregaz, auzune guztia bai, lehenago etxe baten gero bestean, eta halan egiten zen)

"Lurre ba labra, makinetu te bota gari, gari ereiteko lelau lelau, prepara ite san, a, sulfatoas ta kobreas eta gero kareas siketu, ori, e, imini balde baten ereiteko, e, osea, aurrerako itxiteko, ugerra etorri estiakon, ese ugerra esate yakon ordun, eta porejenplo ba ganaduri emoteko berdetan ebaiteko es, berdetan ereiteko, kui balden ta erein te aurrera" - (Lurra ba landu, makinatu eta bota garia, garia ereteko lehenago-lehenago, prestatu egiten zen, sulfatoagaz eta kobreagaz eta gero kareagaz sikatu, hori, ipini balde baten ereiteko, hau da, aurrerako uzteko, ugerra etor ez dakion, ezen ugerra esaten zitzaion orduan, eta esate baterako ba ganaduari emateko berdetan ebakitzeko ez, berdetan ereiteko, hartu baldean eta erein eta aurrera)

"Ori gariri ite yakon, e, artori baño gao" - (Hori gariari egiten zitzaion, artoari baino gehiago)

mete: gari meta

"Gero, a, metak solon, ta gero, igual a, andi beti egoten siren solok, eta gero emen etze ondun, or etze ondun imini, a, meta anditen ta gero metak olan, bero ite yunen sabaldu, ta sarri askotan, gaur, e, gari yo ber da, ta sabaldu metak eta gero igual denpore kanbia ta berorik es" - (Gero, metak soroan, eta gero, beharbada hura, handik behetik egoten ziren soroak, eta gero hemen etxe ondoan, hor etxe ondoan ipini, meta handitan eta gero metak holan, bero egiten zuenean zabaldu, eta sarri askotan, gaur, garia jo behar da, eta zabaldu metak eta gero beharbada eguraldia aldatu eta berorik ez)

pilo: gari piloa

LEIOAKO HIZTEGIA

saye: zahia

"Sayek bero andi konserbateuen" - (Zahiak bero handia kontserbatzen zuen)

"Gari yote sanen urune batera ta saye bestera lotzen da" (Garia jotzen zenean irina batera eta zahia bestera lotzen da)

txole: gari txola, gari eskutada

"Julion ebai, imini olan txola txikitxu beten imini" - (Garagarrilean ebaki, ipini holan txola txikitxo baten ipini)

txontorra: meta txikerra

txorte: gari txola

14.7. ARTOA

artaburu: artaburua

arto berde: arto berdea

arto bixerra: arto bizarra

arto ierra

arto garau

arto kapatxa: arto sapa

arto: artoa

"Gero ba, bota arto, eta asikeran, e, buelta buelta bueltak emon ta gero ordu bi edo ordu bete barru, ba ostabe, beste buelta bat" - (Gero ba, bota artoa, eta hasieran, buelta-buelta-bueltak eman eta gero ordu bi edo ordu bete barru, ba ostera ere, beste buelta bat)

"Len solo osok eraite siren arto ta indabe batera, ta gero indabe kendu, eta gero arto, edo espabere dana ebai, kui idikes gurdin, eron, ekarri etzera, imini etze aurren edo, tejabanan imini, te ba arto batera ta indabe bestera aparta, bai gero, a, orrek bear andi emoten yeuden, bearra, senbegure bearra! eta palun iminten sanak emoten yun giau" - (Lehen soro osoak ereiten ziren arto eta indaba batera, eta gero indaba kendu, eta gero artoa, edo ezpabere dena ebaki, hartu idiakaz gurdian, eroan, ekarri etxera, ipini etxe aurrean edo, tejabanan ipini, eta ba arto batera eta indaba bestera apartatu, bai gero, horiek behar handia ematen zuten, beharra, zenbagura beharra! eta makilan ipintzen zenak ematen zuen gehiago)

"Artok ure asko deko" - (Artoak arto asko dauka)

artosolo: arto soroa

artoyorre: artajorra

burutxe: burutxa

"Burutxe andi, lodi dekona, eta ori morgako arto esaten sana, orrek aukite yeun finao, eta arto bere finao eseten san" - (Burutxa handia, lodia daukana, eta hori morgako artoa izaten zena, horrek eduki zuen finagoa, eta artoa ere finagoa izaten zen)

estena: artoaren sapa kentzeko iltzea

gare: garba, artoaren lorea

"Artok, e, deko, artok, e, punten gare deko, eta ori da lore" - (Artoak, dauka, artoak, puntan gara dauka, eta hori da lorea)

kapatxa: kapatxa, sapa

lasto: lastoa

"Len kendu iten siren, garak kendu ganaduntzeko ta gero lasto, lelau gare ta gero lasto" - (Lehen kendu egiten ziren, garak kendu ganaduarentzat eta gero lastoa, lehenago gara eta gero lastoa)

morgako arto

"Emen, e, nik, e, normalmente, emen, a, nik beti esetu dot arto klase bat, emen, e, morgako esaten san, morgako klase, esete san apur bet olan gorriske, beste baño finao eseten san" - (Hemen, nik, gehienetan, hemen, nik beti ezagutu dut arto mota bat, hemen, morgakoa esaten zen, morgako mota, izaten zen apur bat holan gorrixka, bestea baino finagoa izaten zen)

sape

tronko

"Tronkok ebaiteko, ba ganaduk ya lodi te siketu te eyeden ondo yaten, eta olau, a, txikertu ineskeronen ba, ordun, e, yate yun obeto" - (Enborrak ebakitzeko, ba ganaduak ja lodia eta sikatu eta ez zuten ondo jaten, eta holakoa, txikertu eginez gero ba, orduan, jaten zuen hobeto)

14.8. BELARRA-ZEKALEAK

abea

alfalfe: alfalfa

allorbe: ailorba

"Beti usate san allorbe garies eraiteko, berdetan emoteko ganaduri" - (Beti usatzen zen ailorba gariagaz ereiteko berdetan emateko ganaduari)

"Gari be bai, gari be bero da, allorbe be bai, allorbe be bero da, arto baño beroao" -

LEIOAKO HIZTEGIA

(Garia ere bai, garia ere beroa da, ailorba ere bai, ailorba ere beroa da, artoa baino beroagoa)

aski bedarra

"Aski bedarra, eseten da, olau bedar bat, a, basto antzeko" - (Azki belarra, izaten da, holako belar bat, latz antzekoa)

bayuko

"Gero oten sien, gero bai, gero ba bayuko" - (Gero egoten ziren, gero bai, gero ba bailukoa)

bedar siku: belar sikua

bedarra: belarra

"Ekar du, gurtada bat bedar" - (Ekarri dugu, gurtada bat belar)

errosario bedarra: errosario belarra, soroetako belar parasittoa

"Errosario bedarra, ori oten da bean, errosario baten modun dekos olan iminte" - (Errosario belarra, hori egoten da behean, errosario baten moduan dauzka holan ipinita)

eyen bedarra: aihen ezkerria, soroetako belar parasittoa, lore zuri bat edukitzen du

frantzes: frantzes, frantzes-belar

"Frantzes eraiten san, a, or, e, arto yorratu, or maitzen junion ingirun eraite san, eta gero orrek, martin kuite san frantzes, sekule bedarra ta alfalfe, orrek bie" - (Frantzes ereiten zen, hor, artoa jorratu, hor maiatzaren bagilaren inguruan ereiten zen, eta gero horiek, martian hartzen zen frantzes, sekula belarra eta alfalfa, horiek biak)

frantzes bedarra

ider baltza: ilar beltza

"Ider baltza ori be bedarra da, iderran modun eseten da" - (Ilar beltza hori ere belarra da, ilarraren moduan izaten da)

kabra bedarra

"Ordun lurre pe oin baño garbiao eoten siren, se ordun dana iten san, a ba, eskus, esta oingo modun tratorakas, oin kabra bedarra be baukosu tratorak lau sati ite otzus ba arik lau satik agarra ite otzue, ta ite sales eskus, ba eskus ba, a kabra bedarra kuite ba, aparta iten san, ta lurrek egoten siren askos garbiao" - (Orduan lurrak ere orain baino garbiago egoten ziren, ze orduan dena egiten zen, hura ba, eskuz, ez da oraingo moduan tratorakaz, orain kabra belarra ere badauzkazu

traktorak lau zati egiten dizkizu ba lau zati haiek hartu egiten dizute, eta egiten zenez eskuz, ba eskuz ba, kabra belar hura hartuta ba, apartatu egiten zen, eta lurrak egoten ziren askoz garbiago)

poso bedarra

"Poso bedarra ba kabra bedarra antzeko, ondikarren ba, or urten deude olan" - (Putzu belarra ba kabra belarra antzekoa, oraindikarren ba, hor irten dute holan)

sekule bedarra: sekula belarra

"Emen ba, normalmente, frantzes, frantzes bedarra, ta sekule bedarra" - (Hemen ba, gehienetan, frantzes, frantzes belarra, eta sukula belarra)

tabako bedarra

txomin bedarra: txomin belarra, belar parasittoa

"Txarrena, ni neutzako txarrena ba, txomin bedarra, se txomin bedarra kendu, te ostabere, ta ostabere, ta txomin bedarra oin otzaas desaparesidu iten da, bai gero, udebarrin" - (Txarrena, ni-neuretzat txarrena ba, txomin belarra, ze txomin belarra kendu, eta osterera ere, eta osterera ere, eta txomin belarra orain hotzagaz desagertu egiten da, baina gero, udaberrian)

"Igual txominek urten deu, olau iru lau moltzotxu, eta aititek eite yetzen atara atxurreas, sakon sakon atara dusti, eta lurre ta dusti erre ite yen" (Beharbada txominek irten du, holako hiru-lau moltzotxo, eta aitaitak egiten zien atera aitzurragaz, sakon-sakon atera guztia, eta lurra eta guztia erre egiten zuen)

14.9. LANDAREEN ATALAK

altziki

"Altziki, altziki esaten gintzen se baltze baltzean iminte esen eskuk, eta gausek iminte siren baye altziki esaten gintzen guk, altziki kendu te alan ein kadereas, altziki kendu te urtete yean gastañak gero" - (Kirikioa, kirikioa esaten genion ze baltz-baltzean ipintzen zituen eskuak, eta gauzak ipintzen ziren baina kirikioa esaten genion guk, kirikioa kendu eta halan egin oinagaz, kirikioa kendu eta irteten zuten gaztainek gero)

LEIOAKO HIZTEGIA

asala: azala, arbolen azala

asi: hazia

brote: ernekatza

"*Len, a, ta ortarako, oin, oin negun, kendu a, ba aurtengo brote fresko kendu te, udebarrirarten, aukiten dosu seran, otzan sartute*" - (*Lehen, eta horretarako, orain, orain neguan, kendu hura, ba aurtengo ernakaitz freskoa kendu eta, udaberrira arte, edukitzen duzu zerean, hotzetan sartuta*)

errame: abarra

"*Orrek errama padakixu se asiten dakos, ta aik erramak ebai, ta itxiteko, polito itxiteko*" - (*Abar horiek badakizu ze hazten zaizkio, eta abar haiek ebaki, eta uzteko, polito uzteko*)

errepollo: gunea, burua

landare: landarea

lore: lorea

"*Bai sera, loren autze da, osea, berdetan daunen, e?*" - (*Bai zera, loraren hautsa da, hau da, berdetan dagoenean, e?*)

"*San Antoniora yoten bai, astoas ta saldies, lora batzuk imini, te serera, Loyure be, Santa Lusie egunen yoten gintzen*" (*San Antoniora joaten bai, astoagaz eta zaldiagaz, lore batzuk ipini, eta zerera, Loiura ere, Santa Luzia egunean joaten ginen*)

mardo

mendu: mentua

orri: orria

"*Orrek esteu emoten orri baño*" - (*Horrek ez du ematen orria baino*)

"*Orri sabal sabalatakok ixeten siren*" - (*Orri zabal zabaletakoak izaten ziren*)

palu: makila

"*Palu imin bearren artoas erain*" - (*Makila ipini beharrean artoagaz erein*)

pintxo

sarmientu: xirmendua

seruke: indaba, ilar eta abarren azala

sotza

susterra: sustraia

"*Orti bateren batek esango tzu ori susterra emongo tzu*" (*Hortik baten batek esango dizu sustrai hori emongo dizu*)

trokile: trontzela

"*Ase igual ebai, ta puntan, solon lotzen dana trokilek, asa trokilek atara ber dus*" (*Aza beharbada ebaki, eta puntan, soroan lotzen*

dena trontzela, aza trontzelak atera behar ditugu)

tronko: enborra

"*Artu olan, e, tronkoran bat edo arbolaran bat artu, te areas ibili, batera bestera, arantza onantza, ta asikeran ba, morroi bi ibil ber aurreti te atzeti*" - (*Hartu holan, enborren bat edo arbolen bat hartu, eta haregaz ibili, batera bestera, harantz honantz, eta hasieran ba, morroi bi beharbada ibili behar aurretik eta atzetik*)

14.10. GAINERAKOAK

asa trokile: aza trontzela

patata orri

15. ANIMALIAK

Atal honetako animaliei buruzko hiztegia aurkezteko honako azpi-atalak egin ditugu: ugaztunak, txoriak, narrastiak eta anfibioak, arrainak eta intsektuak.

15.1. UGAZTUNAK

erratoya: arratoia

luki: lukia, azeria

otzo: hartza; berba honen esangura mendebaldeko bariatateetan hau izaten da

satorra: satorra

15.2. TXORIAK

antzarra, ansarra: antzarra

"*Olan denporala daunen, e, esetuten dosu selan denporala daun, etorten direnen antzarrak, kuadrillen*" - (*Holan denboralea dagoenean, ezagutzen duzu zelan denboralea dagoen, etortzen direnean antzarrak, taldean*)

artatxori: artatxoria, kurloia

elaye: elai

eperra: eperra

gauontza: gauontza

jilgeru: jilgeroa, karnaba

kiñe: kina, hegabera

kuku: kukua

LEIOAKO HIZTEGIA

"Kuku atxine beti etorte yakun ona, ene! kuku marea bere ite yoskun" - (Kukua antzina beti etortzen zitzaigun hona, ene! kukua zorabiatu ere egiten gintuzten)

palome: usoa

pardillo

soso: zozoa

txori: txoria

15.3. NARRASTIAK-ANFIBIOAK

beneno: pozoia

sapo

suge

sugelinde

15.4. ARRAINAK

angile: angira

kangrejo: karramarroa

musilo

15.5. INTSEKTUAK

ar gorri

arra: harra

"Arra ite yakon" - (Harra egiten zitzaion)

bitxo: mamorroa

"Itzeleko bitxok iten dire emen estus euki baye aor emeti yonta leleko, sidreria bat estosu ikusi? emeti sosela, or" (Itzeleko mamarroak egiten dira hemen ez ditugu eduki baina haor hemendik joanda lehenengoa, sagardotegi bat ez duzu ikusi? hemendik zoazela, hor)

eruge: eruga

eskarabajo: eskarabajoa

"Ordun, e, pasten dana da, esan egon ainbeste eskarabajo, oin da eskarabajo naye" - (Orduan, pasatzen dena da, ez zen egon hainbeste eskarabajo, orain da eskarabajo nahia)

euli: eulia

iñurri: inurria

"A estosu ikusten, baye iñurri estau an, iñurri yon da ara, a beste dauleko" - (Hura ez duzu ikusten, baina inurria ez dago han,

inurria joan da hara, beste hura dagoelako)

karakola: barraskiloa

mariero: marigorria

maripose: txirpilota

sorri: zorria

sorri baltza

"Sorri baltza, ori ixeten da geyen oten dana" - (Zorri beltza, hori izaten da gehien egoten dena)

16. BEHARRA

Atal honetan nekazaritza eta abelazkuntza ez diren garaiteko ogibideen gainerako berbak emango ditugu. Horretarako, ogibideak, arotza, hargintza, errementaritza eta perragintza izeneko azpiatalak bereiziko ditugu.

16.1. OGIBIDEAK

albaitero

albañela: igeltseroa

aldeanu: baserritarra

"Garbituaskeronen eguno estot ikusi etzen olaurik, se aite aldeanu ixen gendules, urten urten garbite yesen arbolak eta, eta kare bixies suritu, se, beko alderditik, sera sartu estakon bitxo" - (Garbituz gero egundo ez dut ikusi etxean holakorik, ze aita baserritarra izan genuenez, urtean-urtean garbitzen zituen arbolak eta, eta kare biziagaz zuritu, ze, beheko alderditik, zera sartu ez dakion mamarroa)

aldeane: baserritarra (F.)

aministradore

anguleru

asur imitzalle

"Asur imitzalle ene, ona asur imitzalle Laukisen, nor erote nendun nik ara? Sarreneko, Madalenen, e, kaballos ta karroas, estai pa ixen basan, Teresa, gure aiste txikerra, ala nor erote nendun nik Laukiserano?" - (Hezur ipintzailea ene, ona hezur ipintzailea Laukizen, nor eroaten nuen nik hara? Zarrenekoa, Madalenen, zaldiagaz eta karroagaz, ez dakit ba izan zen, Teresa, gure ahizta

LEIOAKO HIZTEGIA

*txikerra, ala nor eroaten nuen nik
Laukizeraino?)*

betrenario: albaitea

karneseru, karniseru: harakina

*"Ni amairu urteas etor nitzen ona,
Lamiakora, karniseruk auki eun umetxu
bet" - (Ni hamahiru urtegaz etorri nintzen
hona, Lamiakora, harakinak eduki zuen
umetxo bat)*

kastañeru

*"Eta etorte san kastañeru, gurdies eta
farolakas, eta kiloka ta es, selemine,
kastañak, sera, eta intxurrek ekarte
yeresen" - (Eta etortzen zen gaztaina-
saltzailea, gurdiagaz eta farolakaz, eta
kiloka eta ez, zelemina, gaztainak, zera, eta
intxaurrak ekartzen zituzten)*

kinkalleru: kinkaileroa

*"Etorrite siren etzetati, etorte san kinkalleru
bet esatetzearan ta ak ekarteun ori ba palu" -
(Etortzen ziren etxeetatik, etortzen zen
kinkilero bat esaten zioten eta hark
ekartzen zuen hori ba makila)*

kriede: neskamea

*"Amabi urte baño lelau krieda yo nintzen" -
(Hamabi urte baino lehenago neskame
joan nintzen)*

kriedu: morroia

*"Ori bota deude kriedu" - (Hori bota dute
morroi)*

letxere

letxeru: esneketaria

maistre: maistra

marineru

matarife: hiltzailea

mediku: medikua

*"Mediku pe se ite otzu ba?" - (Medikuak ere
zer egiten dizu ba?)*

*"Medikuk dana kenduten deu" - (Medikuak
dena kentzen du)*

*"Nire nieto bat yausi san, eta medikuk,
medikuk, ordun emen eosan mediku bet,
eta esa yotzon se, onek kure deko, sera
amomak kurako tzu, se sure amoma taki
sanatenes eiten" - (Nire iloba bat jausi zen,
eta medikuak, medikuak, orduan hemen
egon zen mediku bat, eta esan zion ze,
honek sendaketa dauka, zera amamak
osatuko dizu, ze zure amamak daki zain
tiratua egiten)*

panaderu: okina

*"Panaderuri erosi tremesa edo arto
porrusaldeas" (Okinari erosi tremesa edo
artoa porrusaldagaz)*

partere: emagina

pastore: artzaina

*"Goyerrin ego san pastore bat, ostantxen es,
ostantxen estot esetu" - (Goierrin egon zen
artzain bat, osterantzean ez, osterantzean
ez dut ezagutu)*

pratikante

sardinere

sesteru

yoskile: joskilea

16.2. AROTZA

arotza: arotza

erreminte: erreminta

korte

lime: lima

martillu

untze: iltzea

*"Gero beste bat egote san, palutxu betzukes
ta, se, untze batzukes, ta eskegite an,
lapikok" (Gero beste bat egoten zen,
makilatxo batzukaz eta, ze, iltze batzukaz,
eta eskegita han, lapikoak)*

16.3. ERREMENTARITZA

burni: burdina

erradure: perra

*"Guk, e, beyen erradure bat iminten gentzen,
aspin, imini euren lekun, erradure sartu, ta
gero iminten gentzen bedar siku" (Guk,
behien perra bat ipintzen genien, azpian,
ipini euren lekuan, perra sartu, eta gero
ipintzen genien belar sikua)*

errementari: errementaria

*"Errementari aantxe eskalestri baño apur bet
onautxu ote san" - (Errementaria hantxe
'eskalestrika' baino apur bat honagotxo
egoten zen)*

*"Txarra, txarra ori be, eron dus makine bat
bider errementarire, Doroteoana" -
(Txarra, txarra hori ere, eroan ditugu
makina bat bider errementarira,
Doroteorengana)*

erreri

LEIOAKO HIZTEGIA

"Errerire sarriten eron dot, atxurre be bai, sorrostako, kako be bai, kako be gasta in" - (Errementaritzara sarritan eroan dut, aitzurra ere bai, zorrozteko, kakoa ere bai, kakoa ere higatu egin)

erreru

sutegi: sutegia

ugerra: ugerra

17. ABELAZKUNTZA

Abelazkuntzaren gaineko berbak aurkezteko, abere mota bakoitzaren araberrako ondoko saillkapena egin dugu: ganadua, ardiak eta ahuntzak, ekinoak, txerria, oiloak, erleak, txakurra, katua eta gainerakoak; azken azpi-atal honetan arteragokoetan ezin sartu izan ditugun berbak agertuko dira.

17.1. GANADUA

adarra: adarra

"Adarrak arregla, porejenplo, busterrin esin libra, esin libra, ta bai igual apur bet punte ebai, edo erdi ebai, baten batzuk igual adar dusti ebaite" - (Adarrak konpondu, esate baterako, buztarran ezin libratu, ezin libratu, eta bai beharbada apur bat punta ebaki, edo erdia ebaki, baten batzuk beharbada adar osoa ebakita)

anillo

apala: armera apala; berba hau idi izentzat ere erabiltzen da

apatxa: apatxa

"Sakutek ite yusen, a, apatxatan, a, olan, eride batzuk" - (Zakuteak egiten zituen, apatxetan, holan, zauri batzuk)

apatxa bitarteko: apatxa bitartekoa, ganaduaren gaixoa

"Apatxatan aukiten deu apatxa bitarteko" - (Apatxetan edukitzen du apatxa bitartekoa)

aspi: azpia

aspigarri: azpigarria

ausnarra

bayeste

beantxe: bigantxa

"Ser da beantxe ala sekorra?" (Zer da bigantxa ala zekorra?)

beye: behia

"Len sekorrana eron ber siren beyek" - (Lehen zekorragana eroan behar ziren behiak)

"Guk iños euki du beye, ba, eratziten yoteko lelau, e, yon gortara ta eron trapu bi edo, eta aikes trapukes iyosi, iordi ondo ondo ondo errape, eta in eskukes ta, bigunduteko errape, eratziteko, espabe itxi be estere eratziten" - (Guk inoiz eduki dugu behia, ba, eraisten joateko lehenago, joan kortara eta eroan trapu bi edo, eta trapu haiekaz igurtzi, igurtzi ondo-ondo-ondo errapea, eta egin eskuakaz eta, biguntzeko errapea. eraisteko, ezpabere utzi ere ez dute eraisten)

"Jose ori da beye dakasune etzera, ene! ori lodituteko berko da" (Jose hori da behia dakarzunga etxera, ene! hori loditzeko beharko da)

"Guk beti euki dus, bost, sei, saspi bei, segun selan ibiltzen gintzen, esneagas, eta iru lau aurki eukiten gendusen" (Guk beti eduki ditugu, bost, sei, zazpi behi, segun zelan ibiltzen ginen, esneagaz, eta hiru lau aulki edukitzen genituen)

bustena: buztana

"Koyu ure balde bategas, ta goxeko leleko ordun, bustena garbitu, domeka dustitan" (Hartu ura balde bategaz, eta goizeko lehenengo orduan, buztana garbitu, domeka guztietan)

dindirri

enpajade: enpajadea, ganaduaren jatekoa

enpatxu: enpatxoa, ganaduaren gaixoa

"Ba mansanille enpatxureko, orioas nastata, betrenariok aginte yoskun guri beye enpatxata oten basan, esate oskun se, imini onenbeste ur, bota onenbeste mansanille eta onenbeste orio" - (Bada kamamila enpatxorako, olioagaz nahastuta, albaiteroak agintzen zigun guri behia enpatxatuta egoten bazen, esaten zigun ze, ipini honenbeste ur, bota honenbeste kamamila eta honenbeste olio)

ernari: ernari

errape: errapea

"Eta eratzi, eratzi igual beye ta, ondino errape itzela deko, selau errape dekon orrek!" - (Eta eraitsi, eraitsi beharbada behaia eta, oraindino errape itzela dauka, zelako errepea daukan horrek!)

LEIOAKO HIZTEGIA

"Beyen errapera yon ber du oin" (Behien errapera joan behar dugu orain)

"Beyek errape makal deko" (Behiak errapea makal dauka)

"Sortzi urteas beyen errapera yote nintzen" (Zortzi urtegaz behien errapera joaten nintzen)

erri beye

"Erri beyek txala asteko onak eseten siren" - (Herri behiak txahala hazteko onak izaten ziren)

erridi

"Orrek erridik eseten siren, adarrak gorrik eta musturre gorri aukite yeden, erridik" - (Horiek herri idiak izaten ziren, adarrak gorriak eta muturra gorria edukitzen zuten, herri idiak)

erri ganadu: herri ganadua

erro: erroa

"Gero beste batzuten igual erro bat galdu eta beste iruretati aukite yun" - (Gero beste batzuetan beharbada erro bat galdu eta beste hiruretatik edukitzen zuen)

ganadu: ganadua

"Ori ganaduntzeko fenomeno, olan satitxu beteas, bota ur beroas ta, ori asi iten san" - (Hori ganaduarentzat itzela, holan zatitxo bategaz, bota ur beroagaz eta, hori hazi egiten zen)

"Au esan eseten, au inguru esan eseten ganadu asteko, emen ba erosi iten siren" - (Hau ez zen izaten, inguru hau ez zen izaten ganadu hazteko, hemen ba erosi egiten ziren)

"Ya urte asko dales ganadu, ganadukes eta enaules astute dekot" - (Ja urte asko denez ganadua, ganaduakaz eta ez nagoenez ahaztuta daukat)

"Oin estire ikusten gogorra, ganadu gogorra oseake orre tires bearrerako eta esnerako beti aukite yeuren" (Orain ez dira ikusten gogorra, ganadu gogorra hau da horiek dira beharrerako eta esnerako beti edukitzen zuten)

girne

"Orrek ganaduk girne paño estekos" - (Ganadu horrek grinak baino ez dauzka)

gorri: behi izena

idi: idia

"Estau emen, idik emen akaba siren" - (Ez dago hemen, idiak hemen amaitu ziren)

"Bear in ber ixete yeudenen ganaduk nai idik ixen nai beyek ixen bardin bakotxak euron ere aukite yeuden bat eskerreti eta beste eskoiti" (Behar egin behar izaten zutenean ganaduek nahi idiak izan nahi behiak izan berdin bakoitzak euron era edukitzen zuten bat ezkerretik eta bestea eskoitik)

idi bayeste

idi eskerra: idi ezkerria

idi eskoya: idi eskoia

idi kalbo

"Idi kalbo eseten da ba, normelmente, abau aukiten dau, adarrak emen auki bearren, emen moño antzeko bat, emen, or ganen" - (Idi kalboa izaten da ba, gehienetan, haau edukitzen du, adarrak hemen eduki beharrean, hemen moino antzeko bat, hemen, hor gainean)

idi txordo: sorburudune

korotza: gorotza

mamitis: mamitisa, ganaduaren gaixoa

"Erro bat galdu dako, mamitis deko, ta gero igual erro bateti bestera pasa edo lauretara, ta kendu in ber" - (Erro bat galdu zaio, mamitisa dauka, eta gero beharbada erro batetik bestera pasatu edo lauretara, eta kendu egin behar)

"Errapeko gatxik txarrena mamitis" - (Errapeko gaitzik txarrena mamitisa)

matrise: matriza

matuto: matutoa

murruse: murrusa

musturre: muturra

narru: narrua

noble: behi izena

"Emen etzen noble, eske beti beiren bat noble usena euki deuna beti ote san" (Hemen etxean noble, beti behiren bat noble izena eduki duena beti egoten zen)

o: o, ganadua lotzeko esaten zaiena

okelarako ganadu

"Okelarako ganadu da ori" (Okelarako ganadua da hori)

osale: osala, ganaduentzat egosita prestatzen den jatekoa

paloma: behi izena

paradako sekorra: umeak egiteko erabiltzen den zekorra

parade: zekortzeko lekua

parto

pinto

pulpe: pulpa

LEIOAKO HIZTEGIA

"Pulpe oin be badau, oin pulpe ganuladu inte dau" - (Pulpa orain ere badago, orain pulpa granulatu eginda dago)

sakute: zakutea, ganaduaren gaixoa

"Sakute aukiten basun kare bota, gorta ingiruten, ta a beye edo idi an bakar bakarrik auki" - (Zakutea edukitzen bazenuen karea bota, korta inguruetan, eta behi hura edo idia han bakar bakarrik eduki)

sekorra: zekorra

"Or bean oten san, or oten siren etze biten oten siren sekorrak" - (Hor behean egoten zen, hor egoten ziren etxe bitan egoten ziren zekorrak)

"Peligroso eseten san, sekorra, apur bet, sarra edo iten basan" - (Arriskutsua izaten zen, zekorra, apur bat, zaharra edo egiten bazen)

silleru

sorburu

"Au anditute dekona, selau sorburu ederra dekon orrek ganaduk" - (Handituta daukan hau, zelako sorburu ederra daukan ganadu horrek)

silleru: idi gartzeliloduna

suiso

torte: tortea, ganaduaren jatekoa

"Torte erosi ite san" - (Torta erosi egiten zen)

txala: txahala

txiline

umetoki: umetokia

17.2. ARDIAK-AHUNTZAK

akarra: akerra

ardi: ardia

"Orreri il yako beorren ardi" (Horri hil zaio berorren ardia)

artegi

"Goyerrin ego san artegi bet" - (Goierrin egon zen artegi bat)

auntze: ahuntza

"Orrek garbitu leitzue dana, auntzek" - (Horrek garbi liezazuke dena, ahuntzak)

"Auntze peres, erosi iten deuna kasureko bado ferire ta ukusten badeu auntzetxu bat edo bi politek, erosi in ber dot se polite tie, ta ekarri igual auntzetxu bi etzera, baye etzen asi es" - (Ahuntzak ere ez, erosi egiten duena kasurako badoa azokara eta

ikusten badu ahuntzxo bat edo bi politak, erosi egin behar dut ze politak dira, eta ekarri beharbada ahuntzxo bi etxera, baina etxean hazi ez)

errebañu

kordero

17.3. EKINOAK

asto: astoa

"Aukiskeron nora urtengo dosu? oin esin dosu urten, Areatara yoteko bere astoas, oin Areatara asto bateas esin sara arrima bere in" - (Edukiz gero nora irtengo duzu? orain ezin duzu irten, Areatara joateko ere astoagaz, orain Areatara asto bategaz ezin sara parajetu ere egin)

"Nik esnek emote nendusin Areatan asto bateas, ta ama yote san Portaltera beste asto bateas, asto bi euki dus beti" - (Nik esneak ematen nituen Areatan asto bategaz, eta ama joaten zen Portugaletera beste asto bategaz, asto bi eduki ditugu beti)

irrintzi: irrintzia

kaballeri: zalditeria

kaballo: zaldia

saldi: zaldia

"Saldies eta karroas etorte nintzen ona, ta gero orti pasa, ta Portaltera" (Zaldiagaz eta karroagaz etortzen nintzen hona, eta gero hortik pasatu, eta Portugaletera)

17.4. TXERRIA

apo: apoa, txerri arra, umeak egitekoa

arkele: arkela, txerri emea

barasare: baresarea

egosari

este: hestea

"En jeneral aik este txikerrak txorixotarako itxite siren" - (Gehienetan haiek heste txikerrak txorizoetarako uzten ziren)

este lodi: heste lodia

gibela: gibela

girrintze: girrintzea, txerriak egiten duen zarata

irrintzi: girrintzea

kurrin-kurrin: txerriari deitzeko erabiltzen da

LEIOAKO HIZTEGIA

makere: makera, txerri emea, umeak egiten dituena

mantille: mantila

"Mantille iminte san siketan, imini palu beten, eta siketu mantille esaten dakona, eta gero txiker txiker txiker ite akon a, gustu giau euki dein" - (Mantila ipintzen zen sikatzen, ipini makila baten, eta sikatu mantila esaten zaiona, eta gero txiker-txiker-txiker egiten zitzaion hura, gustu gehiago eduki dezan)

orosko txarri

puxike: puxika

salmuede, salmuera

"Sayetzak eta gausek Mari Tere bota gatza ara arrutze, ta arrutzek ieten deunen egote san naiko salmuerarako" - (Saihetsak eta gauzak Mari Tere bota gatza hara arrautza, eta arrautzak igaten duenean egoten zen nahiko salmoerarako)

txarri : txerria

"Andi txarri bai etzen, baye ostantzen es, ardirik esta egon" (Handik txerria bai etxean, baina osterantzean ez, ardirik ez da egon)

"Goixen etorte san Berangoko, tio bat eukiten gendun beti, ilte yen etzen, ta goixen etorte san txarri ilten, ta gero, egun dustin egote san txarri eskegite an portalen, eta gero gauen etorte san, satik eiten, pernille iminte yen, e, ebaite beran lekun, eta gause dustik berak gauen eite yesen, ta gero txarri il goixen, eta ya amumak eta amak eta orrek, estekas morsillek eiten" (Goizean etortzen zen Berangokoa, osaba bat edukitzen genuen beti, hiltzen zuen etxean, eta goizean etortzen zen txerria hiltzen, eta gero, egun guztian egoten zen txerria eskegita han atarian, eta gero gauean etortzen zen, zatiak egiten, pernila ipintzen zuen, ebakita beraren lekuan, eta gauza guztiak berak gauean egiten zituen, eta gero txerria hil goizean, eta ya amamak eta amak eta horiek, hesteakaz buzkantzak egiten)

"Ulle dustik errete yakosen txarriri" (Ile guztiak erretzen zitzaizkion txerriari)

txarrikume: txerrikumea

txarritoki: txerritokia

17.5. OILOAK

abi: habia

abiseri, abixeri: abisaria. 1. galduko arrautza. 2. gezurrezko arrautza, berau habian ipintzen da oiloa bertara joateko

"Abixeri ixete san ori" - (Abisaria izaten zen hori)

"Lotze sana urten barik txite a ixete san abixeri t'a beti iminte san an" - (Lotzen zena irten barik txita hura izaten zen abisaria eta hura beti ipintzen zen han)

egasti: hegaztia

"Esateuden ese egastirik finena tiela" - (Esaten zuten ezen hegastirik finenak direla)

ego: hegoa

"Alan, sera, txori modun beti egok sabalik" - (Halan, zera, txori moduan beti hegoak zabalik)

gangarra: gangarra

legorra: ollo mota

lume: luma

mike

mintze: pipita

ollande: oilanda

ollarra: oilarra

"Ollarra tekos andiaok ollo paño" (Oilarrak dauzka handiagoak oiloak baino)

ollo: oiloa

"Ollok modun, ollo pe len, e, arrutzek, e, baserrin eiten siren gitxi baye urte dustin ibiltzen sien iminten, oin, e, urte baten eiten dues eiten daudenak eta gero ba kendu in ber dire" - (Oiloak moduan, oiloak ere lehen, arrautzak, baserrian egiten ziren gutxi baina urte guztian ibiltzen ziren ipintzen, orain, urte baten egiten ditugu egiten dutenek eta gero ba kendu egin behar dira)

"Eta geyao bere bai estekonak ollo be bai, niri ekarri yestesek nik euki neusen bost edo sei estait semet ollo" - (Eta gehiago ere bai ez daukanak oiloa ere bai, niri ekarri zizkidaten nik eduki nituen bost edo sei ez dakit zenbat oilo)

ollo baltza: oilo beltza

ollo gorri: oilo gorria

"Ollorrik euki dus guk beti, e, arrutze gorri iteko, ollo gorrik euki dus" - (Oilo gorriak eduki ditugu guk beti, arrautza gorria egiteko, oilo gorriak eduki ditugu)

ollo loke: oilo loka

LEIOAKO HIZTEGIA

ollo pinto: oilo pintak

ollo suri: oilo zuria

ollasko: oilaskoa

"Ollasko eun pesetan dau" - (Oilasko ehun pezetan dago)

ollotoki: oilotokia

ote: ota

piku: mokoia

pepite, pipite: pipita

"Orrek ollok pepite deko" - (Oilo horrek pepita dauka)

"Kendu etxakon iños pipiterik edo serik ein" - (Kendu ez zitzaion inoiz pipitarik edo zerik egin)

"Ordun pipite eukite yeanak esin ixete yean saratari pe in" - (Orduan pipita edukitzen zutenek ezin izaten zuten zaratarik ere egin)

txite: txita

"Ori lotze san, txitek atarateko iminte san ollo, arrutzekas, eta a lotze san an txite barik" - (Hori lotzen zen, txitak ateratzeko ipintzen zen oiloa, arrautzakaz, eta hura lotzen zen han txita barik)

17.6. ERLEAK

erle: erlea

esti: ezitia

17.7. TXAKURRA

ausi: ahausi

"Jesus semet ausi in deuden bart txakurrek!" - (Jesus zenbat ahausi egin duten bart txakurrek!)

otxa-otxa: otxa, txakurrari esaten zaio eraso egiteko

txakurre: txakurra

17.8. KATUA

katu: katua

"Aitu denpore kanbio da se aitu katu selan dabilen, aurpegi garbituten ta" - (Aitu eguraldi aldaketa da ze editu katua zelan dabilen, aurpegia garbitzen eta)

17.9. GAINERAKOAK

arra: arra

eme: emea

"Txarri garbitan yon ber dot, edo txarri emoten, e, yateko emoten egon ber dot, txarri atara ber du kanpora, txarri beti, igual da arra sein eme" (Txerria garbitzen joan behar dut, edo txerria ematen, jatekoa ematen egon behar dut, txerria atera behar dugu kanpora, txerria beti, berdin da arra zein emea)

errase

"Gero diputasiño ya sartu sanen, ordun ya errasak asko in siren" - (Gero aldundia ja sartu zenean, orduan ja endak asko egin ziren)

koneju: untxia

"Konejune guk bota du satza solora, konejun satza bota du solora, ademas es, e, apur bet espabere, tratora beterik eroeskuen konejune, akabuko es arterauko, eroeskuen orti Fadurati, konejun satza t'ak esteko bedarrik, baye a esta ain fuerte, ollona da indar giau dekona" - (Untxiena guk bota dugu satsa sorora, untxien satsa bota dugu sorora, gainera ez, apur bat ezpabere, tratora beterik eroaten ziguten untxiena, azkena ez arteragokoa, eroaten ziguten hortik Faduratik, untxien satsa eta hark ez dauka belarrik, baina hura ez da hain indartsua, oiloena da indar gehiago daukana)

"Guk konejuk eta ollok beti euki dus etzen" - (Guk untxiak eta oiloak beti eduki ditugu etxean)

palome: usoa

"Palome loye da" - (Usoa lohia da)

"Ak eukite yeresan patok, palomak eta dustirik eukite yen ak" - (Hark edukitzen zituen ahateak, usoak eta guztietarik edukitzen zuen hark)

pato: ahatea

"Patok esetu doas etzen" - (Ahateak ezagutu ditut etxean)

pisti: piztia

"Orre tire pisti itzelak" (Horiek dira pizti itzelak)

ume

LEIOAKO HIZTEGIA

18. NEKAZARITZA

Nekazaritza alorreko berbak banatzeko, jarduera bakoitzaren arabera sailkatzeko, ondoko azpi-atalak egin ditugu: lurra lantzeko tresnak, soro lanketa, basoa, egurra, belarra, otzarak, errota, labea, gurdia, asto garraioa eta gorta.

18.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

alper arri

are, area: area

"*Areak porejenplo prepara, prepara, lelau, a, makinetu beyekas edo idikes, ta gero arekas, a, prepara, aro ona ba, oten basan ba, pasada bat, ta txarra oten basan, pasada bi, te mokil asko egoten sanen, artu kako bat edo maseta bat, eta ba, eskus yo*" - (*Areakaz esate baterako prestatu, prestatu lehenago, makinatu behiakaz edo idiakaz, eta gero areakaz, prestatu, aro ona ba, egoten bazen ba, pasaldi bat, eta txarra egoten bazen, pasaldi bi, eta mokil asko egoten zenean, hartu kako bat edo mazuto bat, eta ba, eskuz jo*)

bostortza, bostortzeko

esto, osto: estoa, narra

"*Makinetu, areak pasa ta gero osto, iru lau arri imini ganen*" (*Makinatu, areak pasati eta gero estoa, hiru-lau harri ipini gainean*)

exe: exea

"*Gero nabo eraiteko exeas*" (*Gero arbia ereiteko exeagaz*)

kakarraldo

karramarro: karramarroa

"*Gero etor san sera bere, e, esaten gentzen guk karramarro bere gero*" - (*Gero etorri zen zera ere, esaten genion guk karramarroa ere gero*)

kate: katea

lankate

laye: laia

"*Ordun layakas iten san bear*" - (*Orduan laiakaz egiten zen behar*)

"*Ene! bear einte nau! laye bi imini olan eta uñekas aplasta ta olan botata*" - (*Ene! behar eginda nago! laia bi ipini holan eta oinakaz zapartu eta holan botata*)

makine: makina, goldea

"*Makine imini baño lelau ba tronko bat edo, ordun tronkok oten siren*" - (*Makina ipini baino lehenago ba enbor bat edo, orduan enborrak egoten ziren*)

"*Lelengo makinek bakarrik eseten siren ser bat iteko, a, buelta batera bakarrik*" - (*Lehenengo makinak bakarrik izaten ziren zer bat egiteko, buelta batera bakarrik*)

narre: narra

tragasa, tragesa: tragaza

"*Igual, e, landamine egoten sanen, e, a bedarra kitateko asikeran, tragesa*" (*Beharbada, landamina egoten zenean, belar hura kentzeko hasikeran, tragaza*)

tratora

18.2. SORO LANKETA

alanbre: alanbrea

amesti: erretxina

"*Bai, ordun ba, ite san edo, ganadun satza, edo base, edo amesti in, geitze san olan, e, ser bat olau, resine antzeko bat, baye atxine atxine onek jenero pe, amesti te orrek ya, yakin beres esiren eiten, baye oin ori esta ber, olau, a, olan e, sintatxu bateas, ebai te sintatxu bet iminite, aurrera bai*" - (*Bai, orduan ba, egiten zen edo, ganaduaren satsa, edo basa, edo erretxina egin, deitzen zen holan, zer bat holakoa, erretxina antzeko bat, baina antzina-antzina gauza hauek ere, erretxina eta horiek ja, jakin berez ez ziren egiten, baina orain hori ez da behar, holako, holan, zintatxo bategaz, ebaki eta zintatxo bat ipinita, aurrera bai*)

artze: artza, zumitzez egineko galbahe antzekoa, indabak eta haizetara garbitzeko erabiltzen zen

"*Artze indabak garbitako ixete san*" - (*Artza indabak garbitzeko izaten zen*)

asufre

atxurre: aitzurra

"*Ba ori gitxi daun lekun se asko daun lekun satza ota barik, e, dau naiko, oin ganadun aspitera bai, baye gero atara daun modun, arraska seraas, atxurreas edo ta bota*" - (*Ba hori gutxi dagoen lekuan ze asko dagoen lekuan satsa ote barik, dago nahikoa, orain ganaduen azpietara bai,*

LEIOAKO HIZTEGIA

baina gero atera duen moduan, karrankatu zeragaz, aitzurragaz edo eta bota)

atxurtxu: aitzurkakoa

botike: botika

"Oin botike bota esik estau seinik" - (Orain botika bota ezik ez dago zer eginik)

erremese: erremesa

ese: naboa txikertako

exabarra

"Eixus exabarrak ese nabo erein ber dot" (Egizuz exabarrak ezen arbia erein behar dut)

file

iriti

kako: kakoa

kobre

kosetxe: uzta

larratxurre

lerro

masete

"Gero, ba, masetakas, mokilek yo t'ostabere pasa areak, ta ostabe mokilek urten" - (Gero, ba, mazutoakaz, mokilak jo eta osterera ere pasatu areak, eta osterera ere mokilek irten)

melena: zabortegietako satsaren izena

"Bai te kamioikadak erote sien solotara, melena" - (Bai eta kamioikadak eroaten ziren soroetara, belena)

mokile: mokila

"Ein bearren yorratu makinetuteko, areas pasate sendun idikes, eta lotute san yorratute, sera bedarra mogidute siketuteko, ta gero makinetu, ta gero area pasa, ta gero yo mokilek" - (Egin beharrean jorratu makinatzeko, areagaz pasatzen zenuen idiakaz, eta lotzen zen jorratuta, zera belarra mugituta sikatzeko, eta gero makinatu, eta gero area pasatu, eta gero jo mokilak)

"Au bakixu sentzat ixengo san mokilek apurtako" (Hau badakizu zerentzat izango zen mokilak apurtzeko)

ollo satza

"Ollo satza teko indarra lar, deko indarra ta aitearrik kontus euki ber dosu, guk, e, es, baye askok eiten deu, ollo satza, ta ureas betatu te aas bota indarra kentzeko" - (Oilo satsak dauka indarra lar, dauka indarra eta haregatik kontuz eduki behar duzu, guk, ez, baina askok egiten du, oilo

satsa, eta uragaz bete eta hagaz bota indarra kentzeko)

parre: parra

poda artasik: inausteko artaziak

pode

"Podarako be bai, gause batzuntzako kasureko, e, matza ta dekonak, eta frute dekonak frutedunek, es oin frute txarrak, se oin melokotoya tekosus, oin, edosin denporan ebaiten dus, se esteude aspaldiko urte bi edo irun, danak usteltan die, ostarantzen podateko bere aitu in ber dako iretargiri" - (Inausketarako ere bai, gauza batzuentzat kasurako, mahatsa eta daukanak, eta fruta daukanak frutadunak, ez orain fruta txarrak, ze orain milikotak dauzkazu, orain, edozein sasoitan ebakitzen ditugu, ze ez dute aspaldiko urte bi edo hiruan, denak usteltzen dira, osterantzean inausteko ere aditu egin behar zaio iretargiari)

sardakako

"Atateko sardakas asko kostaten da ta sardakakoas, ganeti ganeti kita, ta gero ataraten gendun" (Ateratzeko sardakaz asko kostatzen da eta sardakakoagaz, gainetik kendu, eta gero ateratzen genuen)

satza: satsa

"Satza, ori bedarra ba askok eiten deu ori, bota bedarra aspire, ta gero satzak bota ara, ta a ya satza ta bedarra, ta satza iten da dana" - (Satsa, belar hori ba askok egiten du hori, bota belarra azpira, eta gero satsak bota hara, eta hura ja satsa eta belarra, eta satsa egiten da dena)

serre: igitaia

"Gero pike iteko, a, bai oten san olan, serra ser bat olan bueltan imini, gortan egoten san iminte, baye ori lasto baño gero beste, a, tronko ebaiteko" - (Gero pikatu egiteko, bai egoten zen holan, zerra zer bat holan bueltan ipini, kortan egoten zen ipinita, baina lasto hori baino gero bestea, enborra ebakitzeke)

soke: soka

solo: soroa

soto

soye: zohia

sulfato

sulo: zuloa

surku

tratora

LEIOAKO HIZTEGIA

txorte: txorta

ugerra: ugerra, landareen gaixoa

"Klaro, nik oin ikusten dot ango, len esaten sana, ugerra, ser dan, oin" - (Jakina, nik orain ikusten dut hangoa, lehen esaten zena, ugerra, zer den, orain)

"Emen, e, kasi len, e, esetu be esiren eiten, esate san ba, ugerra deuke, ugerra deuke, baye ori ugerra da moteau" - (Hemen, kasik lehen, ezagutu ere ez ziren egiten, esaten zen ba, ugerra daukate, ugerra daukate, baina uger hori da moteatua)

"Olan ite san ugerrak koyu estein" (Holan egiten zen ugerrak har ez dezan)

yorra: jorraia

18.3. BASOA

barande: makila edo abar luzea arbolen abarrak astintzeko erabiltzen zena

"A barande eroten san amarra iteko" - (Baranda hura eroaten zen amarratu egiteko)

18.4. EGURRA

askore: aizkora

egurre: egurra

"Basotan egurre kuiten san" - (Basoetan egurra hartzen zen)

"Egurre karga dot, e, urten urten ekarte gendusen gurtada egurrek, sera, Arriunatik, Martutik arao, basok ote siren, eta eroste yeden aitek eta tiok, ebai, eta makine bat ota Martutik eta karga dot nik" - (Egurra kargatu dut, urtean-urtean ekartzen genituen gurtada egurrak, zera, Arriunatik, Martutik harago, basoak egoten ziren, eta erosten zuten aitek eta osabak, ebaki, eta makina bat ote Martutik eta kargatu dut nik)

tako

18.5. BELARRA

adarra

"Adarra or dau ondikarren" - (Adarra hor dago oraindikarren)

agine: hagina, akatsa, kodainaren ahoari egiten zaizkionak dira

"Agine ite yakon ba, edo, arri baten kontra yoten sunen, edo olan" - (Hagina egiten zitzaion ba, edo, harri baten kontra jotzen zenuen, edo holan)

alle: ailea

bedar kodañe

bedar mete: belar meta

bedarra: belarra

"Ori sanbedarra baño lodiau da bedarra" - (Hori zain belarra baino lodiagoa da belarra)

bedar siku

"Lastategi, or bedarrak gordete gendusen negureko, bedar sikuk, negureko lastategin" (Lastategia, hor belarrak gordetzen genituen begurako, belar sikuak, negurako lastategian)

bei adarra: behi adarra, zorrotzarria eroateko erabiltzen da

idurke

"Idurke eseten san ba otak barrure sartzeko, gero egoten san, a, benaki, benaki ba, atarateko, eta beste pala bat, buelte emoteko, eta beste olan eskoba bat egoten san bai, irek imini, irek, e, ebai irek eta an puntan imini irek, ta irek, e ba, atarateko sera iten san" - (Idurkea izaten zen ba oteak barrura sartzeko, gero egoten zen, belekia, belekia ba, ateratzeko, eta beste para bat, buelta emateko, eta bestea holan ginarra bat egoten zen bai, irak ipini, irak, ebaki irak eta han puntan ipini irak, eta irak, ba, ateratzeko zera egiten zen)

kodañe: kodaina

"Emen nire aitek kodañeas eyun yakin bedarrak ebaiten, eta nire koñatu bate pes, beti serreas" - (Hemen nire aitak kodainagaz ez zuen jakin belarrak ebakitzen, eta nire koinatu batek ere ez, beti zerragaz)

"Sasintze pe bai beste ba tau kodañe, txikerrau" (Sasientzat ere bai beste bat dago kodaina, txikerragoa)

martillu

mete: meta

"Mete, edo mete bai bedarrana baye satzana es" - (Meta, edo meta bai belarrarena baina satsarena ez)

ota kodañe

pika malluk: pika mailuak

LEIOAKO HIZTEGIA

sarde: sarda

sorrotzarri, sorrostarri: zorroztarria

yunkede: junguda

18.6. OTZARAK

lepotzare

otzare: otzara, buruan ibiltekoa

"Mimenasko otzare eron da" (Mimenazko otzara eroan da)

sarana: zarana

sestaña

sestille: otzara txikerra eskuan erabiltzekoa

sesto: zarana

18.7. ERROTA

baya: bahea

"Ondo iyota badau, ta bada ierra pasa, serati, bayati pasa ta a da goso benetan, a amasaten dosu selangure, da urun ona ta" - (Ondo ehota badago, eta bada igerra pasatu, zeretik, bahetik pasatu eta hura da gozoa benetan, hura oratzen duzu zelangura, da irin ona eta)

"Ondo badau iyota, ondo iyota badau eta bayati pasata, bayati pasata es, bayati pasa barik" (Ondo badago ehota, ondo ehota badago eta bahetik pasatuta, bahetik pasatu ez, bahetik pasatu barik)

errotari: errotaria

errote: errota

"Errotak emen, guk emen, bat, e, asikeran yoten gintzena, sera orra Iberkorta esaten dan, e, or Getxon, orti Getxo da, osten emen emen Leyoan, errote bai egoten san, oin, e ya, an bertan baye, ure gitxi aukite yules an, esan eseten, a" - (Errotak hemen, guk hemen, bat, hasieran joaten ginena, zera horra Iberkorta esaten den, hor Getxon, hortik Getxo da, ostean hemen hemen Leioan, errota bai egoten zen, orain, ja, han bertan baina, ura gutxi edukitzen zuenez han, ez zen izaten, hura)

"Es, es, Butroin bertan dau errota bat, bai antxe" - (Ez, ez, Butroen bertan dago errota bat, bai hantxe)

"Errote bakixu gure aman tia batek euki yen errote" (Errota badakizu gure amaren izeko batek eduki zuen errota)

mende

"Lau selemín edo, estait ser kentzen san, menda kendu" - (Lau zelemín edo, ez dakit zer kentzen zen, menda kendu)

"Senbet menda kendu dotzues?" - (Zenbat menda kendu dizkizute?)

saku: zakua

sorro: zorroa

"Asko be fasilao ekarten gendun, sorro, etzerantz, arantza eroten gendunen baño" - (Asko ere errazago ekartzen genuen, zorroa, etxerantz, harantz eroaten genuenean baino)

talege

"Ta yoten gintzesen partide bat emeti, artu geure talegatxuk eta, an, e, Butroiko bidera bajatu baño lenau, aitu iten gendun ese, guarda sibile ibilte san ordun" - (Eta joaten ginen partida bat hemendik, hartu geure zorrotxoak eta, han, Butroeko bidera bajatu baino lehenago, aditu egiten genuen eze, guardia zibila ibiltzen zen orduan)

trigeru: galbahea

18.8. LABEA

belaki, benaki: belakia, labetik ogiak eta ateratzeko erabiltzen zen makila luzea

labagane

labasu, labasube: labasua

"Guk emen normalmente iten gendun labasu in, ene senbest labasu! senbest bear! labasu in, sartu sei, selan, a, atxine atxine, selau mentalidade! sartu, a, ba labara sartu, a, sei sesto, se labak egoten siren sei sestokok eta sortzi sestokok, andi te txikerra, sartu sei, eta bost atara, ta sortzi sartu, ba sei atara, ba merme andi aukite yuen, merme andi aukiten yuen, eta guk emen, e, normalmente, emen etzealden gero sakuten artu te sakun yo, ta artzan imini, artza baten, artza andi bet imini te an artzan, a, garandu, eta ba, bota arkatarra, ta gero andi ba errotara" - (Guk hemen gehienetan egiten genuen labasua egin, ene zenbat labasu! zenbat behar! labasua egin, sartu sei, zelan, antzina-antzina, zelako mentalidadea! sartu, ba labera sartu, sei zaran, ze labeak egoten ziren sei zaranekoak eta zortzi zaranekoak, handia eta txikerra, sartu sei, eta bost

LEIOAKO HIZTEGIA

atera, eta zortzi sartu, ba sei atera, ba merma handia edukitzen zuen, merma handia edukitzen zuen, eta guk hemen, gehienetan, hemen baserrian gero zakutan hartu eta zakuan jo, eta artzan ipini, artza baten, artza handi bat ipini eta han artzan, garandu, eta ba, bota arketara, eta gero handik ba errotara)

"Nik beti aukite nendun, a, trete, asikeran es, baya, trete etzen, labasurik in esteko, bakarrik etzerako arto" - (Nik beti edukitzen nuen, treta, hasieran ez, baina, treta etxean, labasurik ez egiteko, bakarrik etxerako artoa)

"Labasubek eite gendusen ta, an dau ondino labe erakutziteko les" - (Labasuak egiten genituen eta, han dago oraindino labea erakusteko legez)

labe: laba

"Laben e, asikeran, laben asikeran, se guk klaro, etzeko laben sera truko kuite aukiten gendun, ba se, suritu iten san, aukiteun ba, emeko ladrillorarten ba gitxi, onarten giau, eta onarten lar, lar iten basan aputxu bet gero itxi" - (Labaren, hasieran, labaren hasieran, ze guk jakina, etxeko labaren zera trukoa hartuta edukitzen genuen, ba ze, zuritu egiten zen, edukitzen zuen ba, hemengo adrilluraino ba gutxi, honaino gehiago, eta honaino lar, lar egiten bazen apurtxo bat gero utzi)

"Laben, e, koloreri aitze tzen guren aitek" - (Labaren, koloreari aditzen zion gurean aitak)

pale: para

"Pala bat ixeta san an, a, egur andi beteas, aas buelta emon, e, ordurik ordure edo, artori estitesen sikeran kiskeldu" - (Para bat izaten zen han, egur handi bategaz, hagaz buelta eman, ordutik ordura edo, artoari ez ditezzen sikeran kiskaldu)

urkulu: urkulua, otea labean sartzeko erabiltzen zen

18.9. GURDIAK

aldamena: aldamena, gurkamaren alboetako makilak

ardatza: ardatza

ardi narru

"Ardi narrun aspiti iminte yakon alan galtzues inte, estait selan geitze yakon areri baye" - (Ardi narruaren azpitik ipintzen zitzaion halan galtzuagaz eginda, ez dakit zelan deitzen zitzaion hari baina)

"Busterrin ganen eta gero ardi narru, bakixu segaitik ixete san armatu ganadu eroteko dalako dekot se onen ganen badinot eroteuesan yosite eta barrun galtzues" (Buztarriaren gainean eta gero ardi narrua, badakizu zergatik izaten zen tente ganadua eroateko delakoa daukat ze honen gainean badinot eroate zituen josita eta barruan galtzuagaz)

aspiola

asto: astoa, ardatzari eusteko aldamenen azpiko zatia

atzerakarge: atzera zama

aurrerakarge: aurrera zama

borle: piztina

busterri: buztarria

"Len ba busterri erosi iten san" - (Lehen ba buztarria erosi egiten zen)

ede: hedea

errayo

erruede: txirrinka

espate: ezpata

"Espate da aurren, a, emen darona" (Ezpata da aurrean, hemen daroana)

frontere: frontera, sapa

gurdi: gurdia

gurpunte

gursotza: gurzotza, larakoa

gurtakarra, burtakarra: gurtakarra

gurtede: gurtedea

"Ordun au da gurtede" (Orduan hau da gurtedea)

gurtetza: gurtetza, ardatza

gurtola, burtola

karge: zama

"Burun karge dotela yote nintzen" (Buruan karga dudala joaten nintzen)

karro: karroa, asto gurdia

"Emen akaburengo ibil sana emen ingirun ori san, olan asto bateas ta karrotxu bateas" - (Hemen azkenengo ibili zena hemen inguruan hori zen, holan asto bategaz eta karrotxu bategaz)

"A subi pasa eta klaro an gorta antzeko edo an egon san xixi bet an itxiten gendusen asto eta karro" (Zubi hura pasatu eta jakina han korta antzekoa edo han egon

LEIOAKO HIZTEGIA

zen itxi bat han uzten genituen astoa eta karroa)

ola: ohola

partike

surrune: zurruna

tentamoso

"Amen etorri atena burure niri lengo egunen tentamoso eukiteko gurdi artes" (Hamen etorri zaidana burura niri lehengo egunean tentemozua edukitzeko gurdia artetz)

ugetza

"Ugetza, orreri esate yakon, e, igual min ite yotzon, busterrrik, adarran min ite yotzon, edo estu ede, ta ugetza eseten san ba imini olan, e, narru sati bet, edo, kaltzagarri bet" - (Ugatza, horri esaten zitzaion, beharbada min egiten zion, buztarriak, adarrean min egiten zion, edo estu hede, eta ugatza izaten zen ba ipini holan, narru zati bat, edo, kaltzagarri bat)

18.10. ASTO GARRAIOA

aparaju: aparejua

astosesto

baste: basta

sesto: astotzara

sintxe: zintxa

urke, aurke: urkea

18.11. KORTA

albate: albatea

"Gero aitek ei yen an albon, esaten da albate, an ei yeun ate andi bet eta gero andi urteta yeun" - (Gero aitak egin zuen han alboan, esaten da albatea, han egin zuen ate handi bat eta gero handik irteten zuten)

aske: aska

"Gasundegi? txarri sartze san a leku, eukiten gendun olau selan? aska bat ixengo baletike les" (Gatzun aska? txerria sartzen zen leku hura, edukitzen genuen holako zelan? aska bat izango balitz legez)

eskobe: ginarra

gorte: gorta, korta

"Guren oritxe, aor daun ate, onen albon, an dau gorte" - (Gurean horixe, haor dagoen atea, honen alboan, han dago korta)

"Guren gorte an dau betiko lekun dau gorte oin bere" - (Gurean korta han dago betiko lekuan dago korta orain ere)

"An etzen, aurrekalden, gorte eukiten gendun" (Han etxean, aurreko aldean, korta edukitzen genuen)

kako: kakoa

"Ba sarri askotan kakogas, beste batzuten, atxurregas eta txikerrak ixetan basiren, masetegas" (Ba sarri askotan kakoagaz, beste batzuetan, aitzurragaz eta txikerrak izaten baziren, mazutoagaz)

kako sarde

karretille: karretila

sarrantxe: txarrantxa

"Nik euki neun idi bet, eta nire gizona defuntuk botate yen kalera, kanpora, landara, or bean eukiten gendun erreke, ure guk, eta botate yen eta nire gizonak eite yen, e, kasik egunen egunen, badakixu, sepilla, eta sarrantxeas garbitu, eta idik ensegida igerta yetzen, se botate yen ta gero yote san bera, estait selan euki yeun usena ba, rubio edo, benga rubio etorri! rrurruru! aste yakon eta bean adarrakas, e, atara lurre be gora, tio egunen baten il ein ber saitu idik! tio egunen baten il ein ber saitu idik! etorte san posan posagas, eite yelakon sarrantxeas lelau, ta gero sepillues sepilla, ta etorte san etzera deskantzun" - (Nik eduki nuen idi bat, eta nire gizona zenak botatzen zuen kalera, kanpora, landara, hor behean edukitzen genuen erreka, ura guk, eta botatzen zuen eta nire gizonak egiten zuen, kasik egunean-egunean, badakizu, zepilatu, eta txarrantxagaz garbitu, eta idiak behingoan igartzen zion, ze botatzen zuen eta gero joaten zen bera, ez dakit zelan eduki zuen izena ba, rubio edo, tira rubio etorri! rrurruru! hasten zitzaion eta beraren adarrakaz, atera lurre ere gora, osaba egunen baten hil egin behar zaitu idiak! osaba egunen baten hil egin behar zaitu idiak! etortzen zen pozaren pozagaz, egiten zuelako txarrantxagaz lehenago, eta gero eskubilagaz zepilatu, eta etortzen zen etxera deskantsuan)

satza: satsa

sepillu, sipillu

"Sarrantxe ta sipillu bet, kanpora atarateko egunen egunen, garbituten gendun guk

LEIOAKO HIZTEGIA

beye" (Txarrantxa eta eskobila bat, kanpora ateratzeko egunean-egunean, garbitzen genuen guk behia)

19. GIZARTEA

Gizarte bizimoduari buruzko atal honetako lexikoa merkatu-azoka, dirua, neurriak, jendea, kortesia formulak, jabetza erlazioak, auzoen erlazioak-elkarteak, ezkontza, musika-dantza, kirola, aisia, karta jokoak, ehiza-arrantza, jaiegunak, euskara, eta gerratea-soldaduska izeneko azpi-gaietan banatuta ematen dugu.

19.1. MERKATU-PLAZA

baskule: baskula, balantza

bendeje: bendeja, plazara saltzeko eroaten dena

"Ondikarren urte asko esta, ba, ondikarren ba sera bendeje be iten sana, oin es" - (Oraindinokarren urte asko ez da, ba, oraindinokarren ba zera bendeja ere egiten zena, orain ez)

"Makine bat bendeja saltze gendun" - (Makina bat bendeja saltzen genuen)

"Bendeja asko ite san len andik" (Bendeja asko egiten zen lehen handik)

beseri: bezeria, bezerotza

"Gu Portaltera ta Areatara yoten gintzen, guk Areatan euki gendusen beserik esnetarako eta, bendejarako Portalte, ese Portalten ona ta txarra saltze san, ta Areatan saltze san ona bakarrik" - (Gu Potugaletera eta Areatara joaten ginen, guk Areatan eduki genituen bezeriak esnetarako eta, bendejarako Portugalete, ezen Portugaleten ona eta txarra saltzen zen, eta Areatan saltzen zen ona bakarrik)

dende: denda

"Balite baye, ori dendatan esengo san, se emen baserrin" - (Balitike baina, hori dendatan izango zen, ze hemen baserrian)

erregatere, erregetere: erregatera, erre kardaria (f.)

"Eta aputxu aputxu bet merkeau bere, obeto ixeta san erregetereri emon, bana-banan asitea baño" - (Eta apurtxo-apurtxo bat merkeago ere, hobeto izaten zen

erregaterei eman, banan-banan hastea baino)

feri: azoka, ganadu-azoka

"Emen es, emen gabonatan oin eseten dot nik feri, ointzu, ostantxen feri Basortun baño estot esetu" - (Hemen ez, hemen gabonetan orain ezagutzen dut nik azoka, oraintsu, osterantzean azoka Basortun baino ez dut ezagutu)

"Ferin edo olan yoten sienak eite yean" - (Azokan edo holan joaten zirenek egiten zuten)

jenero: gauza, gaia

"Aitarrik bakixus orrek jenerok" - (Hagaitik badakizkizu gauza horiek)

merkadu

plase: plaza, merkatu

"Areatan be ba egote san plase, baye, txikiau" - (Areatan ere ba egoten zen plaza, baina, txikiagoa)

puestu, postu: postua, plazako postua

"Plasan kuite deure puestu" - (Plazan hartzen dute postua)

romane, erromane: erromana

tratante: tratularia

tratu: tratua, salerosketa

19.2. DIRUA

alobere

diru: dirua

"Ordun gero, ak diruk esioskun balioten, Euskadiko diru ordun" - (Orduan gero, diru hark ez zigun balio izaten, Euskadiko dirua orduan)

"Diru boltzan badau, urte dustin diru barik esta ibiltzen" - (Dirua poltsan badago, urte osoan diru barik ez da ibiltzen)

ogerleko, ogorleko: hogerlekoa

"Atxine, urresurisko ogorlekok lurren barrun be enterra, kendu esteitzuesen onek sartu sirenen" - (Antzina, urrezurizko ogerlekoak lurraren barruan ere lurpetu, kendu ez diezazkizuten hauek sartu zirenean)

page

pesete: pezeta

"Orrek kobraten deude eun peseta kiloko" - (Horiek kobratzen dute ehun pezeta kiloko)

txakur txikerra: txakur txikerra

"Selan akordatenas beste at, e, txufa edo, selan esate san? uretan egote san bai,

LEIOAKO HIZTEGIA

egurreko megidetxu et kopatxu et ekarteyun egurreko, tas! emoteuden, txakurrandi bet edo txakur txiker betearrik edo segun se eukiten gendun" - (Zelan gomutatzen naiz beste bat, txufa edo, zelan esaten zen? uretan egoten zen bai, egurrezko neurritxo bat kopatxo bat ekartzen zuen egurrezkoa, tas! ematen zuten, txakur handi bat edo txakur txiker bategatik edo segun ze edukitzen genuen)

txakurrandi: txakur handia

"Txakurrandi bet emote yoskuen guri domekatan be, txakurrandi bet" - (Txakur handi bat ematen ziguten guri domeketan ere, txakur handi bat

19.3. NEURRIAK

alture: altuera

altzi: hatza, neurri moduan erabiltzen dena, kasurako joskigintzan

anega erdi: anega erdia

anega: anega

"Berrotamar kilo dire anega bat, otabos kilo anega erdi" - (Berrogeita hamar kilo dira anega bat, hogeita bost kilo anega erdi)

arre: arra, zehea

"A eseten san ba, arrak eseten siren, bost arra sei arra, ta sera, oten siren, a, kordeltxu et edo, edo asule edo gorri, asule ta gorri, osten orreas eiten sien megidu" - (Hura izaten zen ba, arrak izaten ziren, bost arra sei arra, eta zera, egoten ziren, kordeltxo bat edo, edo urdina edo gorria, urdina eta gorria, ostein horregaz egiten ziren neurtu)

"Etzen euki du guk kordela, megitako kordela ta, megitako kordelagas onek, e, megidute yeun te igual aukite seitusen sei arra sasp arra" - (Etxean eduki dugu guk kordela, neurtzeko kordela eta, neurtzeko kordelagaz honek, neurtzen zuen eta beharbada edukitzen zituen sei arra zazpi arra)

arrobe, arroe: artoa, arroba

"Arrobe tekos amabi t'erdi" - (Arrobak dauzka hamabi eta erdi)

"Arroatati txarri saltzen da, ta beye erraldetati" - (Arrobatatik txerria saltzen da, eta behia erraldetan)

asunbre: azunbrea

asunberdi: azunbre erdia

dosena erdi: dozena erdia

"Suk aituten dotzesu, dosena erdi neska datos, jolin ori erdiko se ederra dan! edo eskineko edo beste edo, basos ferire, plantati, begiri dekon planteas ta dekon seragas igertan dotzesu, e, autxe bai bada ona" - (Zuk aditzen diozu, dozena erdi neska datoz, jolin erdiko hori ze ederra den! edo eskinakoa edo bestea edo, bazoaz azokara, itxuragatik, begiri daukan itxuragaz eta daukan zeragaz igartzen diozu, hauxe bai bada ona)

dosene: dozena

"Asten basara an bana-banan ba sasp dosena saldu dosuneko sasp ordu dos" - (Hasten bazara han banan-banan ba zazpi dozena saldu duzuneko zazpi ordu doaz)

erdi: erdia

erralde: erraldea

"Igual amar arra t'erdi, ta esate yeun orrek, ene! onek amar arra t'erdi, onek igual aukiko tu laurogei erralde" - (Beharbada hamar arra eta erdi, eta esaten zuen horrek, ene! honek hamar arra eta erdi, honek beharbada edukiko ditu larogei erralde)

"Sei arraas, e, berrogetamar erralde" - (Sei arragaz, berrogeita hamar erralde)

gramu

"Eun de otabost gramu ixeta san, e, liber lauren" - (Ehun eta hogeita bost gramo izaten zen, libra laurena)

kane: kana

"Kanak Maite, nik kanak entzun dot" - (Kanak Maite, nik kanak entzun dut)

kantara erdi: kantara erdia

kantara lauren

kantare: kantara, likido neurria

"Kantare ixeta sien amasei litro ta sortzi ixeta san kantara erdi" - (Kantara izaten zen hamasei litro eta zortzi izaten zen kantara erdia)

kilo: kiloa

"Emoidesu kilo bat, e, madari" - (Emaidazu kilo bat, madari)

kilo erdi: kilo erdia

kilo laurena

kilometro: kilometroa

kintela: kintala

kuartillo: kuartiloa

kuartillo erdi: kuartilo erdia

LEIOAKO HIZTEGIA

laurena: laurdena

liberdi: libra erdia

liber laurena

"Oin estakie oingo jentek estaki liber lauren eta orrek sertzu diren" - (Orain ez dakite oraingo jendeak ez daki libra lauren eta horiek zertzuk diren)

libre: librea

litro: litroa

litro erdi: litro erdia

manaju: eskutada

"Porru manejues naiko da" (Porru eskutadagaz nahikoa da)

medide, megide: 1. neurria. 2. gauzak neurtzeko tresnari berari esaten zaio

metro: metroa

moltzo: multzoa

montoya

motrollo: motroiloa, multzoa

ontze: ontza

"Bost ontza arra da" - (Bost ontza arra da)

ontza erdi

partide: partida

"Orre teko diru partide eta estaki setan gasta" (Horrek dauka diru partida eta ez daki zertan gastatu)

pilo: piloa

pisu: 1. pisua. 2. pisatzeko tresna

"Gero aitarrik, arratati, etxate akion pisu, batzuten esiun urtetan, e? botate akion, se segun ganadu selan gobernata egote san atati emote akiosen, e, pisuk, arratati" - (Gero haiengatik, arretatik, botatzen zitzaion pisua, batzuetan ez zuen irteten, e? botatzen zitzaion, ze segun ganadua zelan gobernatuta egoten zen hartatik ematen zitzaizkion, pisuak, arretatik)

"Orrek okelarako se orrek koiten deue pisu asko besten alden, eta presio bere beti karuau, orrek asko giau balio deue" (Horiek okelarako ze horiek hartzen dute pisu asko besteen aldean, eta prezioa ere beti garestiago, horiek askoz gehiago balio dute)

presio: prezioa, salneurria

"Sagarran presio karu da" (Sagarraren prezioa garestia da)

sati: zatia

selemine: zelemina

"Selemin bat egoten san, bost kiloko selemine egoten san" - (Zelemin bat egoten zen, bost kiloko zelemina egoten zen)

sentimetro

siento: ehunekoa, landareak erosteko unean erabiltzen den neurria

"Siento bi porrues urte dustireko baukosus" - (Ehuneko bi porrugaz urte guztirako badauzkazu)

siento erdi: ehuneko erdia

siento laurena: ehuneko lauren

tamañu: tamaina

19.4. JENDEA

eskeko: eskekoa, eskalea

"Atxine eskekok etorte sien atera asko" - (Antzina eskekoak etortzen ziren atera asko)

jente: jentea

"Oingo jentek estaki olau gauserik" - (Oraingo jendeak ez daki holako gauzarik)

"Selan dau jente, umetarik? se gatxa dan, esta?" - (Zelan dago jendea, umetatik? ze gaitza den, ezta?)

"Oin jente gitxiao bixi da, ta an estau arrokeri baño, alkar ikusi esinik" - (Orain jende gutxiago bizi da, eta han ez dago harrokeria baino, elkar ikusi ezinik)

jente modu

"Ene! ak esateun koitedek, selau jente modu ona, bai itzelak!" - (Ene! hark esaten zuen koitadak, zelako jende modu ona, bai itzelak!)

lagune: 1. laguna, adiskidea 2. laguna, deikari moduan erabiltzen da. 3. lagun, pertsona

"Lagun askoko gixona san" - (Lagun askoko gizona zen)

"Afaltan yongo gara ba, amabostan bat lagun" - (Afaltzen joango gara ba, hamabosten bat lagun)

"Ergaldune giau emen Udondo beti ixen da eta gero bakixu kanpora ergaldunekas geu bere lagun igual, eta erdera in ber, ese pentzate yeden euskera iten badu, igual egote siren beste lagun betzuk ergaldunek eta, esteiyen pentza aurokeitarrrik gausela berbas ese batzuk bakixu erreselosok ixeten dires" (Erdalduna gehiago hemen Udondo beti izan da eta gero badakizu kanpora erdaldunakaz geu ere lagun beharbada, eta erderaz egin behar, ezen pentsatzen zuten euskaraz egiten badugu, beharbada egoten ziren beste lagun batzuk)

LEIOAKO HIZTEGIA

erdaldunak eta, ez dezaten pentsa eurongatik gagozela berbaz ezen batzuk badakizu errezelosoak izaten dire)

lapurre: lapurra

persone: pertsona

"Berbas esta kantzetan kantza bearren iten da persone" - (Berbaz ez da nekatzen nekatu beharrean egiten da pertsona)

19.5. KORTESIA FORMULAK

agur: agur

eskerrik asko: eskerrik asko

gero arte: gerora arte, gero arte

gorantzik

jaune

mesedes: mesedez

ola!

19.6. JABETZA ERLAZIOAK

errente: errenta

usaba: uzaba

usandre: uzaba andrea

yaue: jabea

"Ordun errotara yote siren Asure, eta yon, a pe sorro lepon eroteun, baye igual anega ba pe ak, se fuerte ixete san, ta or, e, Arriati edo orti yote sirenen, ba txakurre matek urtete yeun seguru bere, ta txakurre ba ma ma! eta usigiko, usigi iteko bildurreas, eta yaue an tejabanan, yamoni pes, yauek, gaur, e, salba nas usigi bari paye, urregon, e, natorrenen, e, orrek txakur orrek, esta lusero bixiko! eron saku, te txakurre errima yakonen blast! bota saku ganera ta ganen yarri" - (Orduan errotara joaten ziren Asuara, eta joan, hark ere zorroa lepoan eroaten zuen, baina beharbada anega bat ere hark, ze indartsua izaten zen, eta hor, Arriagatik edo hortik joaten zirenean, ba txakurren batek irteten zuen antza ere, eta txakurra ba ma ma! eta haginka egingo, haginka egiteko bildurragaz, eta jabea han tejabanan, jaramonik ere ez, jabeak, gaur, salbatu naiz haginka barik baina, hurrengoan, natorrenean, txakur horrek, ez da luzero biziko! eroan zakua eta

txakurra parajetu zaionean blast! bota zakua gainera eta gainean jarri)

19.7. AUZOEN ERLAZIOAK

alkate: alkatea

"Ori koyu deude alkatetzat" - (Hori hartu dute alkatetzat)

auso

"Ausori botate gentzen t'eurok ite yeenen geuri be bai" - (Auzoei botatzen genien eta eurek egiten zutenean geuri ere bai)

ausoko: auzokoa

bande: talde

batzarra

"Beye il ite yeden se, eta yote siesen, etzera, ta yo nas ni, sarri yo nas abisaten, bier dau, sera, batzarra e! bier batzarra dau, onen lekuten e!" (Baina hil egiten zuten ze, eta joaten ziren, etxera eta joan naiz ni, sarri joan naiz abisatzen, bihar dago, zera, batzarra e! bihar batzarra dago, honen lekutan e!)

"Esan deu aitek ese bier batzarra daule" (Esan du aitak ezen bihar batzarra dagoela)

beste alde: beste aldea, bizitza biko etxeetan norberarena ez den zatia

beste aldeko: beste aldekoa

"Gure beste aldekok auki eden ganadu asko, esta? yote sien egunero Portualtera esnekas" - (Gure beste aldekoek eduki zuten ganadu asko, ezta?)

"Eta batek ain, e, ain beste aldeko batek esa iusten se, estait selauk libruk bota deitusen Ameriketati Basañesek, Jesusek, nik eneun esetuten ori Jesus ori, entzute bai baye ikusi edo esetu neuk es ta, esa nontzen se, ta no tekos orrek libruk Miren ba? esa nontzen ta, sos don Salbadoreana, eta don Salbadoren anaje, Bisente geitzesan, ta Bisente, eta yo nintzen, ta esa yeusten ta, estait Karmen aren lotzen bada ba, itxoron apurtxu beten, ta aitu yeun ta emo yeusten berak bat" - (Eta batek haien, haien beste aldeko batek esan zidan ze, ez dakit zelako liburuak bota dituzten Ameriketatik Basañezek, Jesusek, nik ez nuen ezagutzen Jesus hori, entzutea bai baina ikusi edo ezagutu neuk ez eta, esan nion ze, eta nork dauzka liburu horiek Miren ba? esan nion

LEIOAKO HIZTEGIA

eta, zoaz on Salbadoregana, eta on Salbadoren anaia, Bizente deitzen zen, eta Bizente, eta joan nintzen, eta esan zidan eta, ez dakit Carmen arean lotzen den ba, itxaron apurtxo baten, eta aditu zuen eta eman zidan berak bat)

beste aldeko-beste aldekok

euso, ausoa: auzoa

jere

"Akabaten danen bearra, ordun iminten da errame, ta oin ein ber da jere" (Amaitzen denean beharra, orduan ipintzen da abarra, eta orain egin behar da jera)

konbidedu: gonbidatua

konbidedu egune: gonbidatu eguna

konsejala: zinegotzia

*"Ondino konsejaltzat segitan deu orrek ala?"
- (Oraindino zinegotzitzat segitzen du horrek ala?)*

kuadrille: lagun taldea

"Mugiera yo nas ni, gerrako denporan, e, abastosekok ibilte sienen, astoas yoten gintzesen, e, kuadrille bat, Mugiera ñes emeti" - (Mungiara joan naiz ni, gerrako sasoian, abastosekoak ibiltzen zirenean, astoagaz joaten ginen, talde bat, Mungiara oinez hemendik)

mesede: mesedea

19.8. ELKARTEAK

depostario

ermandade: ermandadea

"Geu pe ermandade euki gendun" - (Geuk ere ermandadea eduki genuen)

"Neure aite pere erote yen ermandade bat" (Neure aitak ere eroaten zuen ermandade bat)

erremate: erremata

etze errena: etxe errearena, etxeak erretzekotan segurantzaz antzekoa

"Ona etorte san andra bat, ortiko bat, etze errena, diru batzen, en jeneral gabonatan" - (Hona etortzen zen andre bat, hortiko bat, etxe errearena, dirua batzen, gehienetan gabonetan)

sindikato: sindikatua

tasadore: tasadorea, ermandadaren izenean ganadua tasatzen joaten zena

"Tasadorek ote siesen ta yote siesen, gure aite ixen san aministradore, gero gixon bi edo

iru tasadorek, ta etorte siesen ba, domekatan edo, etzerik etze, ikusten beyek" (Tasadoreak egoten ziren eta joaten ziren, gure aita izan zen administradorea, gero gizon bi edo hiru tasadoreak, eta etortzen ziren ba, domekatan edo, etzerik etxe, ikusten behiak)

toto: jatorduaren truke elkarren artean egiten ziren beharrak, esate baterako sats totoa; satsak biltzeko edo ateratzeko elkartu lagunak eta gero uzabak jatordu bategaz ordaintzen zuen

"Ori porejenplo ba idikes, artu idik eta gaur, e, gurera, ta bier ausora, ba artu idik eta basora yon, edo egurretan, edo, a, edo aspigarri bile, bai toto esaten san bai" - (Hori esate baterako ba idiakaz, hartu idiak eta gaur, gurera, eta bihar auzora, ba hartu idiak eta basora joan, edo egurretan, edo, edo azpigarri bila, bai totoa esaten zen bai)

19.9. EZKONTZA

alargune: alarguna

"Ori nire aiste da, oin lotu da alargun ta neues oten da emen" - (Hori nire ahizta da, orain lotu da alargun eta neugaz egoten da hemen)

"Alargunek edo olan eskontan sien goxen goxetik" - (Alargunak edo holan ezkontzen ziren goizean goizetik)

arreo: arrea

bode: ezkontza

"Neure bere etzen ein san, eskondu, eta es jenerik eta inor, sera, amabitxies eta aitebitxies elexara yon, ta gero bodara etorte siren baskaltan, baskari yan ta gero etzera" - (Neurea ere etxean egin zen, ezkondu, eta ez jenderik eta inor, zera, amabitxiagaz eta aitabitxiagaz elizara joan, eta gero ezkontzara etortzen ziren bazkaltzen, bazkaria jan eta gero etxera)

dote: dotea

"Dote, sera, mutile bada dirudune, nobien etzerako, ta nobie paiko mutilen etzerako ta olan eite yeuden" - (Dotea, zera, mutila bada diruduna, andregaiaren etzerako, eta andregaiak badauka mutilaren etzerako eta holan egiten zuten)

geyerak

LEIOAKO HIZTEGIA

mutil sarra

"Bera mutil sarra, amaas biste san" - (Bera mutil zaharra, amagaz bizitzen zen)

neska sarra

nobie: andregai

nobio: gizongaia

soltere: ezkonbakoa (f.)

solteru: ezkonbakoa

19.10. MUSIKA-DANTZA

dulsaineru: dultzaina jolea

gitarre: gitarra

"Esetan dosu iñor, e, gitarre yoten dakinik?" - (Ezagutzen duzu inor, gitarra jotzen dakienik?)

jasban

"An eite en soñu batek, eta kanta be bai eurek, eta sera gero ori, ori jasban" - (Han egiten zuen soinua batek, eta kantatu ere bai eurek, eta zera gero hori, hori jazband)

jote: jota

"Jota tekos, naye burun" - (Jotak dauzka, nahia buruan)

kante: kantua

"Ordun kanta pe bai, kanta pe yakiten gendusen, gaur estakit aren baye" - (Orduan kantak ere bai, kantak ere jakiten genituen, gaur ez dakit arean baina)

kantzino, kansino: kanta

kople

"Ori ixen baño lelau, ori nik ori markesan alaba i nendun, e, gaste nasela plasara yo nintzen Portualtera ta egon san gixon bat saltzesela koplak, eta, bera kanta erosi neuntzen, ta etorte nintzen asto ganen etzera, ori estudia ta estudia ta estudia" - (Hori izan baino lehenago, hori nik markesaren alaba hori egin nuen, gaztea naizela plazara joan nintzen Portugaletera eta egon zen gizon bat saltzen zituela koplak, eta, bera kanta erosi nion, eta etortzen nintzen asto gainean etxera, hori estudiantu eta estudiantu eta estudiantu)

mosu gitarre: musu gitarra

musike

"Ene! igual aik obeto ingo deure gu paño se gu beti sartu gares onentza Portalterantza ta, estakixu gastek ixeten gintzenen bere Portaltera ta Erandiora egote san musike, Disiertun, e, es seran, baye orkok

baserrikok, baserri esaten geuntzen ari" (Ene! beharbada haiek hobeto egingo dute guk baino ze gu beti sartu gara honantza Portugaleterantza eta, ez dakizu gazteak izaten ginenean ere Portugaletera eta Erandiora egoten zen musika, Desertun, ez zerean, baina horkoak baserrikoak, baserri esaten genion hari)

musiku

pandereteru: pandero jolea

pandero: panderoa

"Txikerrak eiten deu pandero yo, ta kanta" - (Txikerrak egiten du panderoa jo, eta kantatu)

panderodune: panderoduna

"Kanbia asko, galduten do, se soñularik esteu iños kanta, beti ixen da panderok, panderodunek" - (Aldatu asko, galduz doa, ze soinulariak ez du inoiz kantatu, beti izan da panderoak, panderodunak)

soñu, sonu: soinua

"Onek atxineko deko dusti, kansinok atxinekok, ta oin eite otzue beste modu betera, soñu yo ta kanta eurek" - (Honek antzinakoa dauka guztia, kantak antzinakoak, eta orain egiten dizute beste modu batera, soinua jo eta kantatu eurek)

soñulari: soinularia

txistu: txistua

txistulari: txistularia

txuntakata

"Yolasa esetu ot sonues, e, txuntakata, atxineko, txuntakata atxine" - (Jolasa ezagutu dut soinuagaz, bateriagaz, antzinakoa, bateria antzina)

"Txuntakata ixen san atxine plater bi, olan txin txan ta txin txaka ta, txin ta ka ta txin, olan euki yeun usena txintakata, or Berangon yote yen, ni nasela gaste, amasortzi urte nik euki neusen" - (Bateria izan zen antzina plater bi, holan txin txan eta txin txaka eta, txin eta ka eta txin, holan eduki zuen izena txintakata, hor Berangon jotzen zuten, ni naizela gaztea, hamazortzi urte nik eduki nituen)

yantze: dantza

yolasa: jolasa, plazan domeketan eta jaiegunetan egiten zen dantzaldia

"Yolasa emen Berangon, Asun, Sopelan, Areatan be bai" - (Jolasa hemen Berangon, Asuan, Sopelan, Areatan ere bai)

LEIOAKO HIZTEGIA

19.11. KIROLA

idi probe

mante

"Sanisidrotan, emen esan oten, baye Erandioko Landan, sera ote san, premiok, eta ganadurik ederrena erote yena premio, nire aitek ekarri yena andik, e, eron bei bet, beye beantxa bat eta mante ta premio ta dusti ekarri yena" - (San Isidroetan, hemen ez zen egoten, baina Erandioko Landan, zera egoten zen, sariak, eta ganadurik ederrena eroaten zuenak saria, nire aitak ekarri zuen handik, eroan behi bat, behia begantxa bat eta manta eta saria eta guzti ekarri zuen)

premio: saria

"Guk, e, premiok emen, e, ayuntamintun bean on san probaderu, nire aitek eta tiok, e, sera, probatara ekarri idik, ta premiok atarata gaus" - (Guk, sariak hemen, udaletxearen behean egon zen probalekua, nire aitak eta osabak, zera, probetara ekarri idiak, eta sariak aterata gagoz)

probe: proba

"Oin dausenak probatarako, besterik estau" - (Orain dagozenak probetarako, besterik ez dago)

19.12. AISIA

berso: bertsoa

bersolari

"Bersolarik asko Leyoan egon diren, bat Luis Llona ta beste bat Zarraga, Florentzio Zarraga" (Bertsolariak asko Leioan egon dira, bat Luis Llona eta beste bat Zarraga, Florentzio Zarraga)

erromeri: erromeria

"Undoko erromeri asi san probakas" (Udondoko erromeria hasi zen probakaz)

etorri: etorria, jarioa

19.13. KARTA JOKOAK

basto: bastoa

bateko: batekoa

biko: bikoia

bosteko: bosta, bostekoa

briske: briska

errege: erregea

espate: ezpata

fue: fua, azpia karta jokoan

iruko: hirua, hirukoa

kaballoa: zaldia

karta piloa: karta multzoa

karta yoko: karta jokoa

karte: karta

kontadurie: kontaketa

kope: kopa

lauko: laua, laukoa

muse: musa

saspiko: zazpia, zazpikoa

seña: keinua

seye, seikoa: seia, seikoa

tantue: tantoa, puntua

tortoloa: bateko urrea

tranpe: tranpa

tute: tutea

txanke: txanka

urre: urrea

yoko: jokoa

19.14. EHIZA-ARRANTZA

amue: amua

antzuelue: amua

butroya: butroia

erretela: erretela, karramarroak harrapatzeko sarea

erreterea: erretera, saguak eta harrapatzeko erabiltzen diren tranpak

eskopete: eskopeta

kase: ehiza

kaseru: ehiztaria

lasue: lazua, lukiak harrapatzeko erabiltzen zena

oñetza: oinatza

oñetzan markea: oinatzaren aztarna

pitea: pita

plomo: beruna

"Plomo bero botaten badosu uretara, txispek beti urten ber deude" - (Berun beroa botatzen baduzu uretara, txinpartek beti irten behar dute)

"Plomo sati bet iminte yena urtuten sartenen" - (Berun zati bat ipintzen zuen urtzen zartaginean)

LEIOAKO HIZTEGIA

sarea: sarea

tramallue: arrainak harrapatzeko sarea

tranpe: tranpa

19.15. JAIEGUNAK

aginaldo

andramari

"Andramariten etorko sisen onek ona"
(Andramarietan etorriko ziren hauek hona)

andramaritxu egune

"Setienbren sortzin, amabrijinen egune da, ta bederatzin, andramaritxu egune, egunik andiena" - (Irailaren zortzian, amabirjinaren eguna da, eta bederatzi, andramaritxu eguna, egunik handiena)

astesantu: aste santua

"Emen, e, seran, eiten danen astesantu, prosesioño yoten gintzen Ondisera, nire aite aurren yote san kurseas" - (Hemen, zerean, egiten denean aste santuan, prozesioa joaten ginen Ondizera, nire aita aurrean joaten zen gurutzeagaz)

autzen egune: hautsen eguna

domusantu: domu santua, domu santurua

"Domusantureko eroste siren gero urte dusti aguantate yeden" (Domu santurako erosten ziren gero urte guztian irauten zuten)

erregena: erregeena

gabonak: gabonak

"Oritxe gastaña lapikoko bai, ak beti iteyun urten urten ak gastaña lapikoko barik eyeun eukiten gabonik" - (Horixe gaztaina lapikokoa bai, hark beti egiten zuen urtean-urtean hark gaztaina lapikoko barik ez zuen edukitzen gabonik)

"Ondik eta gabonetara ikusko du" (Hemendik eta gabonetara ikusiko dugu)

gabon egune: gabon eguna

"Saskeleri euki yean naye an kusite ta garbite siren ondo, ta eukiten gendusen gabon egunerako, akabu artean atara, akabuko urten bere kilo bat euki gendusen" - (Saskeleria eduki zuten nahia han hartuta eta garbitzen ziren ondo, eta edukitzen genituen gabon egunerako, azkenera arte atera, azken urtean ere kilo bat eduki genituen)

gabon sarra: gabon zaharra

gabon yaye

garixume: garizuma

"Gero karnabalak eta, askeneko egunen, garixume asi baño askenengo egunen martzenan, ta gure amak eite yetzen ordun orioas ta ain koipeas be igual baye es, urreko egunen sobraten basien esin yan koipedunek eta orioas yan ber ixeta sien ta ordun orioas sobraten bada batan bat urreko egunerako eukiteko, yateko pekaturik ein esteko" - (Gero aratusteak eta, azkeneko egunean, garizuma hasi baino azkeneko egunean martitzenean, eta gure amak egiten zion orduan olioagaz eta haren koipeagaz ere beharbada baina ez, hurrengo egunean sobratzen baziren ezin jan koipedunak eta olioagaz jan behar izaten ziren eta orduan olioagaz sobratzen bada baten bat hurrengo egunerako edukitzeko, jateko bekaturik ez egiteko)

kandelario egune: kandelario eguna

"Kandelario egunen be bai, sesallen bien kandelario be bai, ordun be bai guren amak eiteusen" - (Kandelario egunean ere bai, zezeilaren bian kandelario ere bai, orduan ere bai gurean amak egiten zituen)

kanpoa martxo

"Kanpoa martxo, tostadak eiten gendusen" (Kanpora Martxo, tostadak egiten genituen)

karnabala: aratustea

karnabal egune: aratuste eguna

madalentxu egune

"Madalentxu egunen yate neusen nik ikok orrek brebak" - (Madalentxu egunean jaten nituen nik ikoak breba horiek)

sanantonio egune

"Sanantonio egunen, beyek, e, bedeinketu, beyen egune esate san" - (San Antonio egunean, behiak, bedeinkatu, behien eguna esaten zen)

San Bartolome egune

"Guk etzen estu euki, e? badakixu ser pasten dan, guk an San Bartolome egunen eiten gendun, e, selebra, ta Santiago egunen aitite yote san Bilbora eta ekarte yen auntze bat" (Guk etxean ez dugu eduki, e? badakizu zer pasatzen den, guk han San Bartolome egunean egiten genuen, ospatu, eta Santiago egunean aitaita joaten zen Bilbora eta ekartzen zuen ahuntz bat)

sanjuanak

san juanade

LEIOAKO HIZTEGIA

san juan egune

Santa Ageda: Santa Ageda

Santageda egune

Santo Tomas egune: Santo Tomas eguna

"Santo Tomas egunen, e, etzealdeak eukite yeresenak errentan, yote siren, e, ollarrak kuxi sesto, ori esetu dot" - (Santo Tomas egunean, baserriak edukitzen zituztenak errentan, joaten ziren, oilarrak hartu otzara, hori ezagutu dut)

txarribode: txerriboda

"Gero txarribodatan, e, eroten gendun odoloste" (Gero txerribodetan, eroaten genuen odoloste)

"Gero gauen ba tiok ta tiak eta dustik etorte siren, txarribodara, ta beti eukiten gendun lope, txarrin lope, a lodi, ak iru edo lau kilo dekos, ak lopek, eta gero odolostek" (Gero gauean ba osabak eta izeakoak eta guztiak etortzen ziren, txerribodara, eta beti edukitzen genuen lopea, txerriaren lopea, lodi hura, hark hiru edo lau kilo dauzka, lope hark, eta gero odolosteak)

urte barri

"Amen gatos urte barrin bile, eta igual diru aputxu bet emote yoskun, eta beste batzuten intxurrek, gastaya, okeranak" (Hamen gatoz urte berriaren bila, eta beharbada diru apurtxo bat ematen ziguten, eta beste batzuetan intxaurrek, gaztaia, okaranak)

urte barri egune: urte berri eguna

"Urte barri egunen, e, kantetan bai, geu be yon gare, etzerik etze, sestiletxu bet artute, urte barrin bile" - (Urte berri egunean, kantatzen bai, geu ere joan gara, etzerik etxe, otzaratxo bat hartuta, urte berriaren bila)

yaye: jaia

19.16. EUSKARA

berori: berori, berorika

"Berori bai, ineskeronen, e, jente aputxu bet seraas, edo abaderi te bai, berorrek, oin bere bai" (Berori bai, eginez gero, jende apurtxo bat zeragaz, edo abadeari eta bai, berorrek, orain ere bai)

estona ta badona: ez dona eta badona tratamenduaren izena

estok eta badok: ez dok eta badok tratamenduaren izena

"Gure aitite defuntuk iten yen estok eta badok, ak llobari be geitzeko, esan bearren erdu ona etor adi ona iten yoskun, se sentalle iten dona or ba? estok eta badok iten yoskun barbarik geyena" - (Gure aitaita difuntuak egiten zuen ez duk eta badok, hark lobei ere deitzeko, esan beharrean erdu hona etor hadi hona egiten zigun, ze zentaila egiten dun hor ba? ez duk eta badok egiten zigun barbarik gehiena)

"Porrejenplo mutileri dinotzet ese, nondi ator? eta neskatori dinotzet, nondi atorrena i?" (Esate baterako mitilari dinotsat ezen, nondin hator? eta neskatoari, nondik hatorrena hi?)

"Dustirik yakiteun ak eta berbas bere estok eta badok, beti, aitek es ainbeste" (Guztietarik jakiten zuen hark, eta berbaz ere hika, beti, aitik ez hainbeste)

euskere, auskere: euskara

"Bai, se guk baturik estakigu, e? guk, e, batute daunik estakigu, guk sabaldute dauna dakigu bakarrik" - (Bai, ze guk baturik ez dakigu, e? guk, batuta dagoenik ez dakigu, guk zabalduta dagoena dakigu bakarrik)

"Beste ogei urte barru gure euskere desaparesidu ingo da" (Beste hogeitun urte barru gure euskara desagertu egingo da)

"Diferentzi daus bai, Berangoti Leyoara be" (Desberdintasunak dagoz bai, Berangotik Leioara ere)

"Leyoati beti entzun dot ori, Leyoako euskere txarrena dala" (Leioatik beti entzun dut hori, Leioako euskara txarrena dela)

"Oin batzuten kanbiaten du ya euskera be, onekas ikastolako umekas gabiltzes eta ya apur bet sartu iten gare, bai, bai, geure erara baño orreri entzuten dotzegules, gure neskatotxuk ademas ederto iten dau te mutile pe bai" (Orain batzuetan aldatzen dugu ja euskara ere, ikastolako ume hauekaz gabiltza eta ja apur bat zertu egiten gara, bai, bai, gure erara baino hauei entzuten diegunez, gure neskatotxoak gainera ederto egiten du eta mutilak ere bai)

"Es, estot topaten ya Erandiora beste sera ba tau beste dejetxu bet baye bardin antzen, igual antzen" (Ez, ez dut topatzen ja

LEIOAKO HIZTEGIA

Erandiora beste zera bat dago beste kutsu bat baina berdin antzean, berdin antzean)

"Orrek ya auki deue ya euskera giau gu paño, se guk badinotzut etzen baño es, se ya ostantzen, ya dana erdaldune" (Horiek ja eduki dute ja euskara gehiago guk baino, ze guk badinotsut etxean baino ez, ze ja osterantzean, ja dena erdalduna)

"Batzuten esaten du modu betera beste batzuten bestera, segun noas sausen berbas bere, ya emen bakixu gitxi lotu gares euskeraskok, ya gitxi lotu gares" (Batzuetan esaten dugu modu batera beste batzuetan bestera, segun nogaz zagozen berbaz ere, ja hemen badakizu gutxi lotu gara, euskarazkoak, ja gutxi lotu gara)

erdere: erdara

19.17. GERRATE-SOLDADUSKA

batalloya

gerre: gerratea, gerla

"Nire gixonak, e, Batzokiti urte yen gerrara, Santanderen il yesten, Linpiasen dekot enterrata" - (Nire gizonak, Batzokitik irten zuen gerlara, Santanderrn hil zidaten, Linpiasen daukat lurpetuta)

"Bai, gure amak eite yen gerran, gerran eite yen etzen" (Bai, gure amak egiten zuen gerratean, gerratean egiten zuen etxean)

karsele

kinte

polborine

"Or be polborin bet eon san" - (Hor ere bolborategi bat egon zen)

preso

soldadiske: soldaduska

soldadu: soldadua

"Ara sartu sirenen andi Kurkudi menditi soldaduk etor direnen ara, enei!" - (Hara sartu zirenean handik Kurkudi menditik soldaduak etorri direnean hara, ene!)

20. OROKORRA

Atal honetako berbak ezin sartu izan ditugu arteragoko ataletan, izan ere, batekoak baino gehiagokoak izan daitezke; halandaze, hona hemen denak jarraian.

aberi: aberia, matxura

abioya

ademas: gainera

adornu

afana: grina

afesino, afisino: zaletasuna

"Esta egon afesinorik" - (Ez da egon zaletasunik)

akabu: amaiera

akordu: akordua, gomuta

"Estekot akordurik" - (Ez daukat gomutarik)

aldea, aldia: aldea

alderdi: alderdia

alegine: ahalegina

"Alegine in ber dot arin akabateko" (Ahalegina egin behar dut arin amaitzeko)

antza: antza

"One teko aiten antza" - (Honek dauka aitaren antza)

anuntzioa: iragarkia

apellidu: abizena

"Selan dekосу apellidu?" (Zelan daukazu abizena?)

apenas

aprobe: aproba

ardure: ardura

"Orren ardure badeku" - (Horren ardura badaukagu)

"Etorri espada esta ardurarik" (Etorri ez bada ez da ardurarik)

armasoya: armadizua

arrabioa: amorrua

arrose: arrazoia

asarre: haserrea

atxaki: aitzakia

autoa: autoa, automobila

autobuse

"Oin be ni Urkiolara urte, urten urten yotesa nas, oin ya esi nas ibili, autobuse eukiten gendun emeti" - (Orain ere ni Urkiolara urte, urtean-urtean joaten izan naiz, orain ja ezin naiz ibili, autobusa edukitzen genuen hemendik)

automobile

bai: bai

bake: bakea

"Itxiostesu baken" (Utz iezadazu baketan)

bakotxa

bande

balorea: balorea

banderea: bandera

LEIOAKO HIZTEGIA

bañue: bainua

barku: barkua

barri: berria, albistea

"*Atxineko gure Juan Antonen barrik yakin doas gaur*" - (*Antzinako gure Juan Antonen berriak jakin ditut gaur*)

batzoki

bayetz: baietz

"*Bai pentzaten dot nik bayetz, len baño asko geyao iten da*" (*Bai pentsatzen dut nik baietz, lehen baino asko gehiago egiten da*)

bear lodie: behar lodia, tropea, nekagarria

bearleku: 1. beharlekua. 2. behar dorpea

bearra: 1. beharra, lana. 2. beharrizana, beharra

"*Orrek bear dustik eiten siren atxine*" - (*Behar guzti horiek egiten ziren antzina*)

"*Garik bear asko emote yen*" (*Gariak behar asko ematen zuen*)

bentajea: abantaila

berba etorrie: berba etorria

berbe: berba

"*Es, es, ori berbe esta atxineko, ori berbe da oingo barri*" - (*Ez, ez, berba hori ez da antzinakoa, berba hori da oraingo berria*)

berrixena: beharrizana

beste: bestea

betrinario

"*Atxine betrinario bat ote san bakarrik betrinario ta alde andi, ta bear itzela eukite yen*" - (*Antzina albaitari bat egoten zen bakarrik albaitaria eta baserrialde handia, eta behar itzela edukitzen zuen*)

bieje, biaje: bidaia

bildurre: bildurra

"*Umek ixen gintzesen baye gu balienteenak, balienteenak edo, eskendules yakiten bildurre ser dan ondinokarren*" - (*Umeak izan ginen baina gu ausartenak, ausartenak edo, ez genuenez jakiten bildurra zer den oraindinokarren*)

"*Orren bildurre dekot nik*" - (*Horren bildurra daukat nik*)

bitartea: bitartea

bitartekoa: bitartekoa

biximodu: bizimodua

"*Atxineko geure biximodu selan ixete san edo*" - (*Antzinako geure bizimodua zelan izaten zen edo*)

"*Gure biximodutxu, olantxe ixen da ederra*" - (*Gure bizimodutxoa, holantxe izan da ederra*)

botala: bota ahala

brillu: ditzira

buelte: buelta

burle: trufa, txantxa

deseo

"*Begiskones esta iten deseo txarraas, begiskones esaten deude bere aite pere ei liola bere aite pere*" - (*Begizkoa ez da egiten deseio txarragaz, begizkoa esaten dute bere aitak ere egin liezaiokeela bere aitak ere*)

desjeneroa: ezgauza

deskantzu

"*Urkiolan, ni lo inte nau urte dustiten, amomak eta aititek eroten yesten, yoten gintzesen, besperan, Bilbon baskalta gendun, gero kuiten gendun tranbie, eta yoten gintzen Durongora, eta gero Durongoti gora, uñes, eta, urte askotan igual bustite, eta ite yoskuen bekosube, Urkiolan, eta gero lo, ire artera, ire arten deskantzu, gastetan edosein lekun eiten da*" - (*Urkiolan, ni lo eginda nago, urte guztietan, eta amamak eta aitaitak eroaten ninduten, joaten ginen, bezperan, Bilbon bazkaltzen genuen, gero hartzen genuen trabia, eta joaten ginen Durangora, eta gero Durangotik gora, oinez, eta, urte askotan beharbada bustita, eta egiten ziguten beheko sua, Urkiolan, eta gero lo, ira-artera, ira-artean deskantsua, gaztetan edozein lekutan egiten da*)

dolore

"*Oin estekola dolore modurik esate yen baye*" (*Orain ez daukala min modurik esaten zuen baina*)

doye: dohea

drogea: droga, bihurrikeria

dude: ezbaia, zalantza

egi: egia

"*Baye ori egi da ori egi da, atxine oin baño obeto aitzen san, aitu ber ixetan san gauseri*" - (*Baina hori egia da hori egia da, antzina orain baino hobeto aditzen zen, aditu behar izaten zen gauzei*)

"*Esta egi akaba deuenta*" (*Ez da egia amaitu dutena*)

ei: ei, omen

emendio: zerbitzu

"*Onek emendiorik in dotzu?*" (*Honek zerbitzurik egin dizu?*)

ende

LEIOAKO HIZTEGIA

"Urte birik edo iru urte edo ba, ba andi ekarri indabak, emeti eron selemín bet indaba eron, ta beste selemín bet ekarri, ba sera, ende kanbiateko, ende kanbiateko iten san bai" - (Urte birik edo hiru urte edo ba, ba handik ekarri indabak, hemendik eroan zelemín bat indaba eroan, eta beste zelemín bat ekarri, ba zera, enda aldatzeko, enda aldatzeko egiten zen bai)

endredue: endredua

entzutea: ospea, entzutea

erbestea: erbestea

erbestekoa: erbestekoa

ere: era

eretxi: eretxia, iritzia

"Minik txarrena dalako dekot nik neure eretxin, belarriko mine" - (Minik txarrena delakoa daukat nik neure eretxian, belarriko mina)

erraya

erregalu: erregalua, oparia

errege

erregular: beharbada

errekadu

erremesa

errespeto: begirunea

errestaurantea: errestaurantea

erresultadue: emaitza

erretirue: erretiroa

erretratu: argazkia

erriltea, errieltea: errieta

errimu

erronke: erronka, harrokeria, istilua

errosoya: arrazoia

erru: errua

"Etorten badire soldaduk, ta ni eroten baneude sure erru ixengo da ba, nik gur ixen dot martxa ta" - (Etortzen badira soldaduak, eta ni eroaten banaute zure errua izango da ba, nik gura izan dut joan eta)

es: ez

esalegi: esaera

esate baterako: esate baterako

esaupide

esetz: ezetz

esixena: ezizena

eskarmentue: eskarmentua

esku bearra: esku beharra

estorbu: enbarazua

estranjerie: estranjeria

ete: ete, ote

etxala: bota ahala

etxurea: itxura

euskal erri

autobuse: autobusa

faltea: faltea

fame

"Fama andi euki yeun Butroyek madalentxuten, bai!" - (Ospe handia eduki zuen Butroek madalentxotan, bai!)

fatxadea: 1. patxada. 2. itxura

file

firme: sinadura

formea: itxura, irudia, era

gane: gogoa

"Ai! au da buruko mine! eta oyan oteko gane dekot" - (Ai! hau da buruko mina! eta ohean egoteko gogoa daukat)

ganera: gainera

ganore: ganora, trentina

garrotea: garrotea, egurra, tratu txarra

gasolinesko motorra: gasolinazko motorra

gause: gauza

"EsaiXu edosein gause" - (Esan ezazu edozein gauza)

gedarra: gedarra, deiadarra

geye: deia

gobernadore

gobernu

gogo: gogoa

gomea: goma

gorrotoa: gorrotoa

grasi: grazia

"Esteude kantaten grasies" - (Ez dute kantatzen graziagaz)

guarda sibile

guardi

gusture: gustura

gusurre: gezurra

idea: ideia

igual: berdín, beharbada

"Orrek igual ekarko deude, ardiran bat" - (Horiek beharbada ekarriko dute ardiran bat)

ikutue: ikutua

inbidie: bekaitza

iribagi

"Baye aite paño amak euki yen iribagi geyao nire amak euskera, bersotan" (Baina aítak baino amak eduki zuen erabaki gehiago nire amak euskeraz, bertsotan)

irudie: irudia

istori: ipuina

LEIOAKO HIZTEGIA

itxure: itxura

ixen apelliduek: izen-deiturak

jenero: gauza

"Mugiera, yoten gintzen indaben bile, ta jeneron bile" - (Mungiara, joaten ginen indaben bila, eta gauzen bila)

julane

julano, fulano

kaltze

kamioya

kanbio: aldaketa

karesi

kargu: kargua

karraderea: karradera, galapa

karte: gutuna, eskutitza

kasu beterako: esate baterako

kasu: kasua

kasureko: kasu baterako

kategori: kategoria, maila

kejea: keja

klase: mota

"Auki dus guk, klase ortako sekorrak auki dus guk" - (Eduki ditugu guk, mota horretako zekorrak eduki ditugu guk)

kolore: kolorea

"Se koloretako da ori?" - (Ze koloretakoa da hori?)

komerie: komeria

konpromisoa: konpromisoa

kontaixu

kontrara: kontrara

kontu: kontua

kople: koplak, kontu

kortade

kostunbre: ekandua

kotxe: autoa

kustiño da se

"Batzuten emote yoskuen atzera, beste batzuten esate yean abastoseko egon dala ta kendu deudela, estait se pasate san, baye kustiño da se sarriten eiten gendun alperriko biaje" - (Batzuetan ematen ziguten atzera, beste batzuetan esaten zuten abastosekoa egon dela eta kendu dutela, ez dakit zer pasatzen zen, baina kuestioa da ze sarritan egiten genuen alperriko bidaia)

lastime

lotze

makinea: makina

makinerie: makinaria

manaju: erabilera

martxea: martxa

matrake: matraka

memori

meritu: meritua

"Eskeuntzen emoten meriturik, batzuk ite yeuden suk esan dosules beste batzuk, ya ulertuten gintzen" (Ez genion ematen meriturik, batzuek egiten zuten zuk esan duzunez beste batzuek, ja ulertzen genion elkarri)

miseri, misiri: miseria

"Oin esaten dot misiri itzelak pasa dodas oin, estot misiriri pasa bearrik nik" - (Orain esaten dut miseria itzelak pasatu ditut orain, ez dut miseriarik pasatu beharrik nik)

modu: modua

motea: ezizena

motorra: motorra

mundu: mundua

"An ote nas batzuten yarrite, an oten da batzuten andra bat, se sentella! dinotzet dinoude se, Leyoako errin estaula ume asko, ikusi estosu ikusi andi goiti datorren bande, eta dinost berak ese, bai Leyoako errin, estait nik beste erri batzuten ser ongo dan baye makine ba tau emen, emen estau mundun akabu etorteko bildur andirik, es, badau ume naye emen, Jesus!" (Han egoten naiz batzuetan jarrita, han egoten da batzuetan andre bat, ze zentaila! dinotsat dinote ze, Leioako herrian ez dagoela ume asko, ikusi ez duzu ikusi handik goitik datorren taldea, eta dinost berak ezen, bai Leioako herrian, ez dakit nik beste herri batzuetan zer egongo den baina makina bat dago hemen, hemen ez dago munduaren amaiera etortzeko bildur handirik, ez, badago ume nahia hemen, Jesus!)

naste: nahastea

notisie: berria, albistea

obre

orde

papela, papera: papera

parade: geltokia

paraje

pasade: jipoia

pasadisue: pasadizoa

pasigoa: paseoa

peligru

pene

LEIOAKO HIZTEGIA

"Batara bat lotuko san, selau libru! selau pene!" - (Baten bat lotuko zen, zelako liburu! zelako pena!)

periodiku: egunkaria

"Ademas ote san postotxu bet periodikuk eta saltze yena" (Gainera egoten zen postutxo bat egunkariak eta saltzen zituztena)

permiso

"Aurek esian emoten permisorik eser iteko, eta auren permiso barik eiten basendun, kendu" - (Eurek ez zuten ematen baimenik ezer egiteko, eta euren baimen barik egiten bazenuen, kendu)

plante: planta, ixtura

pobrese: pobrezia

polisie: polizia

posa

pregunte

prise

probetxu: probetxoa

salide: intenbidea

saroa: planta, itxura

sebo: bilgorra

segun antza: segun antza

segun: segun

segun trasa, sen trasa

"Dominika Goiko Etxeko pe ite yen, Edurne pe iten deu segun trasa ondino bataran bateri urren" - (Dominika Goiko Etxekoak ere egiten zuen, Edurnek ere egiten du antza oraindino baten bati hurrean)

seguru bere: antza

"Esta ixen Leyoako seguru bere" - (Ez da izan Leioakoa antza)

"Eta ixen san a seguru bere alargune" - (Eta izan zen hura antza denez alarguna)

segurutik: ziurrenik, segurutik

seine: zeregina

selo: zeloa

sendalle: seinalea

sera

serbitzu

serikusi, seikusi: zer ikusia

sikeran

sirrie: zirria

sobra: hondakina

sobrantea: hondakina

subertea: zortea

sustu

tabako: tabakoa

tabakorrie: tabakoa

tanborra: danborra; makinetakoa

tande: txanda

telebiste

telefono: telefonoa

tonterrie: inuzentekeria

tranbie

tranpe

trena: trena

"Bano se trenak ensegida urtengo deu" (Banoa ze trenak behingoan irtengo du)

trenbidea: trenbidea

tranbie: tranbia

trentine: trentina, ganora

trete: treta

tristese

ueku

umore: umorea, aldartea

urren: hurrean, aurki

"Bai urren!" (Bai hurrean!)

usedio

usena, ixena: izena

"Estait oin selan dan usena" - (Ez dakit orain zelan den izena)

"Noperak deritxon usena imin yake" (Norberak deritzon izena ipini zaie)

usu

"Atxineko usuko, guresok emo yoskuen, e, sera, elexartze iten ta dusti, elexartze be nik neure umeri Ondisen ei nentzen" - (Antzinako ekandukoa, gurasoek eman ziguten, zera, eliza hartze egiten eta guzti, eliza hartzea ere nik neure umeei Ondizen egin nien)

xaxarrea: patxada

yakituri

yasa: 1. jasa, itxura, planta. 2. ekandu, usadioa
yoan etorrie: joan-etorria

21. ADJEKTIBO BAKUNAK

Atal honetan adjektibo bakunak biltzen ditugu, noizean behin eratorrien bat ager daitekeen arren, hauetariko gehienak berba eratorrien atalean agertuko dira. Bestalde, adjektibo konposatuak eta adjektibotzat erabiltzen direnak esakunen atalean agertuko dira. Azkenik, kolorei buruzko berbak azpi-atal berezian agertuko dira amaieran.

aberatza: aberatsa

LEIOAKO HIZTEGIA

abile

afisiñedue: zalea

afo: afoa, putza

agindugureko

agune: aguna

akabuko

alegre: alaia

"Ori alegre san" - (Hori alaia zen)

aleko: itzela, aleko egarrie, aleko gosea, aleko otza (hotza)

alperra: alperra

"Ba alperra ixen san ta bearrik in esik elei yan, ta beyentzat txomin bedarra ebaiten yote san ta, yan iteyen olan bigun bigun" - (Ba alperra izan zen eta beharrik egin ezik ez liteke jan, eta behientzat txomin belarra ebakitzen joaten zen eta, jan egiten zuten holan bigun-bigun)

alperriko

alrrebesadue: aldrebestua

alte: altua (f.)

"Beste apur bet altatxuau da" - (Bestea apur bat altutxoagoa da)

altu: altua

"Su esara ni baño altu" - (Zu ez zara ni besteko altua)

amerikanue: amerikarra, Ameriketean egonekoa ere bai

amotza: amotza

andi: handia

"Bero andi dau" - (Bero handia dago)

andiki

"Jente igual aputxu bet, selan esangot? andikiao" - (Jendea beharbada apurtxo bat, zelan esango dut? handikiagoa)

andra maistrea: neskato taldeetan agintzen duena, amakona

antzeko

antzue: antzua

apala: apala

apartekoa: apartekoa

apatza: apatza

apresiadu

aproposa: aproposa

aproposko: aproposkoa

apropostue: apropostua

arbine: arbina

argala: argala

"Nik euki nendun amoma neure antzeko, argala ta, amoma ber berbera sara, farola falta datzu!" (Nik eduki nuen amoma neure

antzekoa, argala eta, amoma ber-berbera zara, farola falta zaizu!)

argi: argia

arine: arina

armatu: erropari edo ganaduari buruz tente dagoenean esaten da

"Bakixu ser paste san armatu armatu yote san ganadu orreas" (Badakizu zer pasatzen zen armatu-armatu joaten zen ganadu horregaz)

arraro: arraroa

arro: harroa

arterauko

artesa: arteza, zuzena

asala: azala

askena

askenengoa, askenekoa: azkenengoa

aspaldiko: aspaldikoa

astokilloa: astakiloa

astoko: astokoa

astokotoa: astokotoa

astotoa: astotoa

astune: astuna

atrebidea: ausarta (f.)

atrebidue: ausarta

atxineko

babalasto

baju: baxua

"Meta pe ite siren batzuk olan bajutxuk ite siren baye beste batzuk bean, a, oseake sabalera andi emon" (Metak ere egiten ziren batzuk holan bajutxoak egiten ziren baina beste batzuk behean, hau da zabalera handia eman)

bajutoa: baxutoa

bakarra: bakarra

"Etze bakarra Martibarrene, or besterik estu esetu" (Etxe bakarra Martibarrene, hor besterik ez dugu ezagutu)

balastragoa: balastragoa, trauskila

baliente: ausarta

"Amoma baliente ixen san, santzolari" - (Amoma ausarta izan zen, zantzolaria)

baltzingoa: baltzingoa, beltzarana

bardin antzeko

bardine: bardina

"Guk, e, bardin antzen eiten gendun" (Guk, berdin antzean egiten genuen)

bardingo: bardingoa

barea: barea

barrabana: barrabana

LEIOAKO HIZTEGIA

"Asto nik estait ikeratu basan edo se barraban pasa yaten" (Astoa nik ez dakit ikeratu zen edo ze barraban pasa zitzaidan)

barrabasa: barrabasa

"Gastaña be bai estait selan barrabas einte baye bai bai, gastañakas be bai seoser edo asukreas iminte yeden" (Gaztaina ere bai ez dakit zelan barrabas eginda baina bai bai, gaztainakaz ere bai zer edo zer edo azukreagaz ipintzen zuten)

barri: berria

"Lamiako ori ya barri da" - (Lamiako hori ja berria da)

"Elexati bera dana da barri" - (Elizatik behera dena da berria)

basto: bastoa, latza

begiokerra: betokerra

benetakoa: benetakoa

berbaltue: berbaltua, tartamutua, totela

berdetxea: baltzingoa, beltzarana

bero: beroa

beterre

"Baukot lloba bat betterre" - (Badaukat iloba bat betterrea)

betiko: betikoa

bigune: biguna

biorra

"Eseten san obeto apur bet bioarrao egon diten, bioarrao, baye, pasata baño se pasa iten basan gero arto siku eseten san" - (Izaten zen hobeto apur bat lehorrigo egon dadin, lehorrigo, baina, pasatuta baino ze pasatu egiten bazen gero artoa sikua izaten zen)

biribile: biribila

birrotxea: birrotxoa (f.)

birrotxoa: birrotxoa

biskorra: bizkorra

"A biskor yauk nik koisteko" - (Hura bizkor zagok nik hartzeko)

bixie: bizia

burutoa: buru gogorra

defunte, difunte: difuntua (f.)

"Arrieneko Balbina defunte pe ite yen" - (Arrieneko Balbina difuntuak ere egiten zuen)

defuntu, difuntu: difuntua

"A bakixu nok fumateun? Kandido defuntuk" - (Hura badakizu nork erretzen zuen? Kandido defuntuak)

"Aite defuntuk eiteun labasu" - (Aita difuntuak egiten zuen labasua)

desesune: desezaguna

deskalatradue: ganorabakoa, gizonezkoei buruz esaten da

diferente: desberdina

dotorea: dotorea

dultze

edadeko: edadekoa

ederra: ederra

elegante: dotorea

eletrikue: elektrikoa

epela: epela

"Aitu katu an dau epeletan" (Aitu katua han dago epeletan)

epertoak: ipurdi handiak

epertonea: ipurtona

erkine: erkina

erredondo

errentablea: errentagarria

errubio

esbardine: ezberdina

eseune: ezaguna

eskasa: eskasa

esoyena: norberekoa

estimedu: preziatua

estu: estua

esune: ezaguna

faltzo: faltsoa

famadu: ospetsua

fanfarroya: fanfarroia, harroa

fasile: erraza

"Luamak eseten dire lur fasilek" - (Luamak izaten dira lur errazak)

"Au kendu i lio fasil" - (Hau kendu egin liezaioke erraz)

fine: fina

formala: zintzoa

frankue: egiazalea

fresko: freskoa

fuerte: indartsua

galanta: galanta

gallardonea: gailardona, gangarra

gangallea: altua (f.)

gangarra: harroa

gangulle: altua

garbi: garbia

garratza: garratza

gasa: geza

gasi gasa: gazi-geza

gasi: gazia

gaste: gaztea

LEIOAKO HIZTEGIA

"Ori da mutilik gasteena" - (Hori da mutilik gazteena)

gatxa: gaitza

"Ori da askos gatxau" - (Hori da askoz gaitzagoa)

giputze, kiputze: giputza

"Kiputzek sarratu tire" - (Giputzak zarratuak dira)

gixaje: gajoa

gixajo: gizajoa

gogorra: gogorra

gordine: gordina

"Arto ta esne ta indabak, baina arrutzek gordinek, e?" (Artoa eta esnea eta indabak, bai arrautzak gordinak, e?)

gorie: gorria

gorra: gorra

"Majo gixona ixen san, bai gorra, gorra terrible gorra!" - (Jatorra gizona izan zen, baina gorra, gorra itzela gorra!)

gosekile

goso: gozoa

"Ori goso esete san, nopera pe, kasik yan iteko moduko" - (Hori gozoa izaten zen, norberak ere, kasik jan egiteko modukoa)

guape: polita (f.)

guapo: polita (m.)

iguala: berdina

ilune: iluna

inorante

inusente: inuzentea

"Ori esi letike ixen inusenteau" - (Hori ezin liteke izan inuzenteagoa)

irikine

"Bai seña mañoso ta irkin daun ume, ori betterre ori!" - (Bai seña mainati eta erkin dagoen umea, hori betterre hori!)

itzela: itzela

"Kanbio itzela! eske jente dau asko kanpoko" - (Aldaketa itzela! ze jendea dago asko kanpoko)

itzeleko

"Es pentza ixete sala bakarrik etze etze barrukok, es, es eta gero afari itzela gero gauen afaltan, lengusuk eta tiok eta ausotako pe bai, eta bueno! itzeleko txufle ixete san" (Ez pentsa izaten zela bakarrik etxe etxe barrukoak, ez, ez eta gero afari itzela gero gauean afaltzen, lehengusuak eta osabak eta auzoetakoak ere bai, eta beno, itzeleko parranda izaten zen)

itzu: itsua

ixile: isila

kakapirrie: kakapirri, ipurterrea

kalbo: burusoila

kankalea: ganorabako andreei buruz esaten da kanpurrianue: kanpotarra

karu: garestia

"Lantzen bat eiteko, ba yateko karu dau" - (Lantzean bat egiteko, ba jateko garesti dago)

kategoriko

kiskorra: kizkorra

klaru

koitede: koitada (f.)

koitedu: koitadua

kokola mekea: kokola meka

kokolea: kokoloa (f.)

kokolo mekoa: kokolo meko, kokolobatxi

kokoloa: kokoloa

kontentu

koreanue: kanpotarra

koskolloa: koitadua

koxo: koxoa

kuadradue: karratua

kutune

"Kutune da, a, seuk asko apresiaten dosun gause bat, um! selango kutune! se kutune saren!" - (Kutuna da, zeuk sano preziazten duzun gauza bat, um! zelako kutuna! ze kutuna zaren!)

labana: labana

laburre: laburra

larri: larria

"Se egun larri daun!" - (Ze egun larri dagoen!)

lasu: lasua, lasa

latza: latza

lausoa: lausoa

lelea: leloa (f.)

leloa: leloa

lerdea: lerdoa (f.)

lerdoa: lerdoa

leune: leuna

liorra: lehorra

listo: zuhurra

lisu: lisua

lodi: lodia

"Etor da mutil lodi" (Etorri da mutil lodia)

lodito: loditua

loditonea: loditona

loditzarra: loditzarra, lodikotea

loye: lohia

lupu: lupua, irain gogorra da

LEIOAKO HIZTEGIA

lusangea, lusengea, lusingea: luzanga

luse: luzea

madariketue: madarikatua

maje: majoa (f.)

majo: majoa

makala: makala, gaixoa

maketo: maketua

makurre: makurra

mamalea: mamala

mamarrea: mamarroa (f.)

mamurre: samurra

mankue, mantxue: besomotza

mantzo: mantsoa

"Ordun mantzo etor siren, mantzo, asikeran ta" - (Orduan mantso etorri ziren, mantso, hasieran eta)

mardule: mardula

mari mutile: mari mutila

mari sute: mari sutea, nontzebarria, sekretuak ezin gorde ditzakeena

masala: mazala, trankila

mea: mehea

"Ori esta ain mea" - (Hori ez da hain mehea)

meatz

"Aurrerako itxiteko gari ite san aputxu bet meatzau erein, ta ebai iteko apur bet sarratuau" - (Aurrerako uzteko garia egiten zen apurtxo bat mehatzago erein, eta ebaki egiteko apur bat zarratuago)

mekoa: ikola

memeloa: memeloa

mengela

merke: merkea

mikea: oilo mika, zaharra

milindrie: milindria

mingorra: mingorra, mingarria

mingotza: mingotsa

"Beres yayokok sera pe bai, txiki txikitxuk, baye, mingotzak eseten siren, sano mingotzak" - (Berez jaiokoak zerak ere bai, txiki-txikitxoak, baina, mingotsak izaten ziren, sano mingotsak)

misketue: mizkatua

miskie: mizkea, mizkina, milika

morenea: beltzarana (f.)

morenue: beltzarana

morroskoa: morroskoa

motela: motela, eguraldiari buruz esaten da

motolloa: motroiloa

motza: motza

mutue: mutua

nagie: nagia

naosi: nagusia

noblea: zintzoa

normala: normala

obe: hobia

"Ori da su baño obe" - (Hori da zu baino hobia)

okerra: okerra

"Batzuk, e, okerrak eseten siren" - (Batzuk, okerrak izaten ziren)

ona: ona

oso: osoa

osperea: hozbera

otza: hotza

papalderoa: papalderoa

papaue: lerdoa

pike: pika, aldatsatsua

pintoa: espilduna

planue: laua

pobre: txiroa

polite: polita

potolea: potoloa (f.)

potoloa: potoloa

potolonea: potolona

putze: putza

rubie: errubioa (f.)

rubioa: errubioa

sabala: zabala

"Ordun ganadu sabala bada ak pisu geyao artzen deu" - (Orduan ganadu zabala bada hark pisu gehiago hartzen du)

sagradu

sakona: sakona

sala: zail

sale: zalea

samurre: samurra

santarra, sandarra: zantarra

santu: santua

sapala: zapala

sapoa: zapoa, faltsua

sarra: zaharra

"Ori da andrarik sarrena" - (Hori da andrerik zaharrena)

"Es, ain sarra enas" - (Ez, hain zaharra ez naiz)

sarratu, serratu: zarratua

"Adarrak estixela euki, es, e, lar serratu es, es olan, euki dixela olan apur bet, e, olan, bustertuteko eta seren eta olan euki dixela" - (Adarrak ez ditzala eduki, ez, lar zarratu ez, ez holan, eduki ditzala holan apur bat, holan, buztartzeko eta zerean eta holan eduki ditzala)

LEIOAKO HIZTEGIA

saskela: saskela, lohia
saspi sute: nontzebarria
sea: xehea
seatza: zehatza
sekena: zekena
selebrea: zelebrea
señaladue: nabarmena
sendo: sendoa
sentzilloa: erraza, apala
serratu
serioa: serioa
siku: sikua
sirine: zirina, ume bihurriak, drogosoak
sistrine: ziztrina
sitela: zitala
solie: zolia
solterea: ezkonbakoa (f.)
solterue: ezkonbakoa
soltue: soltua
soroa: zoroa
sorrotza: zorrotza
suabe: suabea
surre: zuhurra
susie: pertsona artega
terkoa: tematia
terrible: itzela
tontoa: inuzentea
trakile: lasaia (f.)
trankilo: lasaia (m.)
triste: tristea
"Ureas bakarrik indabe triste dau" - (Uragaz bakarrik indaba triste dago)
tropea: dorpea
tuerte: begi bakarra (f.)
tuertoa: begi bakarra
txarra: txarra
"Gero ori be gero ta txarrau etorte san" - (Gero hori ere gero eta txarrago etortzen zen)
txato
txikerra: txikerra
"Lar txikerra da" - (Lar txikerra da)
"Nik gure neko txikerrak ikis din" - (Nik gurako nuke txikerrak ikas dezan)
txikitonea: txikitona
txikotoya: txikitoa
txirrie: txikerra, makarra
txotxe
txotxo
txotxoloa: txotxoloa
tzarra: tzarra
ugeri: ugaría

"Emen ganadu ugeri dau" (Hemen ganadu ugari dago)
unikue: bakarrik
urreko, urruko, urrengo: hurrengoa
"Emen auson be egon san, emen urrengo etzen be egon san, Balbina pere, sanatenes ondo ite yeun orre pe, baye jo! baye min!"
- *(Hemen auzoan ere egon zen, hemen hurrengo etxean ere egon zen, Balbinak ere, zain tiratua ondo egiten zuen horrek ere, baina jo! baina min!)*
ustela: ustela
utze: hutsa
"Ori berdine utze da" - (Hori berdín hutsa da)
yakana: jakana
yasekoa: jasekoa, itxurakoa

21.1. KOLOREAK

asule: urdina
"Ori esta berde da asule" - (Hori ez da berdea da urdina)
asul ilune
asul klaru
asuliskea: urdinxka
baltza: beltza
"Eneitzu esan, bai bakit selan, e, abortxe ote san, ortarango bat olan kasik baltza, alan ser andi bai" - (Ez niezazuke esan, baina badakit zelan, haortxe egoten zen, horietariko bat holan kasik beltza, halan zer handi bat)
baltziskea: beltzaxka
bellegi: beilegia, horia
bellegiske: beilegixka, horixka
berde: berdea
"Klase bi es, klase bat baye ixetan da bat berde, labati pasa barik" - (Mota bi ez, mota bat baina izaten da bat berdea, labetik pasatu barik)
berdiskea, berdeskia: berdexka
gorri: gorria
"Ikus du etze gorri" (Ikusi dugu etxe gorria)
gorriste: gorrixka
gorriske
grise: grisa
marroya: marroia
"Marroyan moduko alan madari goso ta urtzu" - (Marroiaren modukoa halan madari gozoa eta urtsua)
moreue: moratua

LEIOAKO HIZTEGIA

suri: zuria

"Txakurre baltza da baye katu suri"

(Txakurra beltza da baina katua zuria)

suriskea: zurixka

22. ADITZONDOAK

Batu ditugun aditzondoak sailkatzeko euron esangura hartu dugu oinarriztat. Era honetara, atal honetako azpi-atalak denbora aditzondoak, leku eta kokaguneak, modu aditzondoak, maila aditzondoak eta zenbatekoak izango dira.

22.1. DENBORA ADITZONDOAK

aldien: noizean behin, aldian-aldian

akaburengos: azkenengoz

arreskero: harrezkero

arten: artean

aspaldin: aspaldian

aton: atoan, behingoan

ato berean: ato berean

atxine: antzina

"Baye atxine atxine esien egoten frigorifikok, esien egoten" - (Baina antzina-antzina ez ziren egoten hozkailuak, ez ziren egoten)

atzenean: atzenean, azkenean

atzenengos: atzenengoz

atzera: atzera, berriz

"Esayostesu atzera" (Esaidazu atzera)

aurretixik: aurretizik

aurten

"Aurten estot auki klase bi baño" - (Aurten ez dut eduki mota bi baino)

barrin: berriz, atzera

"Ara! etorri bier be barrin bile" - (Hara! etorri bihar ere berriro bila)

bein: behin

"Bein ego nitzen an sure errin" - (Behin egon nintzen han zure herrian)

"Bein il duleko dekot ardi" (Behin hil dugulakoa daukat ardia)

beingon

"A mintze da kaskaren barrun dauna ta, aas kontus ibil ber dosu se ploust eiten yatzu apurtu, beingon apurtan da arrotze" - (Hura mintza da azalaren barruan dagoena eta, hagaz kontuz ibili behar duzu

ze ploust egiten zaizu apurtu, behingoan apurtzen da arrautza)

beinoneskoan, beineskoan, beneskoan: behin honezkero

belu: belu, berandu

beñola: behinola

berandu: berandu

beti: beti

"Bere lagune beti dator berandu" - (Bere laguna beti dator berandu)

bider: bider

"Senbet bider egon sara or?" - (Zenbat bider egon zara hor?)

"Ego nas iru bider" - (Egon naiz hiru bider)

bier etzien: bihar-etzian

birriten

"Ni ara yo nas birriten edo iru bider ara radora" - (Ni hara joan naiz birritan edo hiru bider hara irratira)

derrepentean: bat-batean, halako batean

egunero

eguno: egundo, sekula

en jeneral

ensegida: behingoan, berehala

"Len porruri be aitute yakon, se porru pe ien eite yen, porru iminterik ilberara, ta ilbera barik imintera, ensegida ieta yen ta gero palu" - (Lehen porruari ere aditzen zitzaion, ze porruak ere igan egiten zuen, porrua ipintzetik ilbeherara, eta ilbehera barik ipintzera, behingoan igaten zuen eta gero makila)

gero: gero

gesu bet: gesu bat, une bat

goixeti, goxeti

"Goixeti etorko badire ikusi in ber" (Goizetik etorriko diren ikusi egin behar)

ies: iaz

jeneralean: gehienetan

lantzen: lantzean

lantzen bein, lantzen beinen: lantzean behin

laster: laster

len: lehen

lenau: lehenago

lengo aldin: lehengo aldian

"Ta on sara lengo aldin Benantzio onegas?" - (Eta egon zara lehengo aldian Benantzio honegaz?)

lengon

nekes: nekez, gutxitan

"Nekes lotzen da lo" - (Nekez lotzen da lo)

LEIOAKO HIZTEGIA

"Oin nekes esaten da ori" (Orain nekez esaten da hori)

nosepinean, nosepeiñean, nosepinean:
noizean behin

oin: orain

"Ointxe estakidena badakixu, ointxe bere" -
(Oraintxe ez dakidana badakizu, oraintxe ere)

oindokarren, ondinarren: oraindinarren

ointzu: oraintsu

ondinarren: oraindinarren

ondino: oraindino

"Oin ondino geyao se oin deke non emon denpore" - (Otain oraindino gehiago ze orain daukate non eman denbora)

"Oin ondino giau gureko tzut" - (Orain oraindino gehiago gurako dizut)

ondinarren

"A mutile gaste ixen san ondinarren" -
(Mutil hura gaztea izan zen oraindinarren)

ordun: orduan

ostabere, ostabe: osterera

"Arik irugarren egunen ostabere ikusi neun" -
(Handik hirugarren egunean osterera ere ikusi nuen)

sasoiz: sasoz

sarri: sarri

"Ori sarri etorriten da ona" - (Hori sarri etortzen da hona)

sarriten: sarritan

segidan: segituan

sekule: sekula

"Ganadu itzel gustaten yako, osterera niri ganadu sekule etxat gusta" (Ganadua itzel gustatzen zaio, osterera niri ganadu sekula ez zait gustatu)

untzu: oraintsu

22.2. LEKUA-KOKAGUNEAK

agirin: agirian

albo: albo

"En jeneral alboko aldeti sartu ber yako" -
(Gehienetan alboko aldetik sartu behar zaio)

alde: alde

alden: aldean

alderdi: alderdia

asao, asau: asago

aspi: azpia

"Amairu iminteutesan ollon aspin" -
(Hamahiru ipintzen zizkion oiloaren azpian)

atze: atzea

aurre: aurrea

barru: barrua

bea: behe

"Euki gendun gasundegi bean" (Eduki genuen gatzun aska behean)

bekalderdie: behe alderdia

bekoaldea: beheko alde

bitarte

"Ganaduk olan albon, aukiten deu bitarte bat, t'andi sartu" - (Ganaduak holan alboan, edukitzen du bitarte bat, eta handik sartu)

enparaue: ingurua

erdi: erdia

gane: gaina

goye: goia

ingiru, ingeru: ingurua

"Amasaspi nik eta amabost ingiru suk" -
(Hamazazpi nik eta hamabost inguru zuk)

kanpo: kanpoa

"An kanpon eite san bear, solon, eta beste modu eten bixi gintzen" - (Han kanpoan egiten zen behar, soroan, eta beste modu baten bizi ginen)

kontrasola: ainubea

nortea: iparra, iparraldea

ondo: ondo

ostea: ostea, atzea

paraje: paraje, hurbil

"Gerorau parajeau basaus, obeto entzungo su" - (Gerorago parajeago bazagoz, hobeto entzungo duzu)

"Semet, e, parajeao obeto" (Zenbat, parajeago hobeto)

parea: pare

parte: alderdia

partes

punte: punta, mururra

"Erramu iminte san puntan" (Erramua ipintzen zen puntan)

tarte

ur: paraje, gertu

urrin: urrun

22.3. MODU ADITZONDOAK

adi: adi, begira

airen: aidean

LEIOAKO HIZTEGIA

alborikara: alborikara

albos: alboz

aldeskin: aldezkina

aldrebes: atzekoz aurrera

aloberen

"Or ego siren etze bi, eta or etze bietan ibilte nintzen ni aloberen esate san ordun" - (Hor egon ziren etxe bi, eta hor etxe bietan ibiltzen nintzen ni alogeran esaten zen orduan)

amesetan, amestan: amesetan

aparte: aparte

apenas: 1. nekez. 2. ez dirudi, ez liteke pentsa

apropos

arin: arin

"Etortzen bada arin ikusiku" - (Etortzen bada arin ikusiko dugu)

"Al danik arinen" - (Ahal denik arinen)

artega: artega

artesean: artezean

asarre: haserre

askenen, askanen

aspirikara: azpirikara

astrakan

astillera: zozpalera, enborrak hausteko teknikari esaten zaio, ebakitzeko ziriak erabiltzen direnean

aterri: aterri

atzerikara, atzerikera: atzerikara

atzes: atzez

auskera

banan: banan

bardin antzen

barres: barrez

barriketan: berriketan

batzan: batzan

bearren: beharrea

"Aite bearren yote san, eite yen bear emen Lamiakon" (Aita beharrea joaten zen, egiten zuen behar hemen Lamiakon)

beintzet: behintzat

belauniko: belauniko

"Biden, e, kuiten bayoskuen belauniko paraten gintzesen biden, etorte siren ortik eta belauniko parata arik eta pasa arte" - (Bidean, hartzen bagintuzten belauniko paratzen ginen bidean, etortzen ziren hortik eta belauniko paratuta harik eta pasatu arte)

benetan: benetan

"A dau goso, aik indaba taus goso benetan, indabe yanta bakarri(k) be bai" - (Hura

dago gozo, indaba haiek dagoz gozo benetan, indaba janda bakarrik ere bai)

berbas: berbaz

"San Felizisimora asko erote sien umek, nik eron doas nirek, bendesinok artzen ara, ikis din berbas" - (San Felizisimora asko eroaten ziren umeak, nik eroan ditut nireak, bedeinkazioak hartzen hara, ikas dezan berbaz)

berbetan

beres: berez

bestela

"Bestela ixilik basengos" - (Bestela isilik bazengoz)

bide bates: bide batez

bildurrez: bildurrez

biribilean: biribilean

bolatan: bolotan

briskan: briskan

bueltan: bueltan

burlesar: burlazar

burren: bihurra

burus

dandarres: dandarrez

"Nik, e, emen dandarres dekotena nik estait ser dekoten dandarres" - (Nik, hemen dandarrez daukadana nik ez dakit zer daukdan dandarrez)

dardar

derrigor: derrigor

derrigorrea: derrigorra

drogan: drogan, endreduan

egas

endola txarra: gogo txarra

enjeneral: gehienetan

erbatz: ganoraz, ondo, erbatz

erbatzes: ganoraz, ondo, erbatzez

erdera: erdaraz

"Orrek ya erdera asko ein deude" - (Horiek ja erdaraz asko egin dute)

"B'ori erdera nai euskera esaten dalako dekot nik" - (Ba hori erdaraz nahi euskaraz esaten delakoa daukat nik)

erderas: erdaraz

errolan

esato

esken: eskean

"Esken etor da" - (Eskean etorri da)

eskus

eurres: aurrez

euskera: euskaraz

LEIOAKO HIZTEGIA

"Bere amak beti ite otzo euskera" - (Bere amak beti egin dio euskaraz)

"Nik año euskera baki orrek" - (Nik baino euskara badaki horrek)

"Au Getxoko da, onek euskera iteyeu atxine bai gero, euskera gitxi iten deu onek" - (Hau Getxokoa da, honek euskara egiten zuen antzina baina gero, euskara gutxi egiten du honek)

"Euskera ixen siren orrek politek" - (Euskaraz izan ziren horiek politikak)

euskeras: euskaraz

euspes, auspes: ahospez

fatxadas: fatxadaz, ganoraz

fijo

fijo-fijo: ziur-ziur

geldi: geldi

"Geldi itxiteko semet amak eiten deu? emon ogei ogerleko, yon diton erosten" - (Geldi uzteko zenbat amak egiten du? eman hogei ogerleko, joan daitezen erosten)

geyenes

geyes: deiaz

illedan: ilaran

inderga: indarge

iruntzitera, iruntzietara: iruntzitarra

itzel: itzel

ixillean: ixilean

justo justoan

karra

karraderan: karraderan, korrika

kasan: ehizan

katigu: katigu

kejas: kexaz

kolorga: kolorge

kontentus: pozik

kontrara: kontrara

kontus: kontuz

"Beti kontus apurtu estiten" (Beti kontuz apurtu ez dadin)

kontrara

kukulumixo: kukulumixo

kurtzes: gurutzez

kurtzetan

lantzar: lantzar

lapurretan

layetan: laietan

libre: libre, aske

"Libre libre gitxiten egoten san" - (Libre-libre gutxitan egoten zen)

lotan: lotan

majo: ondotoxo, polito

makal

"Ixeke para san makal" - (Izekoa paratu zen makal)

malluketan: mailuketan

marmarrear: marmarrear

matrakan: matrakan

mesedes: mesedez

narras: narras

nasten: nahastean

negarres: negarrez

"Umeri be bai nik sarri askotan or ikusi seoser, pelikulen ta negarres ta enei! selau negar anpulluk koitedu ori!" Umeari ere bai nik sarri askotan hor ikusi zer edo zer, pelikulan eta negarrez eta ene! zelako negar anpuluak koitadu hori!)

nekes: nekez

obun: ondotoxo, justu-justu

oñes, uñes: oinez; "Oin" berba esangura honegaz eta honelako esakunetan baino ez da erabiltzen

peskan

plantxan: plantxan

plegan: toles

prest: prest

"Ordun eukiten gendun prest ya sestokada piperra erretako berton" - (Orduan edukitzen genuen prest ja otzarakada piperra erretzeko berton)

primeran

prisas

puntes: puntaz, behatzen gainean paratuta ibiltzea

sakadis: sakadiz

salgei: salgai

sallen: sailean

segidun: segituan

seguru: antza, dirudienez

sikun

solte: solte, soltu, aske

soltu

soltuen, soltean: soltuan, soltean

sorriketan

surrut: zurrut

tenplen

"Ure, tenplen ure, bero es, tenplen, ta gatza aputxu bet, ta gero iminte san an aspiren, a, ba urune, ta an eiten gendun amase, ta in bolatxuk, ta gero arto, ta gero txapara" (Ura, tenplean ura, bero ez, tenplean eta gatza apurtxo bat, eta gero ipintzen zen azpiran, ba irina, eta han egiten genuen

LEIOAKO HIZTEGIA

orea, eta egin bolatxoak, eta gero artoa, eta gero txapara)

tiren: tenkatuta

trabes: trabes

trabesen: trabesetara

trukes: trukez

tuten

txikon

yantzan: dantzan

"Akaba baixen lelau yantzan" - (Amaitu baino lehenago dantzan)

yorran: jorran

22.4. MAILA ADITZONDOAK

ain: hain

"Ni enas ain lodi" - (Ni ez naiz han lodi)

"Ni enas ain altu" - (Ni ez naiz hain altua)

bastante: nahikoa

"Ori da bastante andi" - (Hori da nahikoa handia)

"Ori da bastante txikerra" - (Hori da nahikoa txikerra)

dusti: guzti

"Dustiarren bere ondo ingu" - (Guztiarren ere ondo egingo dugu)

"Indabak egurdin, e, dustik bateti yaten gendun" (Indabak eguerdian, guztiok batetik jaten genuen)

konpleto: guztiz, osotoro

naiko: neiko: nahiko

"Au bearrau akabateko naiko deku denporarik" - (Behar hau amaitzeko nahiko daukagu denborarik)

"Naiko ingeru darosus" (Nahiko inguru daroatzazu)

ondo: ondo, sano

orren: horren

sano: sano, oso

"Sano da gaste" - (Sano da gaztea)

total

23.5. ZENBATEKOAK

ainbeste: hainbeste

"Nik estekot ainbeste diru" - (Nik ez daukat hainbeste diru)

"Suk estekosu ainbeste urte" - (Zuk ez daukazu hainbeste urte)

"Orrek estekos ainbeste bei" - (Horrek ez dauzka hainbeste behi)

ainbet: hainbat

"Nik ein dot ainbe pider gastaya" - (Nik egin dut hainbat bider gaztaia)

apur bet: apur bat;

apurtxu bet, aputxu bet: apurtxo bat

aren: arean

"Suk estosu in aren" (Zuk ez duzu egin arean)

asko: asko

"Orrek gause asko esan deitus" (Horrek gauza asko esan ditu)

atañoko: atainoan

banakaren bat: banakaren bat

"Bai banakaren bat ote siren" (Bai banakaren bat egoten ziren)

"Banakaren bat orti yon da baye ostera emeti gitxi" (Banakaren bat hortik joan da baina ostera hemendik gutxi)

bastante

"Ori erositeko nik ekar dot bastante diru" - (Hori erosteko nik ekarri dut nahiko dirua)

batzuk: batzuk

bitzuk: bitzuk

danak: denak

dusti: guzti

eskandalu: asko

"Len bei betek emoten bayuen, amar litro emoten bayusen, jesus! eskandalu eseten san, sei litroas eskandalu, te oin ogetamar emon ber deitus" - (Lehen behi batek ematen bazuen, hamar litro ematen bazituen, jesus! asko izaten zen, sei litrogaz asko, eta orain hogeita hamar eman behar ditu)

franku: franko

"Es, es, ies ixen da frankuau piperrarako, nik ainbet, aurten in danaas kaskaragarraas ya piperra bastante anditxu inte on dales usteldu in da asko, ak ukutu dotzona dusti usteldu, alauseko piper lodik euki doas nik, eta ak pikata on dana usteldu, basoas solora eta ikusi dosu, ene! selau bedarra agarrau te pra! usteldute" (Ez, ez, iaz izan da frankoago piperrerako, nik hainbat, aurten egin danagaz abazuzeagaz ja piperra nahiko handitxo eginda egon denez usteldu egin da asko, hark ikutu diona guztia usteldu, halaseko piper lodiak eduki ditut nik, eta hark pikatuta egon dena usteldu, bazoaz sorora eta ikusi duzu, ene! zelako belarra oratu eta pra! ustelduta)

LEIOAKO HIZTEGIA

garitekok

"Gero gariteko pe edo eskondu te ba, kanpora yon" - (Gero garaitekoak ere edo ezkondu eta ba, kanpora joan)

geyena: gehiena

giau, geyau: gehiago

"Suk ekarri dosu ni(k) baño geyau" - (Zuk ekarri duzu nik baino gehiago)

gitxi: gutxi

"Intxur gitxi ekar doas" (Intxaur gutxi ekarri ditut)

gitxiasko: gutxi-asko

gitxiau: gutxiago

"Orrek erosi deu geu (k) baño gitxiau" - (Horrek erosi du geuk baino gutxiago)

"Nik asko dekoas gitxiau" - (Nik asko dauzkat gutxiago)

gusti: guzti

ingiru, ingeru: inguru, apur bat gora behera lar

"Porru lar ekar deude" - (Porru lar ekarri dute)

"Orre teko lar" (Horrek dauka lar)

"Emen kea lar dau" (Hemen kea lar dago)

magala: kantidade handia, soberakina

makine bat, makine bat: makina bat

"Makine bat, gerra denporan pasa gendun, e?" - (Makina bat, gerra sasoiaren pasatu genuen, e?)

modurik: modurik, handirik, askorik

naye: nahia, asko, zenbagura

"Begi txindorra, orre pe pasa doas naye nik" - (Begi txindorra, horiek ere pasatu ditut nahia nik)

"Aurten piper naye koyu dus" (Aurten piper nahia hartu ditugu)

naiko: nahiko

onenbeste: honenbeste

orrenbeste: horrenbeste

piti bet: apur bat

ugeri: ugari

23. ADITZA

Atal honetan aditz partizipio bakunak eta konposatuak aurkeztu eta ostean, partizipio eta aditz izenen erabileraz jardungo dugu, horretarako partizipio soilen erabilera, partizipioei erantzen zaizkienak eta aditz izenen erabileren gainerako adibideak emango ditugu.

23.1. ADITZ BAKUNAK

abanteu: 1. irau, 2. eutsi

aberastu: aberastu

aberitu: aberiatu, matxuratu

abieu: barruntatu

abisa: abisatu

abiseritu, abixeritu

"Abixeritu iten deusela arrutzek esate yen trugoik" - (Abisaritu egiten dituela arrautzak esaten zuten trumoiak)

abrosidu: gogaitu

"Abrosita nau" - (Gogaituta nago)

aburridu: aspertu

adisketu: adiskidetu

adorna

afaldu: afaldu

"Gixon batzuk afaldu deue" (Gizon batzuek afaldu dute)

"Afaltan gausela argi kendu deue" (Afaltzen gagozela argia kendu dute)

afotu: afotu

agarra: oratu

"Nora agarrarik estekolako, baye badeko nora agarra, ba gora dator" - (Nora oraturik ez daukalako, baina badauka nora oratu, ba gora dator)

agertu: agertu

"Agertuten direnen ba, etorko dire" - (Agertzen direnean ba, etorriko dira)

agindu: 1. agindu. 2 bidali

"An egonas ni, se ni beti ixenas argala, ta agindu yesten Katikera, yaten, arto ta indabak, ta arrutze pakarrik yate nendusin" (Han egon naiz ni, ze ni beti izan naiz argala, eta bidali ninduten Gatikara, jaten, artoa eta indabak, eta arrautzak bakarrik jaten nituen)

"Amak agindu dosku emen lotuteko" (Amak agindu digu hemen lotzeko)

agradesidu: eskertu

aguanta: eutsi, irau

aideu, aireu: airatu

aistu, astu: ahaztu

"Jenero asko astute dekot" - (Gauza asko ahaztuta daukat)

aitu: aditu, begiratu

akaba: amaitu

"Oin bijilik eta orrek akaba in dire" - (Orain bijiliak eta horiek amaitu egin dira)

akartu: akertu, ahuntzari akerra eman

